

TUS DERECHOS FRENTE AL MURO

Gorka Tortosa, Karmen Galdeano, Ainhoa Erkizia
y Abogados de Presas y Presos Políticos Vascos

TUS DERECHOS FRENTE AL MURO

Autores: Gorka Tortosa
Karmen Galdeano
Ainhoa Erkizia
y Abogados de Presos Políticos Vascos

Primera edición actualizada: Noviembre 2002

Depósito Legal: XXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Impreso en Gráficas Lizarra



TUS DERECHOS FRENTE AL MURO

Gorka Tortosa, Karmen Galdeano, Ainhoa Erkizia
y Abogados de Presas y Presos Políticos Vascos

*Euskal Preso Politikoei,
hizpide hauen inguruan
dakiguna ikasten behartu
gaituzten lagun minei.*

Acera y hormigón. Muros elevados hacia el cielo y alambre de espino que quiere circundarlo todo. Esa es la primera imagen que percibe cualquiera que se acerque por primera vez a una prisión. Ni siquiera las más recientes construcciones carcelarias, fruto de la tecnología más avanzada, han sido capaces de transfigurar esa imagen.

Cosa harto difícil, por otra parte, ya que la cárcel es centro de represión. Represión y nada más que represión. Al igual que su configuración externa, su estructura interna está enfocada al control absoluto sobre el preso.

Desde el primer momento del ingreso en prisión se siente desorientado, arrancado de su entorno social y familiar natural y rodeado por un ambiente extraño cuando no hostil. La elaborada legislación penitenciaria y la rutina carcelaria que a menudo ignora a la primera se convierten en los principales constructores de la realidad que debe afrontar la persona encarcelada.

Poderosos y efectivos son los instrumentos de que dispone el ámbito carcelario a la hora de sujetar al preso a su nueva realidad. Más aún. En lo que se prolonga la estancia carcelaria, una idea principal gobierna la actuación administrativa para con el preso: desarraigarlo, despojarlo de todas sus raíces, valores y convicciones anteriores y sustituirlos por la sumisión absoluta. En caso de que no suceda así, el castigo directo y permanente es la única alternativa. La represión sin límite.


La naturaleza humana, capaz de diseñar centros de represión como éstos, nos sorprende, sin embargo, a la hora de articular recursos con los cuales hacer frente a las más adversas de las situaciones. También a la represión carcelaria.

Personas que no quieren dejar de serlo a pesar de haber sido encarceladas. Militantes que resisten y no renuncian al proceso de lucha por el cual fueron encarcelados. Son excelentes ejemplos de dignidad y entereza personal en un medio caracterizado por la degradación de la condición humana. Constituyen una granítica piedra contra la que se estrellan todas las técnicas represivas. Ello, sin embargo, a costa de un gran esfuerzo y desgaste personal en la mayor parte de los casos.

Por eso, es de agradecer la publicación de libros-guía como éste, que sirven para facilitar la defensa del encarcelado; para escarbar en las rendijas de la legalidad penitenciaria y reducir en la medida de lo posible los desmanes de la administración.

Más aún cuando los tiempos que corren se caracterizan por el notable incremento de la represión en todos los ámbitos y la degradación de las condiciones de vida de los presos políticos vascos.

Jon Anza, euskal preso politikoa.



AURKIBIDEA ÍNDICE

EUSKARAZKO BERTSIOA

1. SARRERA	23
1.1. Espetxe-Araudiaren (RPren) “Exposición de Motivos”	24
1.2. Hizkuntza kontuak direla eta	25
2. ESPETXE MOTAK, BIZITZA ERREGIMENAK.	27
2.1. Oinarrizko zenbait kontzeptu: bizitza-erregimena, banan banako tratamendua, birgizarteratzea, berreziketa, presoan arteko bereizketa, espetxe balioanitzak, moduluak, unitateberezia.	27
2.2. Beste zenbait oinarrizko kontzeptu.	29
2.3. Espetxe-erregimenak: arrunta (ohikoa), itxia, irekia. Preso prebentiboak eta preso zigortuak.	30
2.4. Ez ohiko erregimenak:	34
2.4.1. Erregimen-murrizketak: RP 75 artikulua.	34
2.4.2. RP 100.2. artikulua.	35
2.5. Bitarteko hertsatzaileak.	36
2.6. Erregimen bakoitzeko bizi baldintzak zuzentzen dituzten arauak, legeak. . .	38
2.7. Espetxeen erabakien kontrol judiziala: Espetxe Zaintza Epaitegiak (JVP). . .	39
2.8. Adin txikikoak: lehengo harrera zentroak.	40
2.9. FIES: jarraipen bereziko fitxategia.	41
3. BARNE BIZI-ERREGIMENA. BIZI-BALDINTZAK.	43
3.0. Sarrera.	43
3.1. Ohiko bizi-erregimena.	43
3.1.1. Espetxeratzea, barne erregimenaren arauak.	44
3.1.2. Araketa eta miaketa pertsonalak.	45
A. Ziega eta norberaren gauzen miaketak.	45
B. Miaketa pertsonalak.	46
3.1.3. Ziega.	48
3.1.4. Ordutegia.	49
3.1.5. Zenbaketak.	49
3.1.6. Ekintzak/Jardunak.	50
3.1.7. Osasun asistentzia.	51
3.1.8. Denetarik.	52
A. Pekulioa.	52
B. Ekonomatoa.	53
D. Eskariak egiteko aukera.	53
E. Garbiketa produktuak.	53
F. Arropa.	53
G. Garbiketa.	54
H. Jantokia.	54
I. Irratia, telebista eta CDa.	54
J. Ordenagailua.	55

	K. Paketea.	55
	L. Gida-baimena.	55
3.2.	Bizi-erregimen mugatua edo erregimen itxia.	56
3.2.1.	Patio orduak.	58
3.2.2.	Programatutako ekintzak.	59
3.2.3.	Arropak eta norberaren gauzak.	59
3.2.4.	Miaketa eta kontaktak.	60
3.2.5.	Leihoetako metalezko xaflak.	60
3.2.6.	Paketea.	61
3.2.7.	Jatorduak.	61
3.2.8.	Bizartegia eta ile-apaindegi zerbitzua.	61
3.2.9.	Garbiketa tresnak.	61
4.	BIZIMODUA. KANPOALDEKO KOMUNIKAZIOAK.	63
4.1.	Kontzeptu orokorrak.	63
4.1.1.	Komunikatu ahal izango duzun pertsonak.	63
4.1.2.	Komunikazioen interbentzioa, murrizketa edo etendura.	64
4.2.	Ahozko komunikazioak.	65
4.3.	Komunikazio bereziak.	66
4.3.1.	Komunikazio intimoa.	67
4.3.2.	Senitartekoekin komunikazioa.	67
4.3.3.	Bizikidetasun komunikazioa.	67
4.4.	Komunikazio idatziak.	68
4.5.	Komunikazio telefonikoak.	69
4.6.	Espetxeen arteko zein barne komunikazioak.	69
4.7.	Abokatuarekin komunikazioak.	71
5.	FUNTZIONARIAK ETA ESPETXE-ORGANOAK.	73
5.1.	Funtzionariak.	73
5.2.	Beste funtzionariak.	74
5.2.1.	Jurista, kriminologoa.	74
5.2.2.	Psikologoa, pedagogoa, psikiatra, soziologoa.	75
5.2.3.	Hezitzailea.	75
5.2.4.	Gizarte-laguntzailea.	75
5.2.5.	Maisua.	75
5.2.6.	Sendagileen taldea.	75
5.2.7.	Demandaderoa.	76
5.2.8.	Denetarik.	76
5.3.	Espetxe-organoak.	76
5.3.1.	Zuzendaria.	77
5.3.2.	Zuzendaritza-kontseilua.	77
5.3.3.	Tratamendu-batzordea.	77
5.3.4.	Zigor-batzordea.	78
5.3.5.	Batzorde ekonomiko-administratiboa.	78
5.4.	Dirección General de Instituciones Penitenciarias.	79

6.	INSTANTZIAK, KEXAK, HELEGITEAK.	81
6.1.	Instantziak.	81
6.2.	Kexak, helegiteak.	83
6.3.	EZEaren (JVP) autoak.	85
6.4.	Erreforma- eta subsidiarioki apelazio-helegitea (recurso de reforma y subsidiario de apelación). Ofiziozko abokatu-prokuradoreak, doako justiziaren onura.	87
6.5.	Kexa-helegitea.	90
6.6.	Argibide-helegitea.	90
6.7.	Babes konstituzionaleko helegitea.	91
6.8.	Erabaki judizial finkoen ukiezintasuna.	93
7.	ZIGOR ERREGIMENA.	95
7.1.	Arautegia.	95
7.2.	Zigor-erregimena: sarrera.	95
7.3.	Arau-hausteak.	97
7.4.	Prozedura.	99
7.5.	Zigorrak	104
7.5.1.	Isolamenduzko zigorrak.	105
7.5.2.	Ahozko komunikazioen kentzea.	106
7.5.3.	Paseoen kentzea.	106
7.6.	Kontuan hartzeko zenbait kontzeptu.	107
7.6.1.	Zigorren berehalako betetzea.	107
7.6.2.	Kautelazko neurriak.	107
7.6.3.	Preskripzioa.	107
7.6.4.	Ezeztapena.	108
7.6.5.	Zigorren errepikapena. Berrerortzea.	108
7.6.6.	Arau-hausteen pilaketa.	109
7.6.7.	Arau-hauste jarraitua.	109
7.6.8.	Behar gabe beteriko zigorren ordainketa.	110
7.6.9.	Baliogabetzea.	110
7.6.10.	Murriztapena.	110
7.6.11.	Espetxean berriro sartzean bete gabe zeuden zigorren betetzea.	111
7.6.12.	Zigorren kentzea.	111
8.	SALAKETAK.	113
8.1.	Instrukzio epaitegirako salaketak.	113
8.2.	DGIPerako salaketak.	115
9.	LEKU ALDATZEAK.	117
10.	ESPETXE-ONURAK.	121
10.1.	Luditzeak (erredentzioak).	121
10.2.	Kredituak.	123

VERSIÓN CASTELLANO

1. INTRODUCCIÓN.	127
1.1. Exposición de Motivos del Reglamento Penitenciario.	128
2. TIPOS DE PRISIONES, RÉGIMENES DE VIDA.	131
2.1. Algunos conceptos básicos: régimen de vida, tratamiento individualizado, reinserción, reeducación, resocialización, separación de internos, centros polivalentes, módulos, unidades especiales.	131
2.2. Otros conceptos básicos.	133
2.3. Regímenes Penitenciarios: ordinario, cerrado y abierto. Presos preventivos y presos condenados.	134
2.4. Regímenes particulares:	137
2.4.1. Limitaciones regimentales: artículo 75.1 RP.	138
2.4.2. Principio de Flexibilidad. Artículo 100.2 RP.	139
2.5. Medios coercitivos: artículo 72 RP.	140
2.6. Normas que rigen las condiciones de vida de cada régimen, textos legales.	141
2.7. Control judicial de las decisiones de los centros penitenciarios: el Juzgado de Vigilancia Penitenciaria.	143
2.8. Menores de edad: centros de primera acogida.	144
2.9. FIES: Fichero de Especial Seguimiento.	145
3. RÉGIMEN DE VIDA INTERNO. CONDICIONES DE VIDA.	147
3.0. Introducción.	147
3.1. Régimen de vida ordinario.	147
3.1.1. Ingreso en prisión, normas de régimen interior.	148
3.1.2. Registros y cacheos personales.	149
A. Registro de celdas y pertenencias.	149
B. Cacheos personales.	150
3.1.3. Celda.	152
3.1.4. Horario.	153
3.1.5. Recuentos.	153
3.1.6. Actividades.	154
3.1.7. Asistencia sanitaria.	155
3.1.8. Varios.	156
A. Peculio.	156
B. Economato.	157
C. Demandadero.	157
D. Productos higiénicos.	157
E. Ropa.	158
F. Limpieza.	158
G. Comedor.	159
H. Radio, televisión y CD.	159
I. Ordenador.	159

	J. Paquete.	159
	K. Permiso de conducir.	159
3.2.	Régimen de vida restringido o régimen cerrado.	160
	3.2.1. Horas de patio.	163
	3.2.2. Actividades programadas.	163
	3.2.3. Ropas y pertenencias.	164
	3.2.4. Cacheos y recuentos.	164
	3.2.5. Chapas metálicas en las ventanas.	165
	3.2.6. Paquete.	165
	3.2.7. Comidas.	165
	3.2.8. Barbería y servicio de peluquería.	165
	3.2.9. Útiles de limpieza.	166
4.	COMUNICACIONES CON EL EXTERIOR.	167
4.1.	Conceptos generales.	167
	4.1.1. Personas con las que vas a poder comunicar.	167
	4.1.2. Intervención, limitación o suspensión de comunicaciones.	168
4.2.	Comunicaciones orales.	170
4.3.	Comunicaciones especiales.	171
	4.3.1. Comunicación íntima.	171
	4.3.2. Comunicación familiar.	171
	4.3.3. Comunicación de convivencia.	172
4.4.	Comunicaciones escritas.	172
4.5.	Comunicaciones telefónicas.	173
4.6.	Comunicaciones intercarcelarias.	174
4.7.	Comunicaciones con el abogado.	176
5.	FUNCIONARIOS Y ÓRGANOS PENITENCIARIOS.	177
5.1.	Funcionarios.	177
5.2.	Otros funcionarios.	179
	5.2.1. Jurista-criminólogo.	179
	5.2.2. Psicólogo, pedagogo, psiquiatra, sociólogo.	179
	5.2.3. Educador.	179
	5.2.4. Asistente social.	179
	5.2.5. Maestro.	179
	5.2.6. Equipo médico.	180
	5.2.7. Demandadero.	180
	5.2.8. Varios.	180
5.3.	Órganos de la prisión.	181
	5.3.1. Director.	181
	5.3.2. Consejo de Dirección.	181
	5.3.3. Junta de Tratamiento.	182
	5.3.4. Comisión Disciplinaria.	182
	5.3.5. Junta económico-administrativo.	183
5.4.	Dirección General de Instituciones Penitenciarias.	183

6.	INSTANCIAS, QUEJAS, RECURSOS.	185
6.1.	Instancias.	185
6.2.	Quejas, recursos.	187
6.3.	Los autos del JVP.	189
6.4.	Recurso de reforma y subsidiario de apelación. Abogados y procuradores de oficio, beneficio de justicia gratuita.	191
6.5.	Recurso de queja.	195
6.6.	Recurso de aclaración.	195
6.7.	Recurso de amparo constitucional.	195
6.8.	Intangibilidad de las resoluciones judiciales firmes.	198
7.	RÉGIMEN DISCIPLINARIO.	199
7.1.	Normativa.	199
7.2.	Introducción al régimen disciplinario.	199
7.3.	Infracciones.	201
7.4.	Procedimiento.	203
7.5.	Sanciones.	207
	7.5.1. Sanciones de aislamiento.	208
	7.5.2. Privación de comunicaciones orales.	209
	7.5.3. Privación de paseos.	209
7.6.	Conceptos varios a tener en cuenta.	210
	7.6.1. Cumplimiento inmediato de sanciones.	210
	7.6.2. Medidas cautelares.	210
	7.6.3. Prescripción.	211
	7.6.4. Cancelación.	211
	7.6.5. Repetición de sanción. Reincidencia.	212
	7.6.6. Concurso de infracciones.	212
	7.6.7. Infracción continuada.	213
	7.6.8. Abono del tiempo de sanciones cumplidas indebidamente.	213
	7.6.9. Revocación.	214
	7.6.10. Reducción.	214
	7.6.11. Cumplimiento de sanciones al reingresar en prisión.	214
	7.6.12. Suspensión de sanciones.	214
8.	DENUNCIAS.	215
8.1.	Denuncias ante el juzgado de instrucción.	215
8.2.	Denuncias ante la DGIP.	217
9.	CONDUCCIONES.	219
10.	BENEFICIOS PENITENCIARIOS.	223
10.1.	Redenciones.	223
10.2.	Créditos.	225

ÍNDICE DE INSTANCIAS, QUEJAS, RECURSOS,...

I.- SOLICITUDES EN GENERAL	229
• Quejas, Recursos y Denuncias	229
2.- ARGUMENTACIONES GENERALES	233
2.1. Principios fundamentales. Jurisprudencia del Tribunal Constitucional.	233
2.1.1. Seguridad Jurídica.	234
2.1.2. Legalidad. Restricción de derechos.	234
2.1.3. Tutela Judicial efectiva. Derechos adquiridos, intangibilidad de las resoluciones firmes, excepción de cosa juzgada.	235
2.1.4. Tutela Judicial efectiva. Proceso sin dilaciones indebidas.	236
2.1.5. Tutela Judicial efectiva. Falta de motivación o motivación genérica.	237
2.1.6. Igualdad.	238
2.2. Relación de sujeción especial.	240
2.3. Competencias JVP	241
2.4. Resoluciones de los JVP y Audiencias Provinciales.	241
2.5. Filosofía del Reglamento Penitenciario en relación al régimen de comunicaciones, Exposición de motivos.	242
3.- MODELOS. HIPÓTESIS.	245
3.1. Modelos de queja y recurso.	245
3.1.1. Modelo de queja.	247
3.1.2. Modelo de recurso.	248
3.1.3. Escrito solicitando abogado de confianza y Procurador de oficio con Justicia gratuita.	249
3.1.4. Escrito solicitando se notifiquen datos sobre abogado y procurador de oficio designados.	250
3.2. Modelos sobre temas relacionados con el régimen de vida. ...	251
3.2.1. Queja solicitando estar presente durante el cacheo de la celda.	251
3.2.2. Queja por desnudo integral en cacheo personal.	253
3.2.3. Queja solicitando disponer de celda individual.	256
3.2.4. Queja solicitando se termine con los continuos cambios de celda. ..	258

3.2.5.	Queja solicitando no se exija estar en posición de pie en los recuentos en celda.	260
3.2.6.	Queja solicitando se respete el derecho a la libertad de expresión. . .	262
3.2.7.	Queja solicitando no se autorice la retención de publicaciones.	265
3.2.8.	Queja solicitando se autorice consulta con médico extrapenitenciario	267
3.2.9.	Queja solicitando se haga entrega de copia de informes médicos. . . .	269
3.2.10.	Queja solicitando se reconozca el derecho a disponer de ordenador.	271
3.2.11.	Queja solicitando se reconozca el derecho a disponer de ordenador en la celda.	273
3.2.12.	Queja solicitando poder acudir a actividades ampliando el horario de patio.	276
3.2.13.	Queja solicitando se retire chapa metálica de la ventana.	279
3.3.	Modelos sobre comunicaciones.	281
3.3.1.	Queja solicitando se levante la intervención de comunicaciones. . . .	281
3.3.2.	Queja solicitando se levante la limitación de comunicaciones escritas.	283
3.3.3.	Queja solicitando se tenga por acreditada una nueva relación sentimental comenzada en la cárcel.	285
3.3.4.	Queja solicitando se reconozca el derecho a comunicaciones intercarcelarias.	288
3.3.5.	Queja solicitando mínimo de dos llamadas telefónicas a la semana. . .	291
3.3.6.	Queja solicitando máximo de 5 llamadas telefónicas a la semana. . . .	293
3.3.7.	Queja solicitando poder hablar en euskera en las llamadas telefónicas.	295
3.3.8.	Queja solicitando hacer las comunicaciones en horario de fin de semana.	298
3.3.9.	Queja solicitando autorización de visita con amig@ expres@.	300
3.3.10.	Queja solicitando se ponga límite al tiempo para contestar las solicitudes de visitas con amigos.	302
3.3.11.	Queja solicitando se ponga límite al tiempo para entrega de correspondencia.	304
3.3.12.	Queja solicitando comunicación especial con amigos o allegados. . . .	306
3.3.13.	Queja solicitando comunicación especial de convivencia sin hijos. . . .	308
3.3.14.	Queja solicitando comunicación especial de convivencia mensual. . . .	311
3.3.15.	Queja solicitando comunicación especial de convivencia con hijos mayores de 10 años.	313

3.4. Modelos sobre régimen disciplinario.	316
3.4.1. Pliego de descargos.	316
3.4.2. Recurso de Alzada/Reforma. (no asesoramiento jurídico)	317
3.4.3. Queja solicitando el cumplimiento de sanción en celda/ o cumplimiento de sanción en condiciones semejantes	320
3.4.4. Queja sobre cumplimiento de privación de paseos en régimen de aislamiento;Acudir a actividades en privación de paseos.	322
3.4.5. Queja sobre derecho a comunicaciones especiales cumpliendo sanción de aislamiento.	324
3.4.6. Sanción continuada, abono de los días indebidamente cumplidos.	327

LABURDURAK / ABREVIATURAS

- AN.-** Audiencia Nacional.
- AP.-**Audiencia Provincial.
- AAPP.-** Audiencias Provinciales.
- ART.-** Artículo.
- CC.-**Código Civil.
- CE.-** Constitución Española.
- CP.-** Código Penal.
- DGIP.-** Dirección General de Instituciones Penitenciarias.
- FIES.-** Fichero de Internos de Especial Seguimiento.
- FSE.** Fuerzas de Seguridad del Estado.
- JVP.-** Juzgado de Vigilancia Penitenciaria.
- LECr.-** Ley de Enjuiciamiento Criminal.
- LRJAP.-** Ley de Régimen Jurídico y de las Administraciones Públicas.
- LOGP.-** Ley Orgánica General Penitenciaria.
- LOPJ.-** Ley Orgánica del Poder Judicial.
- LOTG.-** Ley Orgánica del Tribunal Constitucional.
- ONG.-** Organización No Gubernamental.
- RP.-** Reglamento Penitenciario.
- RSP.-** Reglamento de Servicios y Prisiones.
- STC.-** Sentencia del Tribunal Constitucional.
- SSTC.-** Sentencias del Tribunal Constitucional.
- TC.-** Tribunal Constitucional.
- TS.-** Tribunal Supremo.



EUSKARAZKO BERTSIOA

SARRERA

Ohartxo hauek irakurtzen ari bazara seguruenik espetxean zaude. Preso prebentiboa edo zigortua zara, zuzenbide-adituek deritzoten **“relación de sujeción especial”** delakoaren menpe.

Prebentiboa bazara, epaitegi batetik pasa zara, epaileak zure espetxeratzea agindu izan du eta hortxe zaude, epaiketaren zai edo behin behineko askatasunean jarriko zaitzatenaren zai. Baina jada mundu berri eta berezi batetan zaude, bere arau propioak dituen mundu batetan hain zuzen ere. Batzutan ezintasuna nabarmenduko duzu, den-dena zeharo araututa dagoenaren inpresioa, zuk deus ere egiteko aukerarik gabe bazeunde bezala sentituko zara. Baina ez da horrela. Preso zaude, askatasunik ez duzu baina ez dituzu beste eskubide batzuk galdu. Hau da **“relación de sujeción especial”** deritzoten hori. Mundu honetako alde batetan zu zaude, eta bestaldean espetxea dago, administrazioa, bere funtzionariak eta arauekin. Ez zara erabat libre, badaude egon errespetaraziko dizkizuten arauak, eta maiz arau horiek onartzea baino ez duzu izango. Baina eskubide batzuk badituzu, eta administrazioak, nahiz maiz nahi izanen ez duen, errespetatu beharko ditu.

Ohar hauen asmoa jakin dezazula da, ezagut dezazula. Makina bat aldiz **“Ez”** esanen dizute, baina legeak onartzen dizkizun eskubideak tinkotasunez defendatu behar dituzu. Hala ere, egia da hitz egitea bera ezinezkoa den hainbat une gogorretan egongo zarela. Kanean gertatzen da hau ere, esate baterako adierazpen askatasuna aldarrikatzen ari garenean poliziaren kargaren erdian. Une horretan ezin da deus ere egin. Indarkeria nagusi egiten den une horietan, papera erabil ezazu. Ez da konponbide magikoa eta, gainera, preso politikoa izateak berak batzutan gauzak zailagoak egingen ditu. Baina gaiari ongi helduz gero konturatuko zara **“Haatik”** jarrera hori zein zaurgarri, zein ahula den. Beti ez duzu irabaziko. Hainbat idazkik edo errekurtsok ez du bilatzen dugun emaitza emanen. Baina beste askok bai. Gai hauetan irmotasunez lan egitea, azkenean, emankorra da.

Espetxean aspalditik bazaude ere, ohartxo hauek irakurtzeak ez dizu kalterik ekarriko, lagungarria izanen zaizu, batez ere azken aldaketak nolakoak izan diren jakiteko –JVPek gaur egun burutzen dituzten interpretazioak zeintzuk diren jakiteko, alegia-. Eta, seguruenik, zerbait berri ikasiko duzu ere.

Gauza bat. Espetxeko liburutegian LOGP eta RP delakoaren kopiak badaude, eta zure esku daude. Baina LOGP zein RPren ale bat izatea ongi etorriko zaizu, batez ere espetxean denbora luzetxo eman beharko baduzu.

Aholku bat. Ohi zaitetz paperok ongi gordetzen. Aurkeztuko dituzun idazki guztien kopiak eta aurkeztu izatearen egiaztagiria gorde itzazu. Izugarri garrantzitsuak dira. Ez duzu den-dena ziegan gorde behar. Kanpoan gorde diezazuten familiari edo baten bati ematen ahal diozu daukazun guztia. Baina une bakoitzean eskuartean darabilzunari dagozkion kopiak eta abar zuk zeuk gorde itzazu.

Eta beste aholku bat. Liburu honek gutxienekoa ezagut dezazun lagunduko dizu, gutxi gora beherako ideia bat izan dezazun, galduta egon ez zaitez. Baina, jakina, liburu honetan ez duzu aurkituko salaketen kontu honetan beharrezkoa izanen duzun guztia. Beraz, gai bat korapilatsua izan daitekeela somatzerakoan, jar zaitetz zure abokatuekin harremanetan. Garaiz egindako kontsulta batek –telefonoz, gutunez- alferrikako lan eskerga edo ondorio larriak ekarriko litzuketen petoak ekiditen ahal ditu.

I. I. ESPETXE-ARAUDIAREN “EXPOSICIÓN DE MOTIVOS”.

Espetxe-Araudia (RP) “Ley orgánica General Penitenciaria” (LOGP) delakoaren garapena da. Lege hau 1979.ko irailaren 26an sartu zen indarrean. LOGP RPren gaineratik dago, eta bien arteko talka bat balego LOGPren mamia izanen litzateke nagusituko litzatekeena. Baina RP oso garrantzitsua da, berak arautzen baitu detaile eta xehetasunez nolakoa behar duen izan administrazioaren jokabideak. LOGPk, ordea, ideia nagusiak ezartzen ditu, ez besterik.

RP, beraz, LOGPren zehaztapena dugu. Errege-Dekretu baten bitartez izan zen onartua, 1996.ko otsailaren 9an, eta urte bereko maiatzaren 25ean sartu zen indarrean. Ordurarte beste RP bat zegoen indarrean, 1981.ko maiatzaren 8koa, eta aldaketa ematerakoan azken honen mamia baliogabetu zen.

Aldaketaren arrazoi nagusia oso argia izan zen. 1981.ko RP bizirik egon zen bitartean suertatu ziren gizarte, lege zein jurisprudentzia aldaketak aztertzea, eta espetxeetako funtzionamoldea arautzen duten irizpideak eta legediak, aldaketa horiek kontuan harturik, egokitzea, gaurkoratzea.

Aldaketa hauek eta beharrian berri hauek, eta eurek dakarten filosofia berria, araudi berri honen **“exposición de motivos”** delakoan agertzen zaizkigu. “Exposición de motivos” hau RPren hasieran agertzen den testu bat da, artikuluez osaturik dagoen zatian sartu baino lehenago. Testu hau irakurtzea interesgarria da, funtsezko filosofia oso argi agertzen baita.

Esate baterako, hona hemen bere bigarren atala, RP berriaren berritasun behinenak aztertzen dituelarik:

“a) Extender el principio constitucional de protección a la familia al ámbito penitenciario, para paliar en lo posible la desestructuración de los grupos familiares que tengan varios miembros en prisión.

b) Apertura de las prisiones a la sociedad, fortaleciendo los vínculos entre delinquentes y sus familias y la comunidad, en línea con las conclusiones de las Naciones Unidas en su reunión de Tokio de diciembre de 1990.

c) Redefinición del régimen cerrado, cuyo destino se efectúa mediante resolución motivada fundada en causas objetivas.

En este régimen de vida se realizan actividades programadas para atender las necesidades de tratamiento e incentivar su adaptación al régimen ordinario, y sus limitaciones regimentales son menos severas que las fijadas para el régimen de cumplimiento de la sanción de aislamiento en celda, por entenderse que el régimen cerrado no tiene naturaleza sancionadora.

Destaca la nueva regulación de materias que afectan al derecho a la intimidad de los reclusos como la recepción de la Doctrina del Tribunal Constitucional sobre comunicaciones con los abogados defensores y sobre la forma de realizar los cacheos personales.”

Gogora ezazu “exposición de motivos” delako honek RP berriaren funtsezko arrazoiak zeintzuk diren azaltzen edo adierazten duela. Hemen ez daude eskubide zehatzak, ez daude artikuluak, baina bere mamia oso erabilgarria izan daiteke, gure eskubideak argudiatzerakoan gerta litekeen zerbait saihesteko, alegia, benetako filosofia honen aurkako artikuluen interpretazio maltzurra administrazioak egin dezala saihesteko.

I.2. HIZKUNTZA KONTUAK DIRELA ETA.

Begien aurrean duzun orrialdea euskaraz duzu idatzirik. Izan ere, testu osoa –eredu zehatzen atala ezik- ele biz egitea printzipiozko gauza da izan dugu bigarren argitalpen hau atera orduko. Eta, ukatzea alperrikakoa litzateke, emaitza ez da inolaz ere beharko lukeena.

Ez da erraza izan. Itzultzaile –jatorrizko testua gaztela-erdaraz baitzegoen-gogotsu baina ofiziorik gabeak, eta testu tekniko eta korapilatsua. Gainera testua ulerterraza nahi izan da burutu, izan ere liburu honen beharra izanen duten lagunak ez baitira Zuzenbidean iaioak. Eta liburu honek zerbait izan behar badu batez ere praktikoa behar du izan. Baldintzapen horiekin guztiekin nekez aterako zitzaigun gauza txukun bat.

Hala ere, euskarazko bertsioa erabilgarri suertatu delakoan gaude. Arazo nagusi pare bat izan dugu, eta horri buruzko pare bat aipamen nahi ditugu orain

egin. Laburdura guztiak erdara hutsez kausituko dituzu, euskarazko bertsio hone-
tan ere. Izan ere erdarazko laburdura horiek identifikagarriak dira, eta bakoitzaren
atzetik zer dagoen berehala jakinen duzu –besteak beste liburuaren hasieran
horien zerrenda baitago-. Euskarazko laburdurak erabiltzea bazegoen, baina
horien erabilera baztertu dugu, praktikotasuna zein sinpletasunaren alde egin
nahian. Azken orduko erabakia izan da hau, seguruenik laburdurak eta izen tekni-
ko guztiak ederki euskaratzen saiatu diren –eta lortu duten- itzultzaile lagun bat-
zuek kolokan jarriko duten erabakia izan ere.

Horrekin batera, epaitegi, lege zein organoen izenak, batzutan, erdaraz
agertuko zaizkizu ere. Izan ere, hitz teknikoek itzulpenaren kontua korapilatsua
izan zaigu, *joan-etorriko bidai*a baita liburua erabiltzerakoan egin behar dena. Erda-
raz daude epaitegiak, legeak eta organoak izendaturik, guk euskaratzen ahal ditu-
gu –eta inoiz hala egin da-, baina preso dagoen lagunak erdaraz erabili beharko
ditu bere egunerokoan eta, beraz, erdarazko formara jo beharko du. Eta azkene-
an liburua agertzen zaizun bezala uztea deliberatu da.

Bestaldetik, erdarazko hitz batzuk esamolde ezberdinez agertzen dira eus-
karaz. “Régimen de vida” *bizitza-erregimena* edo *bizi-erregimena* edo *bizimodua*
agertuko zaizu, “recurso” *errekurtso* zein *helegite* gisan agertuko da, “condenado”
kondenatua, *zigortua* edo *penatua* izanen da, “falta” *hutsegite* edo *arau-hauste* izan-
nen zaizu, ... Alderantziz ere gertatzen da inoiz, eta *zigortua* “condenado” edo
“sancionado” ote den testuinguruaren arabera asmatuko duzu. Zalantzarik gabe,
itzultzaile batzuek eskua sartu izanaren seinale dugu anabasa txiki hau, hala nola
azken ikutu txukun bat eman ez izanaren isla.

Bukatzeko, oker mekanografikoak ez dira faltako. Izan ere, idazkariak ere ez
gara, ...

Aurreko guztiak gora behera testua erabilgarria izanen zaizulakoan, hel die-
zaiogun gaiari.

2

ESPETXE MOTAK BIZI ERREGIMENAK

2.1. OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTU.

Beno, hemen zaude, presondegian. Lehenago esan bezala, hemendik aitzina zure bizitza “**relación de sujeción especial**” delako horren menpe izanen da. Eskubide batzuk badituzu, baina askatasun-tartea kalean zenuena baino txikiagoa da. Batetik, ezin duzulako nahi izanen zenituzkeen toki guztietara joan. Bestetik, espetxean egoteagatik beragatik obligazio batzuk badituzulako. Espetxe batetan dagoen bizitza **arauturik** dago, kontrolpean, batzuetan xehetasun zentzugabeetaraino iritsiz. Bete behar diren arauak badaude, guztiontzako derrigorrezkoak diren ordutegi batzuk badaude, presoak lanpeturik egon daitezen aktibitate batzuk antolatzen dira, segurtasunaren irizpidea presente dago une orotan eta horren ondorioz preso dauden pertsonen eskubideak murriztu egiten dira, badaude egin daitezkeen gauzak eta debekaturik dauden gauzak, gauza batzuk gordetzen ahal dira eta beste batzuk debekaturik daude, kalean dagoen jendearekin komunikatzeko aukerak badaude baina komunikazio horiek ez dira bakoitzak nahi duen moduan burutzen, ...

Bi hitzetan, espetxean sartu eta **bizi-erregimen** bat topatuko duzu, gauza batzuk egitea baimentzen duten eta beste batzuk debekatzen dituzten arauak. Eta lehenik eta behin jakin behar duzuna zera da, **giltzaperaturik dauden pertsona guztiek ez dutela bizi-erregimen berdina**, ez dituztela bizi-baldintza berdinak edo eskubide berdinak. Zergatik?

Has gaitezen funtsezkoa den ideia batekin: **banan banako tratamendua, tratamendu egokitua**. Pertsonak espetxean giltzaperatuta izatearen azpian bada oinarrizkoa den ideia bat. Delitu bat burutu duen, legea hautsi duen pertso-

na nolabaiteko *gaixo* bat da, *gizarte-gaixoa*, arrazoi ezberdinak direla medio gizartean dauden arauak errespetatu behar direla ulertu ez duen gaixoa, alegia. Eta duen *gaixotasun* hori sendatzeko, gizartea ulertzeko modu oker hori sendatzeko **tratamendu** bat aplikatzen zaio. Izan ere, teoriiaz jendea ez da presondegira sartzen *egindakoa ordain dezan* edo *ustel dadin*, baizik eta bere okerrak zuzen ditzan. Horregatik dira **birgizarteratzea** edo **berreziketa** espetxean egotearen helburu behinenak (CE 25.2. art.).

Eta pertsona guztiak berdinak ez direnez, gaixo guztiak gaixotasun mota berdina ez dutenez, administrazioak egin behar duena zera da, bakoitzari *bere neurriko tratamendua* eman, bere ezaugarrien arabera tratamendua. Eta horregatik esaten da tratamendua **banan banakoa** dela, bereizia, egokitua.

Pertsonak oso ezberdinak direla kontuan hartzeak beste ondorio bat ekartzen du, **preso dauden pertsonen arteko bereizketa edo banaketa materiala**. Horrela, beraz, lehengo ideia funtsezkoa hauxe da, **epaitu gabe dauden presoak** eta **kondenaturik dauden presoak** ez direla nahastu edo elkartu behar (LOGP 16. eta RP 99. art.). Espetxean sartzera *preso prebentiboa* zara, epaitu gabea, eta egoera hori bakarrik bukatuko da izan ditzakezun epaiketa guzti-guztiak bukatu izanen dituzunean eta epai guztiak aldaezinak izanen direnean (hots, helegite guztiak agorturik izanen direnean). Orduantxe **preso kondenatua** izanen zara.

Beste oinarrizko irizpidea da ez direla **sexu ezberdinetako presoak** elkartu behar (LOGP 16. art.), eta horregatik ditugu emakumeentzako espetxeak edo departamenduak, eta gizonentzako espetxeak edo departamenduak.

Hirugarren irizpidea adinarekin dago loturik, eta ideia da ez direla **gazteak** helduekin nahasi behar. Gazteak (RP 173.I. art) 21 urtetik beherako pertsonak -salbuespen gisan, 25 urtetik beherakoak- lirarteke. Izan ere, gazteak dauden departamentuentzako bizi-baldintza zertxobait ezberdinak azkartzen dira.

Aurrekoarekin loturik, eta berriro ere pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu behar izatearen ideian oinarriturik, oso pertsona bereziak diren batzuk gordetzeko zentro edo departamenduak aurreikusten dituzte LOGPk zein RPk. Hala bada, **amak** direnentzako unitateak sortzen dira, bertan hiru urte arteko umeak euren amekin bizi direlarik (RP 178-181. art.). Era berean, arazo edo trastorno psikologikoak direla medio espetxe arrunt batetan egoteko moduan ez dauden pertsonak **zentro psikiatrikoetan** gorde egiten dituzte (RP 183-191. art.). Eta orain dela denbora gutxi arte **espetxe-ospitaleak** ere bazeuden, baina gaur egun preso dagoen pertsona bat ospitaleratu behar badute ospitale arrunt batetara eramaten dute, polizia kontrolpean duen gela arrunt batetan edo **espetxe-unitateak** direlakoetan gordez. Azken hauek ospitale baten solairu edo hegal oso bat izaten dira, segurtasun neurri bereziak izaten dituzte eta propio presoak ospitaleratzeko daude prestaturik.

Beraz, presoen arteko bereizketa edo banaketa oinarrizko kontzeptua da, ... eta seguruenik honez gero konturatua zara **oinarrizkoa omen den irizpide**

horrek ez duela zure kasuan funtzionatzen. Alde batetik, beste irizpide batzuk nagusitzen direlako: segurtasun irizpideak badaude –espetxeak ederki kontrolaturik nahi zaituzte-, banaketa geografikozko irizpideak badaude –administrazioak sakabanaturik nahi zaituzte, barreiatu-rik-. Bestaldetik, azken urte hauetan **zentro balioanitzak** ugaltzen ari direlako (RP 12. art.). Garai batetan probintzia bakoitzean preso mota bakoitzarentzat espetxe bat egon zedin saiatzzen ziren. Egun, ordea, espetxe handiak eraikitzen dira, eta espetxe bakar horretan departamendu ezberdinak daude: gazteon departamendua, kondenatuen departamenduak, prebentiboen departamenduak, emakumeen departamenduak. Presoen kopuru zehatza duten departamendu horiek **moduluak** dira.

Beraz, espetxe berean emakumeak, gazteak, prebentiboak eta kondenatuak topatuko ditugu, bakoitza bere moduluan. Eta oso litekeen gauza da presoak banatzeko irizpide horiek –sexu ezberdinetako presoak banandurik mantentzea-rena ezik- zuen kasuan ez funtzionatzeak. Litekeen gauza da zu kondenaturik egon eta, hala ere, prebentiboen artean egotea, edo alderantziz, edo litekeen gauza da 40 urte izan eta teoriari gazteentzako den modulu batetan egotea.

Beno, **ez zaitetzte honekin gehiegi lardaska.** Izan ere, modulu batzuk eta bestetzuen arteko diferentziak oso txikiak izaten dira eta, beraz, ez du mereziko batetik beste batetara pasatzeko borrokatzeak. Baina irizpide hauek existitzen dira, eta hori ez dugu ahantzi behar, ezen eta igoal interesgarria izanen baitzaigu dagokigun moduluan egotea –nahiz eta bizi-baldintzak berdintsuak izan. Esate baterako, *dagokigun modulu* horretan gure lagunak badaude, ...-. Izan ere, batzutan espetxeak ez du irizpidea errespetatuko, elkarrekin egon ez zaitetzten eta, ordea, beste batzuetan irizpide hori errespetatu behar duela argudiatuko du, ... elkarrekin egon ez zaitetzten.

2.2. BESTE ZENBAIT OINARRIZKO KONTZEPTU.

Tira, lehenago aipatu ditugun irizpide horiek –preso ezberdinak bereizteko irizpideak- ondorio batzuk ekartzen dituzte, eta horren arabera modulu edo departamendu bakoitzean neurri edo azpiegitura berezi batzuk ezarriko dira: emakumeen departamenduetan ginekologoaren sorospena bermatzen da, amen departamenduetan haur-parkeak eraikitzen dira, eta abar. Baina, aurrekoarekin batera, preso dagoen pertsona bakoitzari aplikatuko zaion bizitza-erregimena beste parametro batzuen arabera ere finkatuko da.

Izan ere, prebentiboak diren preso guztiek ez dituzte bizi-baldintza berdintsuak gozatzen, ezta kondenatu guztiek erregimen bera, ezta gazte guztiek egoera bertsua. Izan ere, hemen berragertzen da banan banako tratamenduaren ideia hura. Aurreko bereizketak edo banaketek gain, **espetxeak pertsona guztiak aztertzen ditu, banan banan**, eta bakoitzari, bere ezaugarrien arabera, bizitza-erregimen gogorragoa edo bigunagoa aplikatuko dio, eskubide gehiago edo gutxiagoz, obligazio gutxiago edo gehiagoz.

Beraz, espetxeak preso dagoen pertsona begiratu behar du, bere jokabideak aztertzen ditu, eta ondorio batzuetara iristen da: pertsona *otzana* edo *oldar-tzailea* ote den, *arriskutsua* den ala ez den, espetxeko arauetara ongi edo gaizki makurtzen ote den, *lotsagabetua* den ala ez den, ... eta horren arabera finkatuko zaizkio bizi-baldintzak.

Baina, jakina, ohar garrantzitsu bat: **teoria azaltzen ari gara, eta praktikan gauzak ez dira inolaz ere horrela**. Pertsona bati bizi-baldintzak esleitzeko irizpideak ez dira inondik inora pertsona horren aztertzetik etortzen, askoz arbitrarioagoak izaten dira. Esate baterako, zuen kasuan irizpide politikoak izaten dira nagusi eta, ondorioz, maiz gertatuko da jarrera zeharo berdinak dituzten bi lagunei bizi-baldintza zeharo ezberdinak ezarriko dizkietela. Edo, alderantziz, bakoitza nolakoa den kontuan hartzeke, guzti-guztiori aplikatuko zaizkizuen neurriak badaude. Esate baterako, sinpleki *talde armatu bateko partaide* izan zaitezke-elako, eta zure ezaugarri zehatzak kontuan hartu gabe, arriskutsua izan zaitezke-ela ondorioztatuko dute eta kalearekiko komunikazioak interbenituko dizkizute –gero ikusiko dugu zer den hau-. Edo, teoriaraz arriskutsua zarelako, preso sozialek dituzten baino patio ordu gutxiago izanen dituzu. Beraz, banan banakoa edo ego- kitua izan beharko litzatekeen tratamenduarena oso kontu erlatiboa da, teoria hutsa.

Beste oharpen bat. Bizi baldintzak ezberdinak izatearen beste faktore edo arrazoi bat **espetxeen arteko ezberdintasunak** dira. Espetxe guztiak ez dira berdinak, ez dute denek azpiegitura berdina, dauden zuzendaritza-taldeak ezber- dinak dira ere, bakoitzak bere temakeriak ditu, irizpideen gauzatze zehatza ez da leku guztietan berdina. Honen ondorioz, egia da espetxe batzuetan eskubideak hobeki gozitzen ahal izaten direla. Eta honen aurka ezin daiteke deus ere egin. Eta epaileari edo besteren bati zerbait eskatzekotan ezin zaio, argudio gisan, “*bai, baina beste espetxe horretan horrelako aukerak dituzte*” esan, izan ere zerbait eska- tzeko oinarria ez baita beste espetxeetan zeintzuk aukera dauden baizik eta lege- ak zer onartzen duen.

2.3. ESPETXE-ERREGIMENAK: ARRUNTA (OHIKOA), ITXIA, IREKIA. PRESO PREBENTIBOAK ETA PRESO ZIGORTUAK.

Beraz, gauza da bizi baldintza zehatz batzuk jarriko dizkizutela, arrazoi ezberdinak direla medio, eta oso inportantea da bizi baldintza horiek zeintzuk diren jakin dezazula. Horrela, zure eskubideak ongi ezagutuz, jakinen duzu une oro zer egin behar duzun. Horretaz ari gara **bizi-baldintzak** aipatzen ditugune- an: kanpoarekiko harremanak, patiora ateratzeko ordutegia, antolatzen diren akti- bitateak, ... Beno, ba, hasteko, **LOGPk hiru erregimen edo bizimodu ezber- dinak antolatu ditu**, pertsonen ezaugarrien edo jitearen arabera, eta pertsona hori gaztea edo heldua, prebentiboa edo zigortua izateak axola ez diolarik.

- **Erregimen arrunta, ohiko erregimena.** Eskubideen murrizketa berezirik ez duten preso guztientzako erregimen orokorra da hau, preso *normalentzako* erregimena, beraz. Erregimen honetan egonen zara epaitu gabeko preso arrunta bazara, edo bigarren graduan sailkaturik dagoen preso zigortua bazara (ikus liburu honetako 3.1. atala).

- **Erregimen itxia.** Erregimen honen oinarria erregimen arrunta da, baina eskubide gutxiago dago, murrizketak gehiago dira eta honen emaitza zehatzia honakoa da: “*una limitación de las actividades en común y una mayor vigilancia y control sobre los internos*”. Erregimen honetan egonen zara LOGPren 10. artikulua aplikatu dioten epaitu gabeko preso bazara edo lehengo graduan sailkaturik dagoen preso zigortua bazara (ikus liburu honetako 3.2. atala).

- **Erregimen irekia.** Zainpeko askatasunezko egoera da, eta bakarrik aplikatzen zaie hirugarren graduan sailkaturik dauden preso zigortuei. Ez gara liburu honetaz erregimen honetaz arituko, izan ere DGIPk ez baitie euskal preso politikoei egoera hau aplikatzen. Funtsean, bere ezaugarri nagusia da presoak egunero kaleratzen direla, lanera, astegunetan lo egitera espetxean itzultzen direlarik eta asteburuan lo ere kalean egiten dutelarik.

Beraz, prebentibo *normal* bat bazara edo bigarren graduan sailkaturik dagoen preso zigortua bazara **bizi baldintza arruntak, orokorrak** izanen dituzu eta, aldiz, 10. artikulua aplikatua izan zaion prebentiboa edo lehengo graduan sailkaturik dagoen preso kondenatua bazara **bizi baldintza murriztuak** izanen dituzu.

Baina, zer da 10. artikulua hau? Nola eta zeren arabera sailkatuko zaituzte lehengo edo bigarren graduan? Zertan oinarritzen da espetxea pertsona bati erregimen arrunta edo erregimen gogortuago bat aplikatu behar diola ondorioztatzeko? Gogora ezazu *tratamendu egokituaren* ideia hori. Teoriaz, pertsona bakoitza aztertu eta bere ezaugarriak zeintzuk diren ikusi eta gero iritsi beharko litzateke ondorio hauetara. Horrela al da benetan?

Has gaitezen **preso prebentiboekin** zer gertatzen den ikusten.

Espetxera sartzerakoan espetxeak ez du zuri buruzko inongo informaziorik. Bakar bakarrik zu espetxeratzeko epaileak agindu duen espetxeratze-ebazpena. Hasieran, geroxeago komentatuko dugun bezala, *tratamendu-taldeko* kideak saiatuko dira zurekin elkarriketatzen, nola pentsatzen duzun edo nolakoa zaren jakin nahian. Baina beste daturik ez dute. Ezin dezakete esan *arris-kutsua* zaren ala ez zaren, edo *oldarkorra* zaren ala ez zaren.

Eta aurrekoa ikusteko denborarik edo aukerarik izan ez dutenez, zera egin beharko zuten: **erregimen arrunta** dagoen modulu batetara eraman, bizi baldintzetan inongo murrizketa berezirik jarri gabe. Beraz, 10. artikulua gabeko prebentiboa izanen zinateke, prebentibo *huts* bat. Bizi baldintza hauek zeintzuk diren 3.1. atalean ikusiko dugu.

Baina logika horrek ez du maiz funtzionatzen, eta sinpleki *talde armatu batekiko* harremana izategatik frogatutzat emango dute arriskutsua zarela eta, besterik gabe, 10. artikulua aplikatuko dizute. Eta honen ondorioz bizi baldintzak murrizturik dauden modulu batetara eramanen zaituzte, **modulu itxi** batetara alegia. Edota gerta daiteke hasieran bizi baldintza arruntetan uztea, bizi-baldintza arruntak dauden modulu batetan, eta ondoren, eta auskalo zergatik, 10. artikulua aplikatzea eta modulu itxi batetara eramatea. Egoera horretan preso dagoen pertsona bakoitzak beste pertsonekin dituen harremanak murrizturik dauden bizimodua pairatuko duzu. Halaber aktibitateak murrizten dira, eta kontrol eta segurtasun neurriak zorrotzagoak izaten dira –miaketak, zenbaketak, ...- Bizimodu hau zertan datzan 3.2. atalean aztertuko dugu.

10. artikulua aplikatzeko erabakia **idatziz** hartzen da, eta **jakinaraziko zaizu**, bai zuri bai eta JVPri ere. Eta gero, artikulua honen aplikazioa **aldiro berraztertu** behar da. Hiru hilabete behin tratamendu-batzordeak zure egoera hori berraztertuko du, eta neurria mantenduko du -eta, hala bada, modulu itxian jarraituko duzu-, edo bertan behera utziko du neurria -eta, orduan, erregimen arruntera eramanen zaituzte-. Erabakia, baina, ez du zuzenean espetxeak berak hartzen, ezen eta erabakia mantentzeko zein aldatzeko azken hitza DGIPk baitu.

Bai lehengo erabakia bai eta ondoren, berrazterketa egokituko den bakoitzean, hartuko diren erabakiek eskubideak murrizten dituzte eta, beraz, **ongi oinarrituriko (“motivadas”) erabakiak izan behar dute**, eta JVPri eta zuri jakinarazi beharko zaizkizu, betiere. Era berean, artikulua horren aplikazioaren aurka zeintzuk errekurso dituzun jakinarazi beharko litzaizuke, bai eta zeintzuk epetan tartekatu beharrekoak diren errekurso horiek. Beraz, **idatziz jakinaraziko dizute, eta errekurri daitekeen zerbait dela jakin behar duzu. Zuk zeuk** erabaki beharko duzu errekurritu nahi duzun ala ez, errekurritzeak ekarriko dizkizun onurak aztertu eta gero. Baina gauza bat argi dago. 10. artikulua aplikatzen dizun erabakia zenbat eta zehazgabeagoa izan, zenbat eta arrazoi argi eta konbentzigarri gutxiago egon, orduan eta errazagoa izanen da ebazpen hori errekurritu eta errekurtsua arrakastatsua izatea.

10. artikulua honen aplikazioaren emaitza zehatzak, era berean, bi motatakoak izan daitezke, izan ere bi azpi-erregimen aurreikusten baitu legeak kasu honetarako. Lehena **RP 91.2.** artikuluan zehazten da (**modulu itxia** esaten zaio modalitate honi), eta bigarrena **RP 91.3.an** (eta beste honi **departamendu berezia** esaten zaio). Azken kasu honetan murrizketak are handiagoak dira, baina honi guztiari buruzkoa 3.2. atalean aztertuko dugu.

Ikusi dugu, beraz, zer gertatzen den prebentiboekin. **Azter dezagun orain, ordea, zein den preso kondenatuekin erabiltzen den sistema** edo prozedura.

Lehenago esana dugu ere: dituzun epaiketa **guztiak** zeharo itxita edo bukatuak egonen direnean bihurtuko zara **preso penatua, kondenatua**. Horretarako egon litezkeen errekurso guztiek (bai eta Epaitegi Gorenaren

–Tsren– aurrean aurkezten direnak ere) agorturik edo bukaturik egon behar dute.

Benoa, bada preso penatua bihurtu eta gero espetxeko tratamendu-batzordeak **sailkatu** beharko zaitu. Horretarako prozedura, teoriakoa, sinplea da. Lan hauetarako dauden profesionalak –psikologoa, kriminologoa, ...- saiatuko dira zu elkarrizketatzen, eta bi hilabeteko epean espetxeak zu sailkatzeko proposamena egin beharko dio DGIPi, lehengo graduan edo bigarrenen jar zaitzaten iradokiz. **Bigarren graduan** sailkatzen bazaituzte bizi baldintza arruntak ezarriko dizkizute. Aldiz, **lehengo graduan** sailkatzen bazaituzte bizi baldintzak murrizturik dituen erregimen batetan kokatuko zaituzte. 10. artikuluekin gertatzen den bezala, bi azpierrejimen daude kasu honetan ere, bi modalitate, eta bata **lehengo gradua RP.91.2** izanen da (*modulu itxi* batetan bukatuko duzularik), eta bestea **lehengo gradua RP 91.3.** izanen delarik (eta, ondorioz, *departamendu berezi* batetara eramane zaituztelarik). Sailkapenarekin batera, kondena bete dezazun espetxe bat, leku bat proposatuko dute, horretarako ezarriko dizuten bizimodua betetzen den espetxe bat bilatu beharko dutelarik.

Proposamena, beraz, espetxeak DGIPi egine dio, eta honek erabakia hartu beharko du, espetxeak egiten duen proposamena onartuz edo onartu gabe, eta espetxeari erabakitakoa jakinaraziko dio, era berean espetxeak zuri jakinaraziko dizularik zein gradu eman dizuten eta zein espetxetara eraman behar zaituzten. Batzutan ez duzu inolako aldaketarik nabarmenduko. Esate baterako, pasatzen bazara prebentibo arrunta izatetik bigarren graduan sailkatu dagoen kondenatua izatera, eta ez bazaituzte espetxez aldatzen, eta ez bazaituzte ezta moduluz aldatzen, ... Inkluso ziega berean gera zintezke. Baina, egia da, sailkatzeak bizi baldintzen hobera edo txarrera jotzea ekar lezake eta ekartzen du batzutan, espetxe-aldaketa eta guzti.

Sailkapenarena ere aldizkakotasunez **berraztertu behar** den kontu bat da, eta hartuko diren erabakiak ere jakinarazi beharko zaizkizu. Gutxienez, sei hilabete behin (RP 105.I. art.) birsailkatu beharko zaituzte, eta hiru dira eman daitezkeen aukerak: ordurarte egon zaren gradu berean uzteko proposamena egine du espetxeak (“mantenimiento de grado”), edo DGIPi ordurartekoa baino suabeagoa den erregimen batetan koka zaitzaten proposatuko dio (“progresión de grado” esaten zaio honi), edo ordurartekoa baino zurrunagoa den erregimena proposatuko da zuretzat (honi “regresión de grado” esaten zaiolarik).

Eta, bai, gogoratu. Teoriaz sailkatzeari dagozkion erabakiak guztiak pertsonaren azterketan oinarritu beharko liriteke, horretarako tratamendu-batzordeak –psikologoak, juristak, kriminologoa, ...- lantzen dituen txostenetan oinarritu ere. Baina, praktikan, **nagusi diren irizpideak batik bat politikoak dira**. Mekanikak berak salatzen du gauzak horrela direla, ezen eta azken erabakia, betiere, DGIPk hartzen baitu, eta DGIP delako hau Madrilen dago, presoarengandik urrun, eta ez du DGIPk presoaz ezagutzen. Izan ere, gauzak nola izaten diren adibide, pentsa ezazu pertsona bati erregimen itxia aplikatzeko arrazoi nahikoa dela talde armatu bateko pertaidea izate hutsa, ...

2.4. EZ OHIKO ERREGIMENAK.

Beraz, preso dagoen pertsona orok erregimen arruntean edo erregimen itxian egon beharko luke eta, horren arabera, erregimen horietariko bakoitzak dituen bizi baldintzak gozatuko lituzke. Hala ere, arau orokor honek salbuespenak baditu, eta horiek dira jarraian aztertuko ditugunak.

2.4.1. Erregimen-murrizketak: RP 75.1. artikulua.

Artikulu honen aplikazioa oso **eztabaidatua** izan eta izaten da. Izan ere, artikulu honetaz administrazioak egiten duen aplikazioak oso kritika zorrotzak jaso ditu. Eztabaida honetan muturreko posizio bat defendatzen dute batzuek: artikulu hau **errefuxiatu** deritzeten horiei **bakar-bakarrik** aplika dakiekeela. *Errefuxiatuak* euren bizi baldintzak murriztuak izan daitezten propio eskatzen duten presoak dira. Izan ere, beste presoengandik arriskuren bat etor dakiekek-lakoan, preso batzuek espetxeari bizi baldintzen murriztapena (patio ordu gutxiago, ...) eskatzen diote. Horiek dira errefuxiatuak. Eta asko eta asko dira ikuspuntu hau -75. artikulua kasu hauetarako dagoela pentsaturik- defendatzen duten zuzenbide-adituak. Baina administrazioak bestelako interpretazioa egiten du, eta artikulu honen aplikazioa presoaren borondatearen aurka egiten du ere.

Zehazki, hauxe da RP 75.1. artikulua honek dioena: *“Los detenidos, presos y penados no tendrán otras limitaciones regimentales que las exigidas por el aseguramiento de su persona y por la seguridad y el buen orden de los establecimientos, así como las que aconseje su tratamiento o las que provengan de su grado de clasificación”*.

Eta artikulu hau nola aplikatu behar den zehazteko administrazioak **zirkular** bat burutu du -laster ikusiko dugu zer diren zirkular hauek-. Bertan 75. artikulua honen interpretazioa espetxe guztietan berdintsua izan dadin irizpideak ematen dira. Zirkularren zenbakia **11/99** da, eta bertan adierazten den lehengo ideia honakoa da: artikulu hau **premiatzko** egoeretan aplikatzekoa dela, bere aplikazioa **berehalakoa** izanzen delarik, *“hasta tanto el procedimiento específico adecuado al caso se lleve a cabo, sin que la utilización del precepto deba de suponer la creación de un régimen penitenciario artificial impuesto por orden de la dirección”*.

Beraz, **salbuespeneko erregimena** izan beharko litzateke, behin behinekoa, **aldi baterakoa** bakarrik, *“y que debe de ser aplicado conforme a los principios de necesidad, subsidiariedad y oportunidad, y con un procedimiento que garantice el principio de seguridad jurídica, de forma que su adopción tenga el carácter de imprescindible”*, betiere aipaturiko **11/99** zirkularren arabera.

Erabakia zuzendariak hartu beharko du, eta bertan zehatz mehatz esan beharko du zuzendariak zeintzuk diren aplikatuko zaizkizun murriztapen horiek (patio ordu gutxiago izatea, aktibitateetara joateko traba gehiago, segurtasun neurrien areagotzea, ...). Erabaki honek, jakina, **arrazoitua** -“motivada”- behar du izan, eta egoera berezia zeintzuk arrazoik sortzen duten azaldu behar du zehaz-

ki. Erabakia JVPri jakinaraziko zaio, eta baita zuri ere. Jakina, errekurri daitekeen erabakia da.

Beraz, argi dago teoriaz bederen aldi batetarako erregimena dela, egoera edo gertaera korapilatsu baten ondorioz aplikatzen dena. Beraz, ezin daiteke izan erregimen itxiaren ordezkotzat, eta ezin daiteke egoera iraunkor bihurtu. Espe-
txeak uste badu erregimen-murrizketa hauek probokatu dituzten motiboek badi-
rautela, orduan zera egin beharko luke, zuzenean LOGP 10. artikulua ezarri, sail-
katuta bazaude “regresión de grado” delakoa aplikatu, edo beste espetxe bateta-
ra eraman. Neurri hauek bai, iraunkorrak izan daitezke, eta 75. artikulua honen
bezalako egoera batetan buka daitekeen ala ez espetxeak agudo erabaki beharko
du, gertakariak izan eta ondoren burutuko den lehengo tratamendu-batzordean
edo zuzendaritza-kontseiluan (edota, inkluso, beharrezkoa izatekotan, honetarako
ez ohiko bilkura bat propio burutuaz).

2.4.2. Malgutasun printzipioa: RP 100.2. artikulua.

Lehenago esan dugu helburuetariko bat pertsona bakoitzari aplikatuko
zaion tratamendua egokitua izatea dela. Horretarako malgutasunaz jokatu behar
denaren ideia oso onartua da eta, beraz, gradu ezberdinetako neurri ezberdinak
uztartzea gauza oso lagungarria izan daiteke. Beraz, graduetaz ari gara, preso
penatuetaz: artikulua hau ezin zaie prebentiboei aplikatu. Eta horrela dio testuak
hitzez hitz: *“No obstante, con el fin de hacer el sistema más flexible, el Equipo Técnico
podrá proponer a la Junta de Tratamiento que, respecto de cada penado, se adopte un
modelo de ejecución en el que puedan combinarse aspectos característicos de cada uno
de los mencionados grados, siempre y cuando dicha medida se fundamente en un pro-
grama específico de tratamiento que de otra manera no pueda ser ejecutado. Esta
medida excepcional necesitará de la ulterior aprobación del Juez de Vigilancia corres-
pondiente, sin perjuicio de su inmediata ejecutividad”*.

Badakigu zein den arau orokorra: kondenaturik dauden preso guztiek
lehengo edo bigarren edo hirugarren graduan egon behar dute (RP 100.1. art.).
Beno, bada 100. artikuluko bigarren paragrafoak zera ahalbidetzen du, **pertsona
bat sailkaturik dagoen graduan beste gradu bati dagozkion neurriak
uztartzea**. Esate baterako, preso bat lehengo graduan egon daiteke sailkaturik,
eta 100.2. hau aplikatzearen ondorioz bigarren graduentzako den modulu bateta-
ra eramanen dute, eta hantxe bigarren graduan dauden presoek begirako aktibi-
tateetan parte hartzen utziko zaio, ... nahiz eta presoak lehengo graduan jarrai-
tzen duen. Emaizta, beraz, nolabaiteko *lehengo gradu light* bat izanen litzateke.

Zertarako erabiltzen den artikulua hau? Presoak **proba moduan** izateko,
nola doazen jakiteko. Beraz, erregimen itxitik beste erregimen suabeago batetara
pasarazi baino lehenago, aldi batez egoera misto honetan mantenduko dute, eta
emaizta *positiboa* izatekotan lehengo gradutik bigarren gradura pasako dute
 (“progresión de grado” generitzen hura). Baina horretarako **preso bakoitzaren
ezaugarrien arabera egitarau zehatz eta berezia** onartu beharko litza-

teke, “Centro Directivo” delakoak onartu beharko duena eta JVPri jakinarazi behar zaiona. Egitarau horrek jarraipen bat eskatzen du, eta hiru hilabeteen behin berraztertu behar da egokia den ala ez den, emaitzarik ematen duen ala ez. Berraztertzerakoan hartuko den erabakiak idatzia behar du, eta JVPri zein preso-ari jakinaraziko zaie. Noski, errekurri daitekeen erabakia da hori.

RP 100.2. artikuluko honen interpretazioa nolakoa behar den izan eta abar, **20/96 zirkularrak** lantzen du.

Artikulu honen atzean dagoen filosofia ongi ezagutzea garrantzitsua da. Izan ere, aurreko guztia horrela bada ere, euskal presoek kasuan oso bestelako asmo eta helburuez aplikatzen da artikulu hau, eta gehienetan RPn finkatzen diren kontrolerako neurriak errespetatuak izateke. Batzutan artikulua aplikazioak helburu argia du: erregimen itxian dagoen preso bat bere modulu horretatik atera eta bigarren graduko presoak dauden beste modulu batetara eramatea, baina modulu honetara iristerakoan lehengo moduluan zituen eskubide murrizketa guztiak mantenduz eta, jakina, egitarau zehatzik gabe. Helburua, beraz, argia da: erregimen itxiko moduluan dauden beste kideengandik apartatzea, urruntzea, ez besterik.

2.5. BITARTEKO HERTSATZAILEAK. LOGP 45.ART., RP 72.ART., BEHIN BEHINEKO ISOLATZEA.

Bai LOGPk bai RPk egoera larri zehatz batzuetan tresna hertsatzaileak, bortxazko tresnak erabiltzearen aukera aurreikusten dute, horretara dedikatzen direlarik euren 45. eta 72. artikuluek, hurrenez hurren. Tresna hauen erabilera helburu zehatza du: **egoera normaltasunera, ohikotasunera itzultzea**. Beraz, tresna hauen erabilera zeharo ezinbestekoak diren denboraz luzatuko da, ez gehiagoz. Beraz, **muturreko egoeretan** erabil daitezkeen eta bortxan oinarritzen diren bitartekoetaz ari gara. Horrelakoak erabili ahal izateko ezinbestekoa da zuzendariaren baimena, eta segituan jakinarazi behar zaio erabilera hau JVPri.

Beraz, LOGP 45. artikuluek tresna horien posibilitatea aurreikusten du, epaitu gabeko presoek zein preso penatuen kasuetan, honako kasuetarako aurreikusitako ere:

- A) Presoek buru ditzaketek ekimen biolentoak zein ihesaldi saioak.
- B) Presoek euren buruari edo beste preso batzuei edo instalazioei egin diezazkieten erasoak.
- C) Presoek funtzionarioei egin diezazkieten jarkiera aktiboa zein pasiboa.

Aldi berean, RP. 72. artikuluek zera dio:

“ 1. Son medios coercitivos, a los efectos del art. 45.1 de la Ley Orgánica General Penitenciaria, el aislamiento provisional, la fuerza física personal, las defensas de goma, los aerosoles de acción adecuada y las esposas. Su uso será propor-

cional al fin pretendido, nunca supondrá una sanción encubierta, y sólo se aplicarán cuando no exista otra manera menos gravosa para conseguir la finalidad perseguida y por el tiempo estrictamente necesario.

2. No podrán ser aplicados los expresados medios coercitivos a las internas mencionadas en el art. 254.3 del presente Reglamento ni a los enfermos convalecientes de enfermedad grave, salvo en los casos en los que de la actuación de aquellos pudiera derivarse un inminente peligro para su integridad o para la de otras personas. Cuando se aplique la medida de aislamiento provisional el interno será visitado diariamente por el Médico.

3. La utilización de los medios coercitivos será previamente autorizada por el Director, salvo que razones de urgencia no lo permitan, en cuyo caso se pondrá en su conocimiento inmediatamente. El Director comunicará inmediatamente al Juez de Vigilancia la adopción y cese de los medios coercitivos, con expresión detallada de los hechos que hubieran dado lugar a dicha utilización y de las circunstancias que pudiesen aconsejar su mantenimiento.

4.

5.”.

Bitarteko hauen artean denboran gehien luza daitekeena **behin behineko isolatzea** da. Teoriaz, neurri honek ezinbestekoa den denboraz iraungo du, ez gehiagoz, eta ondorioa izaten da egun batez, biz edo hiru egunez luzatzen dela. Baina, jakina, zuzendariak ulertzen badu ohikotasunera, normaltasunera ez dela espetxea itzuli, egoera hori luzatzea erabaki dezake. Ikusten baduzu egoera hori, beharrik gabe, beharrezkoa izan gabe, luzatzen dela, ez-beharrezkoa den zorrotasuna dela eta salaketa tartekatzen ahal izanen duzu (Zigor Kodearen 553. artikulua, Europako Kontseilua zein Nazio Batuen “Regla Mínima 34”).

Egoera honetan, presoak **isolamenduzko ziega** horietariko batetan egongo da, **inongo ondasunik gabe**, patiora ateratzeko eskubiderik gabe, eta komunikazioak izateko **eskubiderik gabe**. Komunikazio bereziak –vis a vis.ak- egun horietariko batetarako jarrita bazenituen, isolatze egoera horretatik atera eta gero berreskuratuko dituzu komunikazio horiek. Ahozko komunikazioak, komunikazio arruntak, ordea, ez dituzu berreskuratuko, galduko dituzu.

Behin behineko isolatzea aplikatzeaz gain, neurri hau hartzeko gertaturiko hori (matxinada, plantoa, ...) dela eta zigor-espeditente bat irekiko dizute. Zigor espeditenteen afera honi dagokion guztia 7. atalean ikusiko dugu, baina oraintxe oharpen txiki bat nahi dizugu egin. Litekeen gauza da zigor espeditente honen ondorioa zigor (“parte”) bat izatea, eta zigor hori isolamenduan eman beharreko egun batzuk izatea. **Horrelako zerbait gertatuko bada, behin behineko isolatze egoera horretan eman dituzun egunak deskontatu beharko lizkizukete**. Esate baterako, jarriko dizuten zigorra isolamenduan eman beharreko 14 egunekoa izango bada, eta zuk bi egun eman badituzu, bakarrik ordaindu beharko zenituzke 12. Espetxeak ez du hori egin nahi izanen, baina gaia borroka daitekeen zerbait bada eta, beraz, JVPra eraman beharko zenuke gaia.

2.6. ERREGIMEN BAKOITZEKO BIZI BALDINTZAK ZUZENTZEN DITUZTEN ARAUAK, LEGEAK.

Espetxea da, zalantzarik ez, espetxe osoan eta modulu bakoitzean indarrean dauden arauak ezartzen dituena. Baina horrek ez du esan nahi espetxeak edozein arau finka dezakeenik, inongo mugarik ez duenik. Ez. Zuzenbide estatu batean bizi gara –hori diote, behintzat- eta, beste eremuetan gertatzen den bezala, administrazioak errespetatu behar dituen arau batzuk, lege batzuk badaude.

Beraz, **preso dauden pertsonen eskubideak zeintzuk diren eta euren obligazioak zeintzuk diren zehazten duten arauak edo legeak badaude.** Batzuetan arautze hori aski zehazgabea da, eta beste batzuetan hagitx zehatza. Eta ikusten badugu espetxearen jarrera edo jokabidea lege horiek finkatzen dituzten terminoetatik urruntzen dela, bada orduan espetxearen jarreraren aurkako ekimenak –kexak, errekurtsioak: geroxeago ikusiko dugu zer den hori guztia- burutu ahal izanen ditugu, espetxearekin loturik ez dagoen epaile batek –JVPk, alegia- espetxearen gehiegikeriak zuzen ditzan.

Honakoak dira lege horiek –oharra: irizpide hierarkikoaz antolatutako dago zerrenda. Era berean, hierarkian zenbat eta altuago egon, orduan eta zehazgabeagoa da araua-:

- Gai honen inguruan dauden **nazioarteko komenio eta itunak.** Euren artean, **“Normas mínimas para el tratamiento de los reclusos”**, Nazio Batuenak. Oso testu garrantzitsua da. Estatu espainolak itun hau sinatu du eta, beraz, testua loteslea zaio estatu espainolari, *gutxieneko arau* hauen arabera interpretatu beharko direlarik estatu espainolak berak azkartu dituen legeak. RPren “exposición de motivos” delakoarekin gertatzen den gisan, itunak ez dauzka *zuzenean aplikagarriak diren artikulua*k, baina barne legedia interpretatzeko eskuargia ditugu nazioarteko arau hauek guztiak.
- **Espainiar konstituzioa**, batik bat oinarritzko eskubideei buruzko atala (14.-28. artikulua).
- **LOGP.** Esana dugun bezala, 1979.ko irailaren 26an indarrean sartu zen lege honek irizpide orokorrak finkatzen ditu.
- **RP.** 1996.ko otsailaren 9an onarturikoa, LOGP delakoaren zehaztapena da RP hau. Ordurarte indarrean zegoen aurreko RP bertan behera geratu zen, baliorik gabe, baina zigor espedienteak direla eta 1981.ko RPko mamiak zutik dirau –zehazki, 108, 109, 110 eta 111 artikulua, hala nola 124. artikulua lehen paragrafoa-.
- **DGIPren zirkularrak eta espetxe bakoitzaren barne-araudiak, barne erregimen arauak.** Gai honek komentario batzuk merezi ditu. Bizi baldintzak zehazteko oinarria edo abiapuntua LOGP eta RP dira. Madrilek zera egiten du: espetxe guztietarako irizpide batzuk finkatzen ditu, eta espetxe guztiei jakinarazi. Ondoren, espetxe bakoitzean DGIPren irizpideak jaso

eta egokitu egiten dira. Madrilek –hamaika aldiz entzunen duzu: “*Hau Madril-dik dator*”- finkatzen dituen **irizpide orokor horiek zirkularren bitartez** bideratzen dira espetxe guztietara, eta zirkularra jaso eta egokitzen denean espetxeko **barne-araudia** agertzen zaigu. Barne-araudi hau ezagutzea garrantzitsua da. Alde batetik, espetxeak bere barne-araudian onartzen duena errespetatu beharko duelako. Horixe baino ez zitzaigun faltako! Barne-araudia loteslea zaio espetxeari. Teoriaz, espetxera iritsi eta barne-araudi honen kopia bat eman beharko lizukete (RP 52.1. art.), ezen eta barne-araudiak idatzirik egon behar baitu (LOGP 49. art., RP 21. eta 52. art.). Baina gehienetan ez da barne-araudi honen kopiarik egoten, eta praktikan ezagutuko dituzu arau hauek, orman, iragarkientzako taulan ikusiko duzulako inoiz zuzendaritzaren erabakiren bat, ... Baina, hortik landa, horrez gain, barne-araudi hau ezagutzea inportantea da, zuk zeuk aztertu ahal izan dezazun zenbateraino barne-araudiak LOGP zein RP errespetatzen dituen ala ez. Izan ere, zirkularrak administrazioak hartzen dituen erabakiak dira, eta balio hori dute, ez gutxiago, baina ezta gehiago ere. Idazki hauen bitartez administrazioak zera bilatzen du, estatu espainoleko txoko guztietan legeak modu bateratuaz interpretatuak izan daitezela. Baina **zirkularrak ez dira lege, ez dute lege batek edo legebiltzarretik ateratzen den arautegi baten balioa** eta, beraz, ezin dizkiete zirkularrek presoek LOGPk eta RPk jartzen edo ezartzen ez dizkieten eskubideen murrizketak ezarri. Zirkularrek ezin dituzte egoera murriztuagoak edo zailagoak sortu. Beraz, ikusten baduzu zirkular batek edo barne-arau batek LOGPk eta RPk finkatzen dituztenak baino eskubideen mugatze larriagoak finkatzen dituela, JVPra joko duzu, zirkular hori edo barne arau horren aurka errekurtsioa tartekatuz eta bere balio gabetzea eskatuaz. Izan ere, espetxeak arau bat zehaztu izanak ez du derrigorrez esan nahi zehazte hori legearen arabera denik. Litekeen gauza da administrazioak egin interpretazioa okerra, legearen aurkakoa izatea. Eta, bukatzeko, azken gauza bat. Zirkular bat publikoa den agiri bat, dokumentu bat da. Egun, Internet.en ere topa daitezke. Bera, zirkular baten kopia bat eskatuko bazenu, eman beharko lizukete eta, era berean, ziegako miaketa batetan zirkular bat topatuko badute ezin dizute kendu.

2.7. ESPETXEEN ERABAKIEN KONTROL JUDIZIALA: ESPETXE- ZAINZTA EPAITEGIAK (JVP).

Bale. Baina, nola daki preso batek espetxeak harturiko erabaki bat legearen arabera den ala ez? Nork erabakitzen du, esate baterako, barne arau bat LOGPrekin bat datorren ala ez? Espetxea legaren aurkako zerbait egiten ari dela baderitzot, norengana joko dut, noren laguntza eskatuko dut?

Honetarako epaitegi berezi batzuk sortu ziren. **Espetxe- Zaintza Epaitegia** dute epaitegi hauek izena –hemendik aurrera, JVP-, euren eskumenak

LOGP 76. artikuluan agertzen dira, eta, oro har, zera esan daiteke, espetxean gertatzen diren gauzetaz erabakiak hartzeko zehazki sortuak diren epaitegiak direla: administrazioak hartzen dituen erabakiak legalak diren ala ez erabaki, LOGPan zein RPan agertzen diren artikuluen horien guztien interpretazioa nolakoa behar den izan ebatzi, ...

Espetxe bakoitzak bere JVP du. Litekeen gauza da JVP baten esku espetxe batzuk egotea, baina espetxe batetan dauden preso guztien eskaerak eta kexak JVP bakar batetara doaz. Zuk ere berarengana jo beharko duzu. Epaile horren egin beharrekoetariko bat espetxea bisitatzea da, egoera zein den *in situ* aztertzea. Bisita horiek direla eta, espetxe bakoitzak apuntatzeko sistema bat badu, eta epailearekin zuzenean hitz egiteko parada izaten da, gure eskabideen inguruan azalpen hobekak eta argiagok emateko parada.

Espetxean gertatzen den-denaz arduratzen al da JVP hau? Ez. Nolabait esateko, JVP bizi baldintzetaz arduratzen da, kondena nola betetzen diren moduz, benetan *erregimen penitentiarioa* den horretaz. Izan ere, espetxean espetxearen gehiegikeriak baino aski larriagoak diren beste gauza batzuk gerta daitezke. Esate baterako, benetako, zinezko delituak gerta daitezke —eta gertatzen dira— espetxean (demagun, eraso fisiko bat). Holako kasuetan zuen salaketek beste hartzaile bat izanen dute, ez dituzue JVPra igorriko —baina gero ikusiko dugu kontu hau—.

Azpirarratu nahi duguna, ordea, honakoa da. Espetxeak erabakiak hartzen ahal ditu, eta makinatxo bat aldiz esanen digute “*arauek hori diote*”. Tira, une bazuetan egoera hori gure borondatearen aurka ametitzea baino ez zaigu geratuko. Baina horrek ez du esan nahi espetxeak egiten dituen interpretazio guztiak legalak direnik. Beraz, hortxe dago JVP, espetxearen gainetik, jo dezagun berarengana eta ikusiko dugu zer erabakitzen duen.

Azken oharpentxo bat. Aspaldian hasi ziren “**Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria**” delako hori sortu behar zutela iragartzen. JCVP hau Madrilen dagoen Auzitegi Nazionalan kokatuko litzateke, eta bere eginbeharra Auzitegi Nazionalak epaitu eta zigortu dituen presoekin loturiko espetxe mailako aferak ebatzea izanen litzateke. Azken asteotan gai hau berriro agertu da mahai gainera, indar handiz agertu ere. Tira, edonola ere, azkenean epaitegi berezi hau abian jarriko bada, zuretzako ondorio zuzena oso sinplea izanen da: orain arte harremandu zaren JVPekin harremanetan jarraitu beharrean une horretatik aurrera zure eskaera eta errekurtsio guztiak beste JCVP honetara igorriko dituzu. Baina, beno, ikusiko dugu zertan bukatzen duen horrek guztiak, ...

2.8. ADIN TXIKIKOAK: LEHENGO HARRERA ZENTROAK.

Adin txikikoen inguruko iruzkin pare bat nahi genituzke egin. 1996an sartu zen indarrean egun dugun **Zigor Kodea**, eta berarekin batera orain dela bi urte sartu zen indarrean ere “**Ley de Responsabilidad Penal del Menor**” delakoa.

Ordurarte 16 urtetik gorako pertsonak adinez nagusiak ziren. Egun, ordea, **14 eta 18 urteen artekoak adin txikikotzat** ematen dira, eta Zigor Kodean agertzen diren delituak egitekotan ez dituzte espetxeratzen, baina erantzukizun sistema bat ezarria da. Baina, berriro diogu, ez dituzte espetxera bidaltzen, ... nahiz eta giltzaperaturik gera daitezkeen, nahiz eta zentro horiek eta espetxeak maila askotan oso antzekoak diren. Eta zentroak espetxeak ez direnez, ez zaie ez LOGP ez RP aplikatzen. Beraz, liburua hau ez zaie lagun horiei interesgarri edo lagungarri.

Beraz, **espetxera ez baizik eta lehengo harrera zentro batetara igortzen ahal dituzte gazte hauek**. Ez beti, jakina. Baina epaileak uste badu gaztearentzat onuragarria dela halako zentro batetan egotea, hara igorriko du. Giltzaperaturik egotea behin-behineko egoera izan daiteke, epaiketa burutu artekoa, edo epaiketan ezarriko den zigorraren ondorioa, izan ere epaiketan jar daitezkeen zigorren artean bat horrelakoa baita, **barneratze neurria** (“medida de internamiento”) alegia.

Gerta daiteke, ordea, gertaerak izan zirenean pertsona hura adin txikikoa izatea eta gero, denboraren iragaiteaz, adin nagusiko bihurtzea. Horrelako kasu batetan, bere **barneratze neurria ordaintzen ari den gazteak 23 urte betetzen baditu**, une horretan **espetxe batetara eramanen** dute, ez badu epaileak aurkakorik erabakitzen.

Era berean, adin txikikoen kasuetan aurreikusia da ere **zentro itxien aukera**. Horietara, zalantzarik gabe, *terrorismo* kontuekin loturiko adin txikikoak eramanen dituzte.

Zentro hauetan dauden bizi baldintzak arautzen dituzten legeak edo araudiak bi dira. Batetik irizpide orokorrak finkatzen dituen eta lehenago aipatu dugun LRPM. Bestetik, zentro bakoitzean dagoen barne-araudia.

Bestaldetik, eta administrazioak egiten duena zuzena den ala ez den baloratzeko, ez dugu kasu hauetan JVPen antzekoak izan litekeen epaitegi bat. Beraz, adin txikiari zigorra edo kondena ezarri dion epaitegia –Auzitegi Nazionalen dagoen “**Juzgado Central de Menores**” edo Entzutegi Probintzietan egoten den “**Juzgado de Menores**”- arduratu beharko da kondenaren betetzeari dagokion guztiaz: zigorrak, baimenak, bizi baldintzak, ...

Edonola ere, hau irakurtzen egonen zaren unerako gai honi buruzko beste txostentxo –laburrago- bat izanen da prestatuak, gauza hauek guztiak sakontasun handiagoz landuta agertuko direlarik. Interesik baduzu, eska ezazu.

2.9. FIES: JARRAI PEN BEREZIRAKO FITXATEGIA.

Benoa, eta bizi-baldintzei buruzko atal honekin bukatzeko, FIES (“**Fichero de Internos de Especial Seguimiento**”) delako honen inguruan pare bat ohar txo nahi ditugu egin. Lehenik eta behin, esan dezagun FIES delako hau hori-

xe dela, **fitxategi bat**, zailtzat edo arriskutsutzat ematen dituzten zenbait presori jarraipen zehatzagoa egiteko administrazioak erabiltzen duen tresna bat.

Administrazioak uste izan du bost direla segimendu edo kontrol berezi hori merezi duten pertsona motak eta, ondorioz, bost dira FIES motak: FIES 1, ihes egiteko saioak burutu dituzten, edo matxinatu diren edo biziki oldarkorrak diren preso sozialak; FIES 2, narkotrafikari handiak; FIES 3, talde armatuetako partaideak; FIES 4, poliziak eta espetxe-funtzionariak, eta FIES 5, intsumituak. Zu, jakina, FIES 3 delako horretan zaude.

FIES delako hau sortzeko zirkular bat baliatu zuten, **24/96 zirkularra** hain zuzen ere. Eta zirkular honen mamia legala zenentz oso argi ez zegoenez, preso batzuek errekurtsua tartekatu zuten, baina gaur da eguna zirkular hori benetan legala den ala ez den taxuz ebatzi gabe dagoela. Izan ere, TC delakoak ebatzi behar zuen gaia, baina funtsezko mamian sartu ez eta formazko kontu batetan geratu zen TC. Izan ere, tartekatutako errekurtsua epez kanpo zegoen tartekatua, eta TCk horri erreparatu zion, ez besterik. Epez kanpo tartekatua zegoela esan eta horrela utzi zuen gaia.

Edonola ere, guretzako garrantzitsua dena zera da, **fitxategi horretan sarturik egoteak EZIN dituela zure eskubideak kaltetu**. Beraz, fitxategi horretan zaudela eta ez zaudela eta, ez zaitez ero, **ez galdu horretan denborarik**, ... baldin eta fitxategian egoteak ez baditu zure eskubideak kaltetzen. Izan ere, espetxeak erabakitzen badu zure gaineko segimendu zorrotzago bat egin behar duela baina horrek ez badizu eskubideen murrizketarik ekartzen, bejondeiola. Eskubideen murrizketak, espetxeak burutzen dituenak, LOGPn edo RPn oinarrituko dituzte. *Segurtasun arrazoiak* aipatuko dituzte, edota *tratamendu arrazoiak*, baina ez dute inoiz esanen eskubideak urratzeko oinarria edo arrazoa FIESen sailkaturik zaudela denik. Beraz, oro har, FIESen egon ala ez egon, berdin dio, ez dio inporta, egin dezatela nahi dutena. Aitzitik, inoiz jakinarazten badizute eskubide hau edo bestea murriztu behar dizutela FIESen zaudelako, orduan bai, orduan zerbait egin beharko duzu.

3

BARNE BIZI-ERREGIMENA BIZI-BALDINTZAK

3.0. SARRERA

Ondo da, sar gaitezen orain zehaztasunetan, espetxe batetan *zer egin daitekeen eta zer egin ez daitekeen* horretan. Hain zuzen ere bizi-baldintzak horixe bera dira, eskubide batzuk eman eta behar batzuk inposatzen dizkiguten arauak. Eta aurrerago esan dugun bezala, badago **estandarra den bizi-baldintzen eredu bat, ohiko erregimena** (bigarren graduan sailkatutako zigortuentzako eta baldintza normaletan dauden prebentiboen kasuan aplika daitekeena) eta **bizi-erregimen itxiaren beste eredu bat** (lehenengo graduan sailkatutako preso zigortuei eta LOGPren 10. art.an dauden prebentiboei ezarriko zaiena), aipatu ditugun azpi-ereduekin batera. Ikus dezagun zertan zehazten diren bizi-erregimen hauek.

3.1. OHIKO BIZI-ERREGIMENA

Esan bezala, bigarren graduan sailkatutako zigortutako presoek –preso penatuei- eta murrizketa berezirik gabeko preso prebentiboei ezartzen zaiena da. Azal dezagun ba zertan datzan.

3.1.1. Espetxeratzea (RP 15-21. art.), barne-erregimenaren arauak.

Espetxeratua izan eta berehala, aldi batetarako, **sarrera departamentuan** sartuko zaituzte –inola ere bost egun baino gehiagoz, (RP 20.1 art.)-. Kon-
denatua egonda ere, espetxe batetik beste batera mugitzen ere, sarrera modulu-
ra eramango zaituzte zuzenean (RP 20.2 art.). Garraiatzean bazaude ere, espetxe
batetik beste batera eramaten bazaituzte eta hirugarren espetxe batetik iragaten
bazaituzte, egun batzuetarako bada ere, posible da modulu horretan uztea –teo-
rian iragaitzaz dauden pertsonentzako departamentu txiki bat egon daiteke, **ira-
gaite departamentua** izena duena, baina askotan ez dago eta sarrera departa-
mentua erabiltzen da-. Gauzak egiteko modu hau ez da beste munduko gauza:
horrela egiten da beti, berria den norbait heltzen deneko leku honetan edukitzen
dutelako beti egun gutxi batzutan, iritsi berria den pertsona zein eratako perso-
na den analizatzeko, eta jarraian dagokion modulura bidaltzen da.

Departamentu honetan medikuak aztertuko zaitu (RP 214.2 art.) sarrerren
liburu batetan dena idatziz. Zure osasunari dagokionez garrantzitsuena deritzo-
zuna jakinarazi behar diozu, bereziki lekualdatze edo atxilotzearen ondorioz era-
gindakoak izan litezkeen era guztietako zauri, hematoma, eta abar, ondoren, beha-
rrezko denean, salaketa egin dadin. Medikuak liburuan diozun guztia jasotzen
duela ziurtatu behar duzu, eta egiten ez badu JVPri kexa aurkeztu diezaiokezu.

Ondoren gizarte-laguntzaile bat eta hezitzaile bat etorriko zaizkizu bisitan,
txosten bat burutzeko datuak eskatzeko eta zein departamentu edo modulutara
bidaliko zaituzten erabakitzeko (RP 20.1. art.). Zigortuta bazaude posible da, gizar-
te-laguntzaile eta hezitzaileaz gain beste norbaitek (jurista, psikologo eta abar) ere
zurekin elkarrizketatu nahi izatea (RP 20.2 art.). Edozein kasutan, ez zaude behar-
tuta zuk beharrezko edo interesgarri deritzezun datuez gain beste ezer ematen.

Agindu judizial baten ondorioz **inkomunikatuta** egotea gerta daiteke (RP
19 art.). Egoera oso berezia da hau. Espetxera bidali zaituen epaileak berak era-
baki du, epe labur batetan –normalean bost egunetik gora luzatzen ez dena-
inkomunikatuta jarrai dezazun, senideekin, abokatuekin eta beste presoekin kon-
takturik izan gabe hain zuzen. Hau ez da espetxearen kontua, zure sumarioa dara-
man epailearen kontua baizik. Jasango duzun bizi-erregimena guztizko isolamen-
dua izango da. Patio ordu bat edo bi izango dituzu soilik, bakarrik irtengo zara gai-
nera, ez duzu pakete, dei edo kanpoarekiko bestelako harremanik izateko esku-
biderik izango inkomunikaziotik atera arte, eta hori espetxera bidali zintuen epai-
leak berak erabakiko du.

Zigortuta egon arren, edozein espetxetan sartzean **kartzelako barne-
erregimeneko arauak** zeintzuk diren jakinarazi beharko lizkizukete (RP 52.1
art.). Esan dugu zertxobait hauetaz. Zentroko Zuzendaritza Kontseiluak landu (RP
271.1B) art.) eta DGIPk onartzen ditu. Idatzitako arau hauetan (LOGP 49 art. eta
RP 21 eta 52 art.) espetxeko bizi-erregimena zein den zehazten da: ordutegiak,
eskubideak eta beharrak, eta abar. Beharrezkoa da hauek ezagutzea, honezkero

azaldu dugunarengatik. Batetik, beraietan jasotzen dena espetxearentzako loteslea da: derrigorrez bete behar du. Bestalde, aplikatzen digutenean barne-erregimeneko arauen bat LOGP edo RPrekin bat ez datorrenean, JVPren aurrean errekurritu beharko da –aurrerago ikusiko dugu hau-. Arau hauen kopia bat ematen badizute ederki. Bestela, eska itzazu. Ematen ez badizkizute, aurkez ezazu kexa bat JVPn. Edozelan ere, sarrera-departamentuan zein liburutegian edo espetxeko kortxoetan kopiak egon beharko lirateke, gutxienez begiratu bat eman diezaiozun (RP 52.5 art.)

Zure senideei eta abokatuari espetxeratzearen edo leku aldaketaren, hau da, espetxe aldaketaren berri berehala emateko eskubidea daukazu (RP 41.3 art.). Garrantzitsua da dei hori espetxearen kargura doala jakitea (RP 47.4 art.). Deia egiten uzten ez badizute, aurkez iezaiozu kexa bat JVPi.

3.1.2. Araketa eta miaketa pertsonalak (LOGP 23 art. eta RP 68 art.)

Bere arautzea bateratua bada ere, LOGP-ak eta RP-ak irudi bikoitza jasotzen dute: ziegako araketak edo norberaren gauzena eta miaketa pertsonalak.

Legediak kasu guztietan **pertsonaren duintasunarekiko** (LOGP 23 art.) **eta oinarrizko eskubideekiko errespetuz** (RP 71.1 art.) burutu behar direla zehazten du. Arazoa, noski, espetxe bakoitzak duintasun eta intimitate-eskubidea eta **segurtasun beharren** elkarketa nola interpretatzen duen da. Araketa eta miaketen justifikazioa hori baita, preso dauden pertsonak ez daukatela debekatutakoak eta arriskutsuak diren objekturik konprobatzea hain zuzen. Interesen arteko **talka sortzen da**. Adibidez, espetxeak arropa artean zerbait ezkutatuta daramazula adieraziko du –eta bera lortzeko, miaketa efikaza izan dadin biluz zaitezen saiaturiko da, miaketa sakona izaten saiaturiko da-, zuk, aldiz, beste pertsona batzuen aurrean biluzik egon behar ez izateko duintasunerako duzun eskubidea azalduko duzu.

Beraz, **espetxeak segurtasun neurriak ezartzeko eskubidea du, baina hauek ere beren muga daukate**. Zentzu honetan, RP 71.1. artikulua zera dio: *“Estas medidas se regirán por los principios de **necesidad y proporcionalidad** y se llevarán siempre a cabo **con el respeto debido a la dignidad y a los derechos fundamentales**, especialmente las que se practiquen directamente sobre las personas. Ante la opción de utilizar medios de igual eficacia, **se dará preferencia a los de carácter electrónico**”*.

A. Ziega eta norberaren gauzen miaketak

RP 68.1. artikulua presoan arropa, ondasun eta tresnetan **miaketak**, eta ate, leiho, zoru, horma, barra eta abarretan **ikuskapenak** burutuko direla adierazten du.

Zure gauzak edo ondasunak espetxean sartzerakoan miatuko dizkizute –beti- eta, behin zure ziegan zaudela, beharrezko ikusten duten guztietan. Ez litzateke arazorik egon beharko, ziegaren miaketa lasaitasunez burutzen baldin bada. Baina gatzutan gertatzen da norberaren gauzak lurrian botata edo pilatuta bukatzen dutela. Nabarmena denez, hau ez da onargarria, miaketak gauzak gutxi gora behera zeuden lekuan utzita bukatu beharko bailuke.

Presoak miaketa burutzen den bitartean ziegan **presente egoteko eskubidea** duen gai polemikoa da. Kontu honetan jarrera tinkoa mantendu beharko zenuke. JVP gehienek espetxeratua aurrean egon dadila onartu dute, arrazoi desberdinetan oinarrituz, besteren artean duintasunerako eskubidean edo defentsarako eskubidean –LECarekin bat, etxe bat miatzen denean bertan bizi dena presente egotea baimendu eta are eta behartzen baitu-. Beraz, zure ziega eta ondasunak miatuko badituzte aurrean egotea eska ezazu. Ziegan ikuskapena egiteko sartzen badira –ziurtatzeko leiho, barra eta beste gauza guztiak bere lekuan daudela, ez zaudela ihesa prestatzen-, gai honek ez dauka hainbesteko garrantzirik.

Miaketa ez dela ondo egin uste baduzu –ziega gelditu den egoeragatik, objekturen bat apurtu delako, erretiratzekoa ez dela uste duzun gauzaren bat kendu dizutelako, edo ez dizutelako aurrean egoten utzi- kexa aurkez dezakezu JVPn.

Miaketa hauen ondoren iragarpen idatzi bat egingo da, aurkitutakoa azalduz.

B. Miaketa pertsonalak

RP 68.1. art. pertsonengan miaketak burutuko direla jasotzen du, hurrengo ataletan hauek nola egin behar diren zehazten delarik.

Miaketa pertsonal baten aurrean RPK –aipatu dugun bezala- arau orokor bezala, izaera elektronikodun moduek daukatela preferentzia (RP 71.1 art.), adierazten duela izan behar duzu abiapuntuztat. Horregatik, edo metal-detektagailuaren arkutik pasako zara edo erraketa pasatuko dizute. Arazoa haztaperen bidezko miaketa egin nahi dizutenean, edo biluzteko eskatzen dizutenean, edo flexioak egin ditzazun eskatzen dizutenean sortzen da, horretarako metalezkoak ez diren baina debekatuta edo arriskutsuak diren tresnak dituzula argudiatuz.

Bere garaian TCk epai bat eman zuen, STC 204/2000.eko uztailaren 24ean, bertan preso politiko batek ezarritako babes eskeko helegitea onesten zen eta argi geratzen zen **biluzi integraleko miaketak ezin direla orokortuak izan, beren helburuak justifikatu behar dituela, espetxearen baldintzetan eta espetxeratuen aurre-jokaeran eta gainera araketa burutzean erabilitako tresnetan oinarritu behar direla, ez dela oinarritzko eskubideengan minik eragingo, bereziki CE 15 eta 18.1. artikuluetan jasotzen direnei dagokienean.**

RP 68.2. art.k gai honen inguruko zerbait biltzen eta honoko hau exigitzen du: *“que existan motivos de seguridad **concretos y específicos, cuando existan***

razones individuales y contrastadas que hagan pensar que el interno oculta en su cuerpo algún objeto peligroso o sustancia susceptible de causar daño a la salud o integridad física de las personas o de alterar la seguridad o convivencia ordenada del Establecimiento”. Gainera beharrezkoa da **zerbitzuburuaren baimena** izatea: funtzionariak aurretiko orden hau ez badu ezin izango dizu biluzteko eskatu.

Exigitutako biluztea egiterako orduan zure oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatu behar duzu, horien artean intimitatearena (CE 18 art.) dagoelarik. Horretarako **bata** bat edo zure gorputza estaltzeko beste zerbaiteko eskatu beharko duzu, era honetan bata jantzi ondoren, zure arropak kendu eta miatzeko beraiei eman ahal izango dizkiezu.

Miaketa RP 68.3. artikuluan jasotzen den modura burutu beharko da. Miaketa burutuko duen funtzionaria presoaren sexu berekoa izan behar da, leku itxi batetan egingo da, beste presoekin presentziarik gabe eta intimitatea ahalik eta gehien babestuz –honetarako eskatzen dira bata edo antzekoak-.

Baina biluzte integralen gaiak egoera nahasiak eragingo ditu, ikusiko duzu: batzutan ez dizute inolako arrazoi indibidual edo egiaztaturik emango, beste batzutan ez dizute bata eman nahi izango, biluztu ondoren jar dezazun nahi izango dute, edo behin biluztuta bata kentzeko esango dizute, ... Kasu horietan JVPi kexa aurkeztu beharko diozu, era honetan, nahiz eta lehen miaketa hori nahi izan duten bezala burutu, behintzat hortik aurrera mota honetako miaketak nola burutu behar diren zehatz dezan.

Badaude, teoriarik, sakonagoak diren miaketak. RP 68.4. artikulua zuzendaririk, biluzte integrala emaitzarik gabekoa denean eta tresnaren bat ezkutatzen duen susmoa dagoenean, dagokion agintaritzaren judizialari “**otros medios de control adecuados**” aplikatzeko eskaria egiteko aukera jasotzen du. X izpi edo antzekoek buruz ari direla suposatzen da, adibidez, sabelean daramazun zerbaiteko detektatzeko, ... (normalean mota honetako miaketak debekatutako substantziak antzematera zuzenduta daude).

Miaketa, araketa eta ikuskapen guztietan txosten bat, idatzi bat egiten dela jakin behar duzu (RP 68.5 art.), bertan gertatutako guztia jaso arazi behar delarik.

Aipatu ditugun miaketak preso dauden pertsonen pairatu ditzaketenak dira. **Posible da bisitara doazen senideei miaketa bat egitea, biluztuz?** RP 45.7. artikulua hori gerta dadin bidea irekita uzten du, vis a vis-en kasuan bederen, baina 68. artikuluan jasotakoarekin bat burutu daitezen exigituz, berme honekin eta arrazoituago egon behar duenaren plusarekin. Praktikan **uko egin behar diozu erabat**. Zentroan debekatuta dagoen zerbaitekin sarrera ekiditea bada asmoa, jada miatzen dira presoak vis a vis-etik modulura ateratzen direnean, beraz, senitartekoen miaketak ez du zentzurik. Horregatik senideen biluztea ez da ia inoiz eskatzen, inoiz ez esatearren. Edozelan ere, senideek praktika horri uko egin beharko liokete. Uko honen ondorio bakarra komunikaziorik gabe gertatuko direla da, vis a vis-a galduko dela. Ezarriko duzu salaketa.

3.1.3. Ziega (LOGP 19.1 art. eta RP 13 art.)

Irizpide orokor bezala **printzipio zelularra** ezartzen da, hau da, preso bakoitzak ziega indibiduala izan behar du, inorekin partekatatu gabe. Hala ere, bi salbuespen daude, ziegaren baldintzek preso bakoitzaren intimitatea gordetzen uzten dutenean:

- borondateko aukera: RP 13.1 art. Presoak eskatuta, ziega partekatzea baimendu ahal izango da, ez egitea aholkatzen duten ordenik, segurtasun neurririk edo tratamendu medikurik ez badago.
- behartutako aukera: RP 13.2 art. Kasu honetan espetxeak ziega **denboralki** konpartitzera behar ditzake presoak, espetxeratutako guztientzako plaza edo ziega librerik ez badago.

Imajina dezakezunez, administrazioaren oztopo denborala izan beharko litzatekeena –behar diren besteko plaza librerik ez izatea une konkretu batetan- *egitura arazo* bihurtzen da –ez da inoiz leku nahikorik egoten-. Zer egin kasu haue-tan?

Zuk ikusiko duzu zer egin, milaka faktoreen arabera. Baina egingo duzunaren ondorioak aurreikus daitezke. Adibidez, ziega beste edonorekin konpartitze-ari uko egiten badiuzu eta tentsio-egoera batera iristen bada, isolamendura eramango zaituzte, non bizi-baldintzak mugatuagoak diren, baina –eta hau bai kasualitatea- non ziegan bakarrik egongo zaren. Egoera batzutan –benetan egoera iragankor bat dela uste denean, ...- konponbidea zera izan daiteke, gutxienez zuri utz diezazuten ziegan norekin egon nahi duzun erabakitzen.

Edozein kasutan, beti daukazu aukera JVPren aurrean salaketa ezartzeko. *Printzipio zelularra* kontutan ez hartzeaz gain, urratzen ari diren eskubidea intimi-taterako eskubide konstituzionala da (CE 18.1 art.), ziegaren ezaugarrien arabera ezinezkoa baita intimitate hori ziurtatzea ziega konpartitzen bada. Erabil ezazu argudio hau JVPi egindako errekurtsio posibleetan.

RP 14. artikulua ziega batek bete behar dituen baldintzak jasotzen ditu. Horrela, sartzera baldintzak betetzen dituela ziurtatu behar duzu: ura, korrante elektrikoa, bonbilak, oherako materiala, koltxoia eta burukoa, garbiketarako tresnak, aireztatze naturala, altzariak, eta abar. Aholku on bat: bakarrik zaudenean, ziurta zaitez aurretik bertan egondako beste norbaiten onartu gabeko tresnarik ez dagoela eta, aurkitzen baduzu, kendu gaitetik. Beste gomendio bat, eta ia ez dago aipatu beharrik ere: helduko zaren ziega, era eraginkorrean garbitu eta desinfektatuko duzu.

Era berean, 14.1 artikulua ziegek argi eta aireztatze naturala eduki behar dutela zehazten du. Oraindik orain badaude **metalezko xafla** batez babestutako leihoak dituzten ziega batzuk, kanpoalderako bista ukatzen dutenak (edo, alde-rantziz, kanpotik barnealdea ikusi daitekeenekoak). Ez ezazu onartu horrelako egoerarik, eska ezazu xafla hori kentzeko eta, espetxeak kentzeari uko egiten badio, salaketa jarri JVPn. Normalean argi puska bat sartzen uzteko zulatuak iza-

ten diren metalezko xafla horiek *efecto discoteca* deritzona sortzen dute, aldi berean argi naturala neurri handi batean mugatzen delarik, luzera bista arazo larriak sortzen dituelarik.

Azaldu behar dugun beste gai bat **ziega aldaketei dagokiena** da. RPk honen inguruan ezer zehazten ez duenez, RPren 90.2. art. ra jo behar dugu, bertan espetxeko Zuzendaritza Kontseiluak, tratamendu-batzordearen aurretiazko txostena izanik, segurtasun, ordenu eta diziplina neurriak landu ditzakeela jasotzen da. Era honetan, azken urteetan, bai DGIP-ren zirkularren bidez, edo espetxearen beraren erabakiz, preso batzuek ziega aldaketa etengabeak pairatzen dituzte. Neurri hau aldi baterakoa izaten da, baina gertatzen da ere espetxe batzutan urteetan zehar luzatzen direla. Ziega aldaketa hauek segurtasun neurriak argudiatuz aplikatuko dituzte orokorrean. Hori gertatuz gero, JVPn errekurritu. Aldeko erabaki judizial ugari daude, neurri hori desagerraraztearen edo aldaketak hain maiz ez izatearen inguruan.

3.1.4. Ordutegia (LOGP 25 art. eta RP 77 art.)

Presondegia guztietan ordutegi bat dago, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa (RP 77 art.). Jaikitzeo, jatorduetarako, jardueretarako, gauean ziegara bueltatzeko, eta abarretarako ordutegia zehazten da bertan. Teorian, badaude denentzako derrigorrezkoak diren ekintza eta ordutegiak, eta ondoren borondatezko beste jarduera batzuk antolatzen dira, bertan parte hartu ahal edo ezingo duzularik. Ez baduzu ekintza boluntario hauetako batean ere parte hartu nahi, moduluak geratuko zara, patioan, nahi duzun jardunean.

Arazo bat zera da, **ziegan gelditzeko eskubidea daukazu ala ez**. Gai hau ez dago oso argi, espetxe askotan ez dizute oztoporik jarriko, eta ikasketak edo beste behar batzuk direla azalduz eskatzen baduzu, onartuko dizute. Beste kartzela batzutan, bestalde, ziegatik irtetea eta patiora jaitea *beharrezko ekintzat* jotzen da. Kasu horietan kexa aurkez dezakezu JVPn.

Espetxe batzutan badago ere **korrante elektrikorako ordutegia**. Legeak dio ziega leku *bizigarri* bat izateko baldintzak bete behar direla (LOGP 19.2 art. eta RP 14.1), baina ez da inon zehazten argi elektrikoaren kontua. Ordutegia nahikoa den baloratu beharko duzu, ez baldin bada, kexa aurkeztu JVPren aurrean.

3.1.5. Zenbaketak (RP 67 art.)

Periodikoki presoen zenbaketak burutuko dira, preso guztiak bertan daudela, inor falta ez dela egiaztatzeko. Araudiak bi motatako zenbaketak jasotzen ditu:

- *ohikoak*: presondegia ordutegian ezarrita dauden kontaktak dira, funtzionarien txanda aldaketarekin batera burutzen direnak (RP 67.1 art.), zie-

gan egongo zaren unea hain zuzen. Espetxe batzutan ohizko zenbaketak patioan burutzen dituzte, jantokira joan aurretik, horrela presoak formazioan jartzera behartuz,...

- ez *ohikoak*: edozein unetan burutuko dira, zerbitzuburuaren aginduz, zerbitzuburuak berehala Zuzendaritzari jakinarazi beharko diolarik (RP 67.2 art.).

Ez dago arau legalik zenbaketa hauek nola burutu behar diren dionik. RPren 67.3 art.k **beren berehalakotasuna eta fidagarritasuna bermatuz** burutuko direla bakarrik jasotzen du. Kartzela batzutan presoak zutitu daitezzen exigitzen da. Exigentzia bidegabea da, ez dagoena zertan onartu. JVP gehienek ikusgai egotearekin eta ondo zaudela ziurtatu ahal izatearekin nahikoa dela estimatzen dute, beraz, kontaktak burutzeko era legeak dioenarenetik haratago doala uste baduzu, aurkeztu kexa JVPn.

3.1.6. Ekintzak / Jardunak

Espetxean **tailerrak** egon ohi dira, bai heziketa-izaerakoak (INEM-ekoak edo presondegiak antolatutakoak, begirale edo irakasle batek zuzendutako **ikastaroetan** zehazten direlarik), zein denbora librerakoak (gutxi gora behera nahi duzuna egitera joaten zara bertara) hainbeste gairen inguruan burutzen direlarik: zeramika, larrua lantzea, koadernaketa, informatika, mekanografia ikastaroak, eta abar.

Ikasteko eskubidea ere badaukazu (LOGP 55 eta 56 art.). Kanean ere dau den araututako ikasketak burutu ditzakezu distantzian (adibidez, karrera bat ikasi UNED-en bidez), edo ikastaroak distantzian egin (LOGP 55.3 art. eta RP 124 art.). Gainera, kartzelan sartu bezain laster zure heziketa maila zein den neurtzen dute, teoriarik, oinarritzko ikasketen inguruko ezagupen minimo bat ez daukaten presoak lezio horietara joatera behartu ditzaketelako (RP 122 art.).

Presondegi bakoitzean **liburutegi** bat dago (LOGP 57 art. eta RP 127 art.), non irakurtzeko liburu, aldizkari eta egunkariak aurkitu ahal izango dituzun. Modulu bakoitzean arduradun bat egoten da zer egin behar duzun esateko: noiz eskatu behar diren liburuak, zenbat denborarako uzten dizkizuten maileguan,...

Zuk ere **liburu, aldizkari eta egunkariak** izan ditzakezu (LOGP 58 art. eta RP 128.1 art.) senideek bidalitako paketearen bidez edo postaz jaso ahal izango duzularik. Lege gordailurik edo argitaletxe oinik ez baldin badu bakarrik kendu ahal izango dizute edo, salbuespen bezala, eragindako akordioarengatik —espetxeak segurtasunaren edo ordenaren aurka egiten dutela argudiatzen badu, edo zure tratamenduarentzako kaltegarriak direla,...-. Kasu honetan presondegiak akordio hori JVPi jakinarazi behar dio eta zuk, noski (128.2 art.), errekurtsua aurkez dezakezu.

Kirola ere egin dezakezu. Moduluan bertan egin dezakezu, noski, baina kartzela gehienetan polikiroldegi edo gimnasio bat dago, baita piztina ere, eta ber-

tara joan daiteke, zentroak kirol ekintzak antolatu behar baititu (RP 131 art.). Bertan apuntatzeko modu desberdinak daude, eta bertara joango zara –lekuaren arabera- astean birritan edo hirutan,...

3.1.7. Osasun asistentzia (RP 207-tik 220-rarteko art.)

Oinarri orokor bezala osasun asistentzia presoen prebentziora, osatzera eta errehabilitaziora bideratuta dago. Espetxea presoen osasunaren arduraduna da, horregatik daude bere kargupean. Baina oinarri orokor honek, norberaren osasuna bezalako gai garrantzitsuei dagokienean ezin gaitu lokarrarazi. Zentroko zerbitzu medikoak erabili beharko dituzu, beraiengana joko duzu, exigitu beharreko guztia exigituko diezu, baina **zure osasunaren arduradun nagusia zu zara eta behar duzuna ziurtatuko dizutenak inguruan dituzunak dira, kanpoan: zure familia, zure medikuak eta zure abokatuak**. Gauza txikiak zuk zain ditzakezu, espetxeko zerbitzu medikuen asistentziaren laguntzaz, baina zerbaitek itxura txarra hartzen duenean edo arduratzen hasten zarenean, jar zaitez kontaktuan kanpoaldearekin. Honetan izan zaitez zorrotza, ez egiozu lekurik egin huskeria eta abandonuari.

Presondegi bakoitzean **oinarrizko atentziorako osasun talde** bat egon behar da, gutxienez mediku batez, erizain batez eta ATS batez osatua. Gainera, periodikoki espetxetik pasatuko dira psikiatra bat, estomatologo edo odontologo bat, zein ginekologo bat emakumeen zentrotik eta pediatria amen zentrotik (RP 209.1 art.). Zentzu berean, espetxe bakoitzean **erizaindegi** bat dago, instalazio kaxkar edo hobetoekin, bertara preso gaixo batzuk eramaten dituztelarik, larritasunaren, kutsadura arriskuaren, ... arabera.

Asistentzia espezializatua beharrezkoa izanez gero Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetara joango zara (RP 209.2 art.). Posible da **kontsulta** batera ateratzea, eta kasu honetan lekualdaketa bezala izango da, baina epaitegi edo espetxe batera joan beharrean, ospitale batetara joango zara. Honekin zera esan nahi dugu, ospitale batera eramaten bazaituzte, zaintza eta jagotea poliziaren eskutik burutuko dela, baina edozein kasutan osasun asistentziak eskatzen duen intimitatea babestu beharko dute (RP 218.5 eta 6 art.). Egoera hauek oso konplikatuak izaten dira, poliziek hainbeste segurtasun neurri hartu nahi izango baitituzte, eta intimitaterako eskubidea murriztuko dute, bisitak izateko eskubidea ere bai, beraien presente egon nahi izango dutelarik, eta abar. Egoera hauek ezin dira aurreikusi, beraz, kontsulta burutzean zure intimitatea errespetatua izan ez dela edo eskubideren bat urratu zaizula uste baduzu, errekurritu ezazu JVPn.

Posible da ospitale batera eramatea bertan **ospitaleratzeko**. Ospitale zibil bateko gela arrunt batetan ospitalera zaitzakete, edo zigor-unitate batetan, hauek, azaldu bezala, presoentzako solairu bereziak direlarik. Ospitale zibil batetan bazaude, normalena izango litzateke, jagotea izango duzula jakin behar duzu, eta nahiz eta familiak bisitatzeko eskubidea duzun, leku bakoitzean edo kasu bakoitzean desberdin egiten da, zaintza ez baitagokio espetxeari, poliziari baizik.

Horrela bada, holako egoera baten aurrean bazaude, honena da zure senideak konfidantzazko abokatuarekin kontaktuan jartzea lehen bait lehen, abokatuak behar diren gestioak burutu eta zure eskubideak babes ditzan.

Medikuak jarritako osasun tratamendua beti presoaren **onarpenarekin bat** burutuko den arren, RP 210.1 art. interesatuaren borondatearen aurka tratamendu bat ezartzeko aukera jasotzen du, bere bizitza arrisku larrian dagoenaren ustea baldin badago (bere bizitza seriozki mehatxatzen duen gaitza, duen norbaitengan pentsatzen ari gara noski, ez zara horrelako kasu batetan aurkituko).

Gaixotasun larria duen norbaiten kasuan, RP 216.1 art. espetxea bere senideei lehen bait lehen ezagutaraztera behartuta dagoela jasotzen du. Presoa ezin bada mintzalekuetara joan komunikatu ahal izateko, senide edo ahaide bat edo bik erizaindegian komunikatzeko baimena jasoko dute.

Presoak bere osasun egoerari buruz modu argi eta ulergarrian **informetua izateko eskubidea** du, baita eska ditzakeen txostenak jasotzeko ere (RP 215.2 art.). Kontu hauekin arazoak egoten dira espetxeetako zerbitzu medikuak ez baitira txostenak ematearen oso zale, batek daki zergatik. Holako kasuetan, tema zaitez, behin eta berriz eska ezazu, instantzia bidez, baita ikuskatu zaituen ospitaleari ere, gaixoa baita berari dagozkion txostenak eskatzeko eskubiderik gehien duena. Azkenerako ere arazoak izaten jarraitzen baduzu, salatu JVPn, zure abokatuari jakinaraztearekin batera.

RP 212.3. art. **presondegitik kanpoko medikuen** asistentzia jasotzeko aukera ezartzen du, Zigor-Instituzioetatik kanpokoak, beraz, presoaren edo bere senitartekoen konfidantzazkoa, beti ere sortutako gastuak presoak berak ordaintzen dituenean. Mediku hauen bisitak Zuzendaritzak baimendu behar ditu, onartu beharko lituzke, *segurtasun arazoak* daudela uste duenean ez ezik. Eta, egia esan, batzutan espetxeak berehala argudiatzen ditu *segurtasun arazo* horiek eta baimena ukatzen du. Kasu horietan errekurri ezazu ukazio hori JVPn, aurretik –senitartekoen bidez- abokatuarekin eta medikuarekin hitz eginez.

3.1.8. Denetarik

• **A. Pekulioa.** Presondegian izango duzun kontua da, bertan zure beharretarako dirua edukiko duzularik (RP 319 eta 321 art.).

Presoen diruaren kudeaketa ondokoek burutuko dute:

- Presondegiko administrazioak (RP 320.1 art.).
- Finantza-entitateek (RP 320.2 art.), pekulioaren banku-kontu indibidualen bidez, dagozkien interes saldoekin batera (320.3 art.). Kasu honetan diru-sarrerara kanpotik burutzen da, kontu korrante batera.

Bigarren kudeaketa hau RP berrian agertu da. Beraz, espetxe bakoitzeko barne arauak ikusi beharko dira kudeaketa berri hau nola antolatzen den eta

banakako libreta hauek edukitzeko aukerarik dagoen jakiteko –hori komenigarriagoa baldin bada behintzat-.

Baina zuri, egunerokotasunean, berdin diru administrazioak edo banku batek gordetzeak. Kontua da badagoela kontu korrante antzeko bat diru daukana, eta zuk erabili ahal izango duzuna. Astero kartzelak diru kopuru bat jasotzeko aukera emango dizu –65 euro inguru- onartuta dauden gastuak bete ditzazun (ekonomatoa, eskariak). Zure familiak, lagunek eta abar, dirua sar diezazukete pekulioaren kontu honetan, bai bisitan doazenean, edo posta-igorpenaren bidez zein dirua espetzeak esandako kontu korrante batetan sartuz, aurrez azaldu dugun sistemaren kasuan.

Pekulioa ezin daiteke bahitu (enbargatu), printzipioz diru gutxi daukazula suposatzen baita. Baina diru kopuru handiak izanez gero, bahitu ahal izango lizukete. Gertatu da noizbait. Hau egiten badute, jar zaitez zure konfidantzazko abokatuarekin kontaktuan lehen bait lehen. Edozelan ere, gerta daiteke une zehatz batean diru kopuru handia izatea, adibidez ordenagailu bat erosteko. Kasu hauetan komenigarria da diru sarrera hori justifikatuta edukitzea arazorik izan ez dezazun.

- **B. Ekonomatoa.** Bai moduluan zein kartzela osorako ekonomato bat dago. Denda-kafetegi baten antzeko zerbait da, bertan beren prezioekin batera zerrenda batetan agertzen diren produktuak lortu ahal izango dituzu (RP 301-303 art.). Oro har modulu bakoitzean ekonomato bat dago, eta erosgaiak zuk jasotzen dituzu zuzenean. Ekonomatoan lan egiten duena preso bat da.

- **D. Eskariak egiteko aukera.** Agian moduluko ekonomatoan ez dagoen zerbait eduki nahi izango duzu. Nahiko arrunta da kasu hau, ekonomatoan ez baita gauza askorik egoten –nolabait logikoa dena-. Horretarako eskariak burutzeko zerbitzua dago. Kartzelak sistema bat dauka horretarako, eta astean behin edo behin baino gehiagotan hauxe edo beste hori ekartzeko eskaria egin dezakezu, normalean idatziz, muga handirik gabe –noski, ezin daitezke presondegi barruan debekatuta dauden tresnak eskatu-. Ekarriko dizkizuten objektuen prezioek produktu horiek kalean daukatzenaren berdina izan behar dute.

- **E. Garbiketa produktuak.** Zure garbiketa pertsonalerako eta zure ziegaren garbiketarako produktuak eman behar dizkizute, zuk erosi nahi dituzun gain (RP 316 art.). Hilabetean behin poltsatxo bat emango dizute komuneko paper, bizar-xafla, bizarra mozteko xaboa, hortzetako pasta, plastikozko mahai-tresnak, xaboi likidoa eta lixiba botila batekin. Ziegan erratza eta lanbasa izango dituzu ontziarekin batera. Eskatu egin behar duzu eta, ez baldin badizute ematen, aurkez ezazu kexa JVPn.

- **F. Arropa.** Zure arropa jantz dezakezu, baita zure maindire eta estalkiak erabili ere, edo nahi izanez gero presondegiari eskatu ahal dizkiozu (LOGP 20.1 eta 14.2 art. eta RP 313 art.). Muga bakarra kolore urdin eta griseko arropari dagokiona da, hau da, funtzionarioek daramaten janzkeraren antzekoa dena, *ihes-saiakera* posiblearengatik. Honez gain, ez dago beste mugarik, beti ere janzkia kar-

tzelak debekatutzat jo dituen objektuen artean aurkitzen ez den bitartean (hala nola, buru-beroki, zapata mota bereziren bat, ...). Oraintsu arazoak egon dira kamiseta batzuk zeramaten testu, irudi edo zirriborroengatik. Kasu hauetan arazoa ez datza zure arropa izatean, arropan jartzen duenean baizik. Beraz, adierazpen askatasunari dagokion arazo bat izango da, ... Espetxeak arrazoi hau dela eta janzkiren bat errexisatzen badizu, dagokion JVPra jo beharko duzu.

- **G. Garbiketa.** Kartzela bakoitzean leku komunak –patio, komunak, korridoreak,...- garbiketa burutzeko erabiltzen den sistema desberdina da. Espetxe batzutan *txandakako garbiketa* sistema erabiltzen da, horren ondorioz preso guztiak, txandaka, hau edo hori garbitzera behartuta daudelarik. Beste presondegi batzutan –gehienetan hain zuzen- preso batzuk arduratzen dira lan horietaz, nolabaiteko onurak jasotzen dituztelarik horri esker.

Txandakako garbiketaren gaia ez da era espezifikoan erregulatzen, baina horri egindako aipamen guztiak horren derrigorrezkotasuna azpimarratzen dute. Horrela, LOGP 29.2. art.-ek preso guztiak establezimenduaren txukuntasun, garbiketa eta higiena zainduko dutela jasotzen du. RP 5.1. f) art.-ak presoak presondegiko administrazioak inposatzen dizkion establezimenduaren ordenurako eta garbiketarako derrigorrezko prestazioak bete behar dituela dio. RP 78 art.-k preso orok ezartzen diren higiena eta osasun neurriekin kolaboratzea derrigorrezkoa dela jasotzen du, establezimenduaren ordenurako, garbiketarako eta higienarako beharrezkoak diren *prestazio pertsonalak* betetzera derrigortuta dagoelarik.

Ondorioa argia da: epaile gehienek espetxeari emango diote arrazoa preso guztiak, salbuespenik gabe, garbiketa lan horietan parte hartzera behartuta dauden zentzuan. Kasu gutxi batzutan, JVP batzuek behar hori *lan bortxatutzat* jo daittekeela, eta derrigorrezkotzat ezartzea CEk bere 25.2 art. dioenaren kontra legokeela ulertu dute. Ondorengo dio CE 25.2 art.: “*Las penas privativas de libertad y las medidas de seguridad estarán orientadas hacia la reeducación y reinserción social y no podrán consistir en trabajos forzados*”. Baina kasu gehienetan JVPk kartzelari emango dio arrazoa, salaketa sartzeak ez duelarik pena mereziko.

Garbiketa hori egiteko deitzen badizute eta uko egiten badiozu ere ez da ezer gertatzen. Diziplinazko espedientea irekiko dizute eta azkenean parte bat jarriko dizute, ...

- **H. Jantokia.** Modulu bakoitzean jantoki bat egoten da, gosak-, bazkal- eta afalorduan zabaltzen dena.

- **I. Irratia, telebista eta CDa.** Arau orokorrak, irrati-kasetea, irratia, CD irakurlea edo telebista izan dezakezula dio, baina kartzela bakoitzeko arauetan begiratu beharko duzu beraien ezaugarriei buruz diotena –antena, tamaina, bozgorailuak,...-. Berau lortzeko modua desberdina da lekuaren arabera, espetxe batzutan presondegiaren bidez erosi beharko duzu derrigorrez –bai ekonomatoaren bidez, zein eskari gunearen bidez-, beste kartzela batzutan –gero eta gutxiago,...- familiak ekarri diezazuke.

• **J. Ordenagailua.** Heziketa edo kultura arrazoiengatik **ordenagailu pertsonala** izateko baimena eman diezazuekete (RP 129 art.), nahiz eta horretarako espetxeak exigituko dizun derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu behar izango duzun –hau da, zergatik eta zertarako behar duzun ordenadorea justifikatu, zer ikasiko duzun,...-. Baina ordenagailu pertsonala izatea barne-erregimeneko araudiak dioenera baldintzatuta dago. Orokorrean, presondegitik bertatik baka-rrik lor daitezke, eta eramangarriak (portatilak) izan behar dira; ezin izaten dira disketeak erabili; batzutan ez dizuete ziegan edukitzen utziko, beste batzutan horretara behartuko zaituztete, ... Gaia nahiko konplexua da eta neurri handi batetan norberak gai honi buruz daukan ezagupenaren menpe dago. Era honetan, scannerari, inpresorari,... buruzko irizpide desberdinak aurkituko ditugu. Argi dagoena zera da, gaur egunean behintzat Internet espresuki debekatzen duela RPK, beraz, gaia ezagutzeak ez digu sarrera erraztuko, beti gainjarriko direlako *segurtasun irizpideak*.

• **K. Paketea.** Kanpotik sar diezazuketen paketea da (RP 50 art.). Zurekin komunikatzera doan edonork sartu ahal izango dizu, eta gainera, batzutan, eta kartzelaren arabera, paketea sartzen uzten dizuten egun horretan komunikazioa izan edo ez. Teorikoki pisu neurri bat izaten dute, baina praktika oso konplexua da.

Edukia espetxeak ezarriko du, baina orokorrean sar ezin daitekeena janaria eta kartzelak debekatutzat definitu dituen objektuak dira. 51. art. debekatutako tresnak zeintzuk diren ezartzen du, era generikoan, eta ondoren espetxe bakoitzak zehazten ditu. Normalena pakete hau arropa, liburuak eta abar sartzeko erabiltzea da. Paketeak sartzeaz gain, zuk ere senide edo lagunei behar ez duzuna edo kanpoan utzi nahi duzuna atera ahal izango diezu.

Kanpotik pakete bat sartzeko periodikotasuna duzun bizi erregimenaren araberakoa izango da eta, zehazkiago, erregimen arruntean hilabeteko bi pakete izateko eskubidea izango duzu, espetxeak erabakiko duelarik noiz, zein egun edo aste burutan, edo zein komunikaziotan sartu.

• **L. Gida-baimena.** Gai honek buruko min handiak eman dizkie preso batzuei, ondorioz zerbait aipatzea pentsatu dugularik. Kontua da 1997rarte gida-baimenak, preso egotearen erruz ezin berritu ahal izateagatik, izoztuta geratzen ziren irteten zinenen arte, ondoren hilabeteko epean berritu behar zenuelarik. Baina 1997an legedi aldaketa egin zen eta 1997tik aurrera iraungitzen (balioa galtzen) diren baimen guztiak zaudeten lekuan bertan berritu behar izango dituzuela erabaki zen. Hau da, nongoak zareten ahaztuz, gida-baimena berriztatzeren unean zaudeten probintziako trafikiko zuzendaritzan berritzen dela. Horrela, gida-baimena balio gabetu zaizula jakiten duzunean, gizarte-laguntzaileari jakinarazi beharko diozu jarraitu behar duzun prozedurari buruzko informazioa eman diezazun. Presondegiari egingo diozun berriketa eskaera hau, egizu idatzik argi gelditu dadin eskaera epe barruan bete duzula, aurrerago ziurtatu beharko bagenu proba izateko (beraz, gorde ondo instantzia).

Praktikan zera gertatzen da, gida-baimenaren baliogabetze datan, berriketa eskatzen duzue eta kartzela zera erantzuten dizu, lau urteko epe horren zati handi bat igaro arte edo, beste hitz batzutan, epe hori bukatzeko sei hilabete gelditzen ez diren arte, ezin duzula ezer egin eta orduan eskatzeko. Ondo da, ez da ezer gertatzen, baina kontuan izan zein den data eta une iristen denean eskatu berriro.

Gida-baimena berritzeko azterketa mediku bat pasa beharko duzu, eta proba psikoteknikoak deritzetenak burutu beharko dituzu. Proba hauek probintzia bakoitzeko zentro homologatuetan burutzen dira. Honen aurrean espetxeak bi aukera ditu: berauek burutzeko holako zentro batetara eramatea edo hori burutzeko beharrezko makinak ekartzeko eskatzea. Normalean nahiago izaten dute lehenengo aukera, bigarrena oso garestia baita, kontutan hartuta makinek igaro beharko luketen miaketa eta horrek eragin ditzakeen gaitzak –miaketa burutzean zerbait apurtzeko aukera,...-. Zentro hauetara joateko irteera kartzelak adosten ditu.

Proba psikoteknikoen zein azterketa medikoaren edo gida-baimenaren burutzeak gastu batzuk sortzen ditu, eta noski, zuk ordaindu beharko dituzu.

Kartzela Administrazio Trafikokoekin akordatu ditu gai hauek, beraz, exigitu ahal izango dituzu. Edozein kasutan, dudarik izanez gero, kontsulta egiozu zure konfidantzazko abokatuari.

3.2. BIZI-ERREGIMEN MUGATUA EDO ERREGIMEN ITXIA

Erregimen arrunteko espetxe batetako bizi-baldintza orokorrak LOGP 10. artikulua jasotzen duenaren arabera mugatu daitezke, horretarako presoak modulu itxi batera edo departamentu berezi batetara eramana izango delarik, RP 91.2. edo 91.3. art. ezartzen badiote. Zentro hauen erregimena **presoen ekin-tza komun murrizketan eta presoen gaineko kontrol eta zainketa-ren handitzean** ezaugarritzen da, LOGP 10.3 art. jasotzen duen legez. Erregimen itxian dauden presoen kasuan aplikatzen den legedia LOGP eta RP badira ere, kontutan hartu behar dugu administrazioak gai hauek asko zehaztu dituela zenbait zirkularretan. Bestetzuen artean, eta erregimen itxiari dagokionez, interesgarriak dira **20/96, 21/96 eta 11/99 zirkularrak**.

RPk erregimen itxiaren barruan presoaren bi kokapen posible ezartzen ditu, egokitzen zaion artikulua 91.2 edo 91.3 izatearen arabera. Testualki 91. art. ondorengo azpimarratzen du:

“1. Dentro del régimen cerrado se establecen dos modalidades en el sistema de vida, según los internos sean destinados a Centros o módulos de régimen cerrado o a departamentos especiales.

*2. Serán destinados a **centros o módulos de régimen cerrado** aquellos penados clasificados en primer grado que muestren una manifiesta inadaptación a los regímenes comunes.*

3. Serán destinados a **departamentos especiales** aquellos penados clasificados en primer grado que hayan sido protagonistas o inductores de alteraciones regimentales muy graves, que hayan puesto en peligro la vida o integridad de los funcionarios, Autoridades, otros internos o personas ajenas a la Institución, tanto dentro como fuera de los Establecimientos y en las que se evidencie una peligrosidad extrema.

Beraz, RPK berak egiten duen desberdintasunetik abiatzen gara, hau da, departamentu bereziak (zelularrak edo isolamendu moduluak) erreserbatu erregimen murriztuena aplikatzeko (91.3. art., edo lehenengo graduko A modalitatea, edo lehen graduko *lehenengo fasea*, lehen esaten zen bezala), eta presoak 91.2 artikulupean kokatu (lehenengo graduko B fasea, edo *bigarren fasea*) erregimen itxiko zentro edo moduluetan. Kokapen desberdintasun hori bakoitzari dagozkion programa zehatzak arazorik gabe gara daitezela bultzatzera zuzentze da, guztia RP 93 eta 94 artikuluetan esaten denaren arabera. Baina logika hau ez da praktikan islatzen, eta hainbeste euskal preso politiko dira, 91.2 art. sailkatuta izanda ere, departamentu berezietan kokatuta daudenak. Kasu hauetan gutxienez 94. artikulua modulu itxiko bizimodurako jasotzen dituen bizi-baldintzak errespeta daitezen exigi daiteke.

Edozelan ere, bi modalitateak komunean burutzen diren ekintzen murrizketaz, kontrol eta zainketa handiagoaz, Zuzendaritza Kontseiluak landuko dituen segurtasun, ordenu eta disziplina neurri guztiak betetzeko beharraz ezaugarritzen dira eta erregimen hau beti ziega indibidualetan burutuko dela ezartzen dute. Era berean, garrantzitsua da RP 90. artikulua arabera, “*en ningún caso, el régimen de vida para estos internos podrá establecer limitaciones regimentales iguales o superiores a las fijadas para el régimen de cumplimiento de la sanción de aislamiento en celda*” (baldintza hauek liburu honen 7. atalean aztertuko dira).

Bizi-baldintza modalitate desberdintasuna zertan datzan RPren 93 eta 94. artikuluetan garatzen da, bertan erregimen itxi honen gutxienekoak zehazten dira, desberdintasunak egonik departamentu bereziaz edo modulu itxiaz ari gara.

RPren 91.3. artikulua (edo lehenengo graduko A modalitatea, edo lehen graduko lehenengo fasea) ezartzen zaien presoen egoera, eta definizioz **departamentu berezietan** egongo direnena, **RPren 93. art.** esaten denaren arabera zuzenduko dira:

“1.1. Los internos disfrutarán, **como mínimo**, de tres horas diarias de salida al patio. Este número **podrá ampliarse hasta tres horas más** para la realización de actividades programadas.

1.2. **Diariamente deberá practicarse registro de las celdas y cacheo de los internos.** Cuando existan fundadas sospechas de que el interno posee objetos prohibidos y razones de urgencia exijan una actuación inmediata, podrá recurrirse al desnudo integral por orden motivada del Jefe de Servicios, dando cuenta al Director. Este cacheo se practicará en la forma prevista en el art. 68.

1.3. En las salidas al patio no podrán permanecer, en ningún caso, más de **dos internos** juntos. Este número podrá aumentarse hasta un **máximo de cinco** para la ejecución de actividades programadas.

1.4. Los servicios médicos programarán las visitas periódicas a estos internos, informando al Director sobre su estado de salud.

1.5. El Consejo de Dirección elaborará las **normas de régimen interior** sobre servicios de barbería, duchas, peluquería, economato, distribución de comidas, limpieza de celdas y dependencias comunes, disposición de libros, revistas, periódicos y aparatos de radio y televisión y sobre las ropas y enseres de que podrán disponer los internos en sus celdas.

1.6. Para estos departamentos especiales se diseñará **un modelo de intervención y programas genéricos de tratamiento** ajustados a las necesidades regiminales, que estarán orientados a lograr la progresiva adaptación del interno a la vida en régimen ordinario, así como a la incentivación de aquellos factores positivos de la conducta que puedan servir de aliciente para la reintegración y reinserción social del interno, designándose el personal necesario a tal fin.

2. Las **normas de régimen interior** elaboradas por el Consejo de Dirección, así como los **programas** a que hace referencia el apartado anterior, serán remitidas al Centro Directivo para su modificación o aprobación.”

Bestalde, **RPren 91.2 art.** (edo lehenengo graduko B modalitatea, edo lehenengo graduko bigarren fasea) ezarriko zaizkien presoen bizi baldintzak eta, definizioz, **modulu edo zentro itxietan** egongo direnenak **RPren 94. art.** esandakoaren arabera zuzenduko dira, zeinetan zera azpimarratzen den:

“1. Los internos disfrutarán, **como mínimo, de cuatro horas diarias** de vida en común. Este horario **podrá aumentarse hasta tres horas** más para la realización de actividades previamente programadas.

2. El número de internos que, de forma conjunta, podrán realizar actividades en grupo, será establecido por el Consejo de Dirección, previo informe de la Junta de Tratamiento, con **un mínimo de cinco internos**.

3. **La Junta de Tratamiento programará detalladamente** las distintas actividades culturales, deportivas, recreativas o formativas, laborales u ocupacionales que se someterán a la aprobación del Consejo de Dirección. Estos programas se remitirán al Centro Directivo para su autorización y seguimiento”.

Azter dezagun gairik gai zertan zehazten diren murrizketa hauek.

3.2.1. Patio orduak.

Araudiak egunero beste presoekin batera burutu beharreko GUTXIENAKO ordu kopurua ezartzen du. Ordu hauek EZ DIRA EKINTZEI DAGOZKIE-NAK, eskera guneari, ekonomatoari, telefonozko deiei eta paseo edo beste pertsonekin egoteari dagozkionak baizik. Gainera gutxieneko denbora bat ezartzen

da (3 edo 4 ordu, modalitatearen arabera). Era berean 91.3 artikulua ezin izango dutela inoiz bi preso baino gehiagok irten ezartzen du, baina *maximo-minimo* batez ari da, zeren bi irteten ez bazarete bakarrik irten beharko zenuke, modu honetan erregimen hau isolatze- zigorraren baldintzekin alderatuko litzateke, esan bezala, debekatuta dagoelarik. 91.2 artikulua duten presoek kasuan ez da maximorik zehazten, baina bai bosteko gutxienekoa, gutxieneko hori betearazi behar dugularik.

Patioaren gaiari dagokionez, departamentu berezien patioetan burdinsarea edo metalezko sarea duten presondegiak badaudela ohartarazi behar dugu, kaio-la antzeko bat sortuz. Patio hauek egunero bertan bizitzeko ezgizatiartzat eta desegokitzat jo dituzte JVPek. Beraz, mota honetako egoera batetan bazaude, ez ahaztu kexa aurkez dezakezula JVPra.

3.2.2. Programatutako ekintzak.

Erregimen itxian dauden presoek ekintza komunak murriztuta dituzte, baina horrek ez du esan nahi horietan parte hartzeko eskubiderik ez dutenik. RPren *zergatien azalpenean* RP berriak ezarri nahi duen filosofia berriak erregimen itxiko presoentzako mota honetako programatutako ekintzen aipamen berezia egiten duela dio, hurrengo adieraziz: *“En cualquier caso, en ambas modalidades de vida se realizan actividades programadas para atender las necesidades de tratamiento e incentivar su adaptación al régimen ordinario, y sus limitaciones regimentales son menos severas que las fijadas para el régimen de cumplimiento de la sanción de aislamiento en celda, por entenderse que el régimen cerrado, aunque contribuye al mantenimiento de la seguridad y del buen orden regimental, no tiene naturaleza sancionadora, sino que se fundamenta en razones de clasificación penitenciaria en primer grado.”*

Horregatik, jardunei buruzko programazio zehatza exigitu behar da, gutxieneko patio orduetatik KANPO burutu beharko delarik. Era honetan, gutxieneko ordutegia hiru ordutara luzatu beharko da, bai RP 91.2 zein 91.3 artikuluetan sailkatutakoentzat. Ordu hauek kultur, kirol, aisialdi edo heziketa, okupazional zein lanbide ekintzetan pasako dira, Zuzendaritza Kontseiluak programa zehatzean onartu beharko dituelarik, nahiz eta Zuzendaritza Zentrorra (“Centro Directivo”ra) bidali beharko diren onartuak izan daitezen.

3.2.3. Arropa eta norberaren gauzak.

RPk (91.1.5 art.) 91.3-a ezarri zaien presoek ziegan dituzten ondasun pertsonalen murrizketa burutzeko aukera jasotzen du, baina, alderantziz, **21/96 zirkularrak** murrizketa hau bi erregimen itxientzako ezartzen du. Ondorioz, bere B.I A) eta B) 6. puntuetan zera dio: *“Sólo tendrán en su celda la ropa y enseres mínimos necesarios para su uso diario, depositándose el resto en el almacén del Departamento, y entregándose recibo al interno de la ropa, enseres u objetos retenidos. Se establecerán días y horas para su cambio, coincidiendo con la salida del interno al patio, y tras un minucioso cacheo de lo entregado y recogido. Podrán, así mismo, tener 2 libros de lectura, 2 revistas y/o periódicos y, los que cursen estudios, podrán disponer de libros*

y material didáctico necesario.” Murrizketa hauek, aplikatzen diren eraren arabera, gehiegizkotzat jo dituzte JVP batzuk, beraz, ez ezazu alderatu JVPn kexa edo salaketa jartzearen aukera.

21/96 zirkularrean ezarritakoaren arabera, garbiketa zerbitzua ere asterokoa izango da, modalitateen araberako desberdintasunik gabe.

3.2.4. Miaketa eta kontaktak.

Kontrol eta zainketa zorrotzagoa zehazki aztertzen da **21/96 zirkularrean**, bertan zera esaten da bi modalitateei dagokienez:

- *“Los internos serán cacheados, tanto a la entrada como a la salida de sus respectivas celdas, y éstas requisadas y cacheadas”* ziega miaketa hau egunero burutuko dela (RP 91.3) edo puntuala izango dela (RP 91.2) zehaztuz. Miaketa hauek burutzeko erari dagokionez, erregimen arrunt orokorrari buruz esandakoak balio du (3.1.5. atala). Gogoratu, beraz, biluzte osoa ez ohiko zerbait izan behar dela, debekatutako objektuak dituzunaren ondo oinarritutako susmoak egon beharko direla eta, nahiz eta premiazko arrazoiek berehalako jokaera exigitzen duten, **beharrezkoa da** Zerbitzuburuaren ordenu eraginkor bat, aldi berean Zuzendariari jakinarazi beharko diona. Kasu honetan ere bata bat exigitu behar duzu eta, printzipioz, tresna elektronikoei (metal detektagailu arkuak edo erraketa) eman behar zaiela preferentzia jakin behar duzu. Ziegaren miaketari dagokionez, gogora ezazu burutzen den bitartean presente egotea exigitu behar duzula.
- *“Cuando los internos se encuentren en sus respectivas celdas –salvo en las horas de descanso nocturno–, éstos se colocarán al fondo de las mismas con las manos visibles cada vez que el Funcionario haga acto de presencia”.* Puntu honek erregimen arrunterako ezarritakoa ere zuzentzen duela jakin behar duzu, JVP askok neurri hau gehiegizkoa dela eta, presoak funtzionariak ondo dagoela ikus dezan moduko postura mantentzearekin kontaktaren helburua lortzen dela ulertu dute. Horrexegatik, neurrigabekoa iruditzen bazaizu kontaktak egiteko modua, errekurritu JVPra.

3.2.5. Leihoetako metalezko xaflak.

Gogora ezazu erregimen arruntari buruzko atalean azpimarratu duguna. Gai hau JVPn aurkeztu ahal izateko LOGP 19.2 (*“deberán satisfacer las necesidades ... y estar acondicionadas de manera que ... ventilación ... alumbrado...”*), RP 14.1 art. (*“Las celdas deben contar con el espacio, luz, ventilación natural y mobiliario suficientes para hacerlos habitables”*) eta atxilotuan tratamendurako Gutxieneko Arauen Multzoari buruzko Europako Kontseiluko Ministroen Komitearen (73)5 Erresoluzioaren 10. (*“En cualquier local en el que tengan que vivir o trabajar los detenidos, a) Las ventanas tienen que ser suficientemente grandes para que el detenido pueda leer u trabajar con la luz del día.”*) artikuluek esaten dutenean oinarritu beharko duzu.

3.2.6. Paketea.

RP 50. art. erregimen itxian sailkatutakoek hilabetean pakete BAKARRA jaso ahal izango dutela dio. Eduki eta entregaren moduari dagokionez, ez dago desberdintasunik erregimen arruntarekin.

3.2.7. Jatorduak.

Ordutegi murriztua izatean, eguneroko hiru otorduak –gosaria, bazkaria eta afaria- ziegaren burutuko dira. Banaketa ziegari ziega egingo da, bandeja-pasua- ren bidez, segurtasun atea ireki gabe. Horregatik, janariak, ziegara sartzerakoan ezer ukitzen ez duela kontrolatu beharko duzu, horrela ez bada, higiene eta osasun arazoia argudiatuz, JVPri kexa luzatzeko. Kasu askotan kexak janaria hoztu- ta ematen dutelako egiten dira, hau ere noski, kexarako arazoia delarik.

3.2.8. Bizartegia eta ile-apaindegi zerbitzua.

Aipatu dugun **21/96 zirkularrak** modalitatearen araberako aukera desberdinak aurkezten ditu. 91.3 art., departamentu berezietan dauden presoek beren ziegaren bizartea mozteko tresna elektrikoaren pieza bat izango dutela, makinaren gorpua funtzionari batek emango diolarik bizartea moztu nahi duenean, behin bukatuta berriro ere funtzionariari bueltatu beharko diolarik. Aldiz, 91.2 art. ezarria zaien presoek erabili eta botatzeko bizartea mozteko tresna eskatu beharko dute behar dutenean, behin bizartea moztuta bueltatu beharko dutelarik suntsitua izan dadin.

Ile-apaindegi zerbitzuari dagokionez, 91.3 art. ko departamentu berezietan presoak bere ziegaren bertan erabiliko dute zerbitzu hau funtzionari baten presentzian, itxita egongo den segurtasun burdin langa atzean kokatuko delarik. Kasu honetan, kartzela batzutan, ziega kanpotik eta segurtasun atea itxirik dagoela moztzen zaie ilea presoei, neurriak gehiegizkoa dirudielarik eta JVPri errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaiolarik. Bestalde, 91.2 art. presoek ile-apaindegia izateko prestatu den lekura joan ahal izango dute, presoak berak aurretik eskatuz.

3.2.9. Garbiketa-tresnak.

21/96 zirkularrak garbiketa-tresnak ziegaren edukitzeko aukera ere murrizten du. Zentzu honetan zera dio: *“los útiles y productos de limpieza serán depositados en dependencia al efecto, bajo control del Funcionario”*, eta guzti hau erregimen itxiko bi modalitateen arteko desberdintasunik egin gabe. Praktikan honek zera suposatzen du, egunean behin edo birritan erratza, lanbasa eta ontzia utziko dizkizute, lixiba pastila batekin batera, ziega garbitu dezazun, ondoren gauza guztiak atera beharko dituzu.

4

BIZIMODUA KANPOALDEKO KOMUNIKAZIOAK

Espetxean nola bizi zaren ikusi dugu dagoeneko. Hala ere, hori bezain garrantzitsua edota are garrantzitsuagoa den gartzelako bizimoduaren beste arlo bat dago: kanpoaldearekiko harremanak. Zerbait argi dago: RPren filosofia berriaren oinarritzko ardatzen bat barneratuek (“internos”) kanpoaldearekiko harreman sendo bat izatean datza. Hori dela eta, aldaketak nabariak dira aurreko RPrekin erkatuz.

4.1. KONTZEPTU OROKORRAK.

Komunikazio hauek zer motakoak edo nolakoak diren aztertu aurretik, guztientzako aspektu orokor batzuk errepasatuko ditugu.

4.1.1. Komunikatu ahal izango duzun pertsonak:

Senitartekoak, emazte/senarrak edo bizikideak, lagunak edo ahaideak eta abokatuak (zein beste profesional motak). Berez, agirien bidez senidetasuna egiazta dezaketen orok **senitartekoak** dira. Bizikideek, bizikidetzako ziurtagiria aurkeztu behar dute (erroldatze-ziurtagiri hutsa ez izaten saiatu, agiria berdina eta instituzio igorlea bera izan arren), familia liburuak duen baliotasun bera du honek ere.

Espetxe bakoitzak arautzen du zer den senidetasuna, nondik nora doan kategoria hori, beraz, bidaia egin aurretik, lehengusu-lehengusinak, adibidez, seni-deak diren galdetzea komenigarria da. Espetxe batzuetan trabak jarriko dizkigute, besteetan, aldiz, ez. Eta hauetan ere, beti justifikatu behar dugu senidetasuna familia liburu guztiekin.

Zaila den gai bat. **Harreman sentimental berri bat** espetxean egonda hasi nahi ezker, bai aurretik bisitak egiten zituen personarekin apurtu duzulako bai harremana hasi nahi duzulako, ziurraski arazoak izango dituzu. Kasu hauetan EZ duzu bizikidetzako ziurtagiri berririk aurkeztu behar, espetxeak hala eskatu ere, argi dago faltsuak direla orain hasiko den harremana baita, behin espetxean egonda, eta beraz, ez dago agirien bidez egiztatu daitekeen aurreko bizikidetasunik.

Hortaz, lehenik eta behin, espetxeari harreman sentimental “serio” bat hasi nahi duzula jakinarazi behar diozu eta horretarako, instantzia bidez, pertsona horrekin ahozko komunikazioak, komunikazio bereziak edo telefonozkoak eskatu behar dituzu eta, aldi berean, berarekin etengabeko idatzizko harremana mantendu. Komunikazioak kontrolatuak baldin badituzu, harreman berri hori egiaztatzeko erabil ditzakezu, gartzelak harreman afektiboa dagoela ondo baino hobeto dakiela argudiatuz, izan ere, bidaltzen eta jasotzen dituzun gutun guztiak irakurtzen baitituzte.

24/96 zikularrak adierazten du: *“Con carácter general, no se concederán comunicaciones íntimas a los internos con personas que no puedan acreditar documentalmente la relación de afectividad o que hayan celebrado otras con anterioridad con persona distinta a la solicitada, en cuyo caso será necesario que exista, al menos, una relación de estabilidad de 6 meses de duración.”* Espetxe-Zaintzako Epaitegiek (JVP) epe hau onartu dute eta, batzuek hiru hilabetekoa ere onartzen dute, beraz, espetxeak ez badizu ematen komunikaziorik bizikidetzara egiztatzeke dagoela argudiatuz, JVPra jo.

4.1.2. Komunikazioen interbentzioa, murrizketa edo etendura.

Komunikazioak mugatzeko hiru era daude:

. **Interbentzioa.** *Segurtasun* neurriak direla eta, komunikazio idatzia zein ahozkoak kontrola diezazkizukete. **Mintzalekuan zein telefonoz esandako guztia entzungo dute eta idatzi edo jasotako guztia irakurriko dute.** Hori da, hain zuzen, komunikazio-interbentzioak esan nahi duena. Horrek ez du esan nahi ofizialki komunikazio kontrolatuak ez dituzunean ez dutela egingo. Batek daki. Ezberdintasuna haien baliogarritasunean datza, hau da, ez badago interbentzioa agintzen duen erabakirik, ilegala da eta, beraz, ez du ezertarako balio. Baina ez pentsa ez dizutelako esan ez direla grabatzen ari. **Komunikazio-interbentzioko erabakia arrazoitua, banakakoa, denboran mugatua eta epailearen berrespenarekin izan behar da.** Normalean argudio generikoak

erabiltzen dituzte, talde armatuetako kide izatearen modukoak –ustezko kidetza barne, prebentziozko espetxeratua bazara-. Akordio hauen kontra helegitea jar dezakezu. Normalean sei hilabetero errebisatuko dira, baina Auzitegi Konstituzionalak 200/1997 epaian zera esan zuen: “*El dato de la pertenencia a una concreta organización de la que consta que ha atentado reiteradamente contra la seguridad de las prisiones y contra la vida y la libertad de sus funcionarios supone, en este caso, una individualización suficiente de las circunstancias que justifican la medida, ya que se conoce suficientemente el rasgo concreto de esta organización que, en efecto, puede poner en peligro la seguridad y el buen orden del Centro*”. Komunikazio-interbentzioen gaia gero eta konplexuagoa da eta, hortaz, kontra egitea gero eta zailagoa. Zure komunikazioak kontrolatzen badituzte, JVPk arrazoia eman diezazula ere gero eta zailagoa da. Gainera, irabazi ezker, arrazoi konkretu batengatik edota formazko akatsen batengatik, interbentzio-akordio berri bat hartu dezakete, *arrazoi ezberdinengatik*, eta berriro hasi...

. **Murrizketa.** Interbentzio-akordioarekin batera murrizketa-akordioa ere eman diezazukete. Astero idatz ditzakezun gutunen gehieneko kopurua jarriko dizute. Normalean astero bi gutuneko da, RP 46.I artikulua arabera. Baina jakin dezazun artikulua honek bi *gutxienez* ezartzen duela, beraz, JVPra jo dezakezu kopuru hori handitu dezaten. Izan ere, zenbait JVPk eta Probintzia Auzitegi murrizketarik ez zela egon behar aintzakotzat hartu dute, ez bidaltzeko ezta jasotzeko ere.

. **Etendura.** RP 44 art.aren arabera hasitako komunikazioa zein hasi beharrekoa eten daiteke une horretan bertan. Ondoren, zurraski, 2 edo 3 hilabete luzatuko dela adieraziko dizute, gertatutakoaren larritasunaren arabera. Etendurarako arrazoi ezberdinak egon daitezke: delitua prestatzen ari dela uste dutelako, espetxearen segurtasunaren edo ordenaren kontrako delako edo zure jarra ez delako egokia une horretan. Funtzionarioaren esku dago. Etendura luzatuko da, baina “arazoa” sortu duten pertsonekin soilik, besteekin normal komunikatu dezakezu. Beranduago azalduko dugunez, komunikazio berezietara joaten diren pertsonak ezin dute ezer eraman. Hori dela eta, sartu aurretik egiten duten araketa debekatuta dagoen zerbait aurkitzen badute, bisita bertan bera geratuko da eta, zurraski, zentzura sartzeko baimena kenduko diote epe jakin batean. Epe hori gehiegizkoa iruditzen bazaizu, JVPra jo.

4.2. AHOZKO KOMUNIKAZIOAK (LOGP 51.I art. eta RP 42tik 44ra art.).

Mintzaleku normaletan egiten diren bisitak, “**kristalarekin**” egiten direnak. Normalean, larunbat eta igandeetan egiten dira, baina lekua edo denbora arazoak direla medio ostiralera luza daitezke. RPK astero 20 minutuko bi bisita ezartzen du baina espetxe gehienetan 40 minutuko bakarra izango duzu. Komunikazioa

tzera joango direnek astean zehar telefonoz deitu behar dute bisita hitzartzeko, aurretiko zitak eskatzeko sistema baten bitartez. Berandu heldu eta hitzartutako txanda galdu ezkerok, bisita egin dezakezu hurrengo txandetan libre geratzen diren mintzalekuetan. Aurretiko zita gabe lagun edo senitartekoren bat agertzen bada komunika dezake lekua baldin badago. Hala ere, gomendagarria da bisita alde zurririk ziurtatzea, bestela funtzionarien esku egongo zara.

Zentroak ezarritako komunikazio ordutegia errespetatu behar duzu, baina baten bat ezin bada joan ordutegi horretan bisita egunean –lanagatik, adibidez- ordutegi aldaketa eska dezakezu, beti ezintasuna justifikatuz, noski. Horretarako baimena zuzendariak eman beharko du. Bisita bakoitzera lau pertsona joan daitezke, alde zurririk baimena duten lagun edo senideak.

Senitartekoentzat ez duzu baimenik eskatu behar baina lagunentzako bai. Zuzendariari eskatu beharko diozu, pertsonaren izena eta NAN zenbakia dituen instantzia baten bidez. Lagunen bisitarako eskaerak Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari (DGIP) bidaltzen zaizkio, honek erantzun dezan. Hori dela eta, askotan erantzuna bi hilabete beranduago heltzen da (batzuetan beranduago ere). Ez badi-zute erantzuten edo gehiegi luzatzen bada, JVPra jo.

Lagun baten bisita ukatzen baldin badizute, *segurtasun neurriak* direlako izango da. Zure ustez eskubide hau ukatzeko arrazoi nahikorik ez badago, JVPra jo behar duzu. Dena den, gero eta JVP gehiagok onartzen dute arrazoi moduan laguna *preso ohia* izatea, prebentziozko espetxean egon izana gero absolbitua izan arren, zinegotziak izatea, “*del entorno*” edo MLNVkoak izatea. Argi dago “*entorno*” delakoaren teoriagatik senitarteko ez diren pertsonekin bisitak murrizten ari direla. Eta, JVPra jotzea gero eta zailagoa da, ...

Mintzalekuek gutxienezko baldintza batzuk bete eta entzutea bermatu behar dute, ... Arazoak badaude –kabinetan aterik ez, kabinen arteko distantzia gutxi, eta abar- JVPra jo.

4.3. KOMUNIKAZIO BEREZIAK (LOGP 53 art. eta RP 45 art.)

Vis a vis deiturikoak dira, kristalik gabeko gelatan egindakoak, komunikatuko duzun pertsonekin kontaktu zuzena izango duzu. Komunikazio hori ezin da kontrolatu eta, horregatik, komunikatuko duzuen guztiok jasan beharreko segurtasun neurriak mintzalekuetarakoak baino gogorragoak izango dira.

Zu bisitatzen datozenak detektagailupetik pasako dira, baina funtzionariak debekatutako zerbait sartzen ari dela uste badu, raketarekin araka dezake senidea, baita biluzik geratzeko exigitu ere –gogoratu, baina, honen inguruan esana duguna: uko egin dieziola-. Presoari dagokionez, preso bera zein bisitara eramango dituen gauzak arakatuko dituzte. Beraz, arakatzeko pertsonalei buruz esandakoa kontuan izan.

Komunikatzen ari direnen intimitatea errespetatu behar da guztiz.

Komunikazio bereziak hiru motakoak dira:

4.3.1. Komunikazio intimoa.

Hilean behin gutxienez, bizikidearekin komunikazio intimoa izateko eskubidea duzu. Behar den bezalako gela batean izango da. Gutxienerako iraupena ordu batekoa da eta gehienekoa hirukoa.

4.3.2. Senitartekoekin komunikazioa.

Senideekin edo ahaide/lagunekin gutxienez vis bat hilean izateko eskubidea duzu. Komunikazio hauek gutxienez ordu batez eta gehienez hiru orduz iraungo dute. Bizikidea ez baduzu eta vis intimoa ez baduzu egiten, senitartekoekin beste bat eska dezakezu. Ukatzen badizute, JVPn helegitea jar dezakezu, RP 45.5 art.-ak hitzez hitz ezartzen baitu posibilitate hori. Arazoa bakoitzak *ahaide* (“allegado”) hitza nola ulertzen duen moduan datza. *Ahaide* “lagun mina” gisan ulertzearen aldeko epai asko daude. Bisitak askotan egiten dituen eta idatzizko harreman arina mantentzen duena, alegia. Beraz, lagun batekin komunikazio berezirako baimena eskatu nahi izan ezker bisita gehien egin dutenekin eskatu -ahaidetasuna ondo baino hobeto frogatu dute eta-. Ez egin eskaera zerrenda luze baten bidez inolaz ere, banan banan eta ondo argudiatuz eskatu, “bloke”-ka ezetz erantzuteko biderik ez dezaten.

Salbuespen gisa, beste komunikazio berezi bat eman diezazukete ondo justifikatutako arrazoiengatik edo sari moduan.

4.3.3. Bizikidetasun komunikazioa.

Hirugarren mota hau bikotekidearekin eta 10 urte baino gutxiago duten seme-alabekin harremana sendotzeko da. Gutxienezko aldizkakotasuna hiru hilabetekoa izango da eta iraupena lau ordu baino gehiagokoa izan behar da. Salbuespenak salbuespen, gehienez sei pertsona joan daitezke bisitara.

Komunikazioak, horretarako egokiak diren lekuetan egingo dira. Leku horiek baldintza batzuk bete behar dituzte (altzariak, janari, freskagarri eta kafe makinak baita txirrista eta zabu moduko umeentzako jolasak ere).

Artikulu honen ezarpena ez da baketsua izaten ari, praktikak erakusten digunez. RP 45.6 art. hitzez hitz adierazten du: “*Se concederán previa solicitud del interesado, visitas de convivencia a los internos con su cónyuge o persona ligada por semejante relación de afectividad e hijos que no superen los diez años de edad.*” Hala ere, zenbait epai egon da horri buruz, eta kriterio ezberdinak agertu dira urteetan zehar.

Dena den, jakin dezazun 10 urte baino gutxiago duten seme-alabarik ez egon arren bizikidetzako komunikazioak lortu direla, 10 urte baino helduago diren

seme-alabekin egin direla eta hilero egitea edo sei ordukoak izatea lortu dela. Beraz, zauden espetxean zer kriterio dagoen jakin behar duzu eta, ados ez baldin bazaude, JVPra jo.

4.4 KOMUNIKAZIO IDATZIAK (LOGP 51.1 art. eta RP 46 art.).

Posta duzu kanpoaldearekin komunikatzeko beste era. Berez ez zenuke arazorik izan behar gutunak jaso eta bidaltzeko, baina *segurtasun neurriak* direla eta gai zehatz batzuekin arazoak izan ditzakezu.

Demagun ez duzula komunikazio interbentziorik. Igorlea jartzea oso garrantzitsua da beti, bidaltzen dituzun zein jasotzen dituzun gutunetan. Gutunazalak, itxita emango dituzu, eta jasotako posta zure aurrean irekiko dute. Horrela, barrukoa irakurri gabe, zerbait debekatuta ez dagoela begiratu dezakete. Bolumena edo tamainagatik arazoak izan ditzakezu. Gutunazal ezberdinetan bidaltzen saiatu, arazo hau ekiditeko.

Gutun zehatz bat hartzaileari edo zuri heltzeko interes berezia baduzu, **posta ziurtatua** erabili, gutunaren jarraipena egiteko eta galtze zein atzerapearen erantzulea identifikatzeko modu bakarra baita. Askotan postaren arazoa edo espetxearen arazoa izan den zalantza izango duzu baina, posta ziurtatua denez, batak zein besteak gutunaren egoeraz eta helmugaz erantzuna eman behar dute. Normalean, gutun arruntak ez dira liburu batetan apuntatzen; ziurtatuak, aldiz, beti.

Telegramak eta burofaxak ere bidal ditzakezu. Azken hau telegrama baino askoz merkeagoa da, bidalitako folio kopurua ordaintzen baita eta ez idatzitako hitz kopurua, ondorioz askoz merkeagoa delarik.

Prentsa eta liburuak jaso ditzakezu, baina, berriz ere, *segurtasun neurriak* direla, liburuak errazago helduko zaizkizu paketean heltzen badira postaz igorririk baino.

Posta **kontrolatu –interbenitu- eta/edo murriztu** diezazukete (LOGP 51.5 art. eta RP 46.5. art.). Neurri hauek baina, epailearen kontrolpean egon behar dira (preso prebentiboa bazara, zu espetxeratzea agindu zuen epaitegiaren kontrolpean; kondenatua bazara, JVPren kontrolpean), izan ere, oinarrizko eskubide bat (intimitate eskubidea) mugatzen baitute. Kontrola murrizketarekin batera etor daiteke.

Kontrola –interbentzioa- eta/edo murrizketa zuzendariaren akordio arrazoitu bidez izan behar da, eta dagokion epaitegiari jakinarazi behar zaio berehala.

Kontrola ezarri ondoren, bidalitako zein idatzitako gutun guztiak irakurriko dituzte, bai euskarazkoak bai erdarazkoak. Horretarako, Zuzendaritza Zentroa (“Centro Directivo”) bidaliko dute gutunaren kopia, eta horrek denbora luzea

hartzen du. Atzerapen hau neurrikoa izan behar da, postaren kontrola ziurtatu behar da, baina presoaren kanpoaldearekin komunikatzeko eskubidea ere. Beraz, zuk zeuk baloratu behar duzu luzeegia den ala ez, eta JVPra jo behar duzun ala ez. **21/96 zirkularraren** arabera, Zuzendaritza Zentroak espetxeari 15 eguneko epean kontrakoa esan ezean, gutunak entregatuko zaizkizu.

4.5. KOMUNIKAZIO TELEFONIKOAK (LOGP 51.4 art. eta RP 47 art.)

Komunikazioen gaiarekin bukatzeko, jakin dezazun astero bost aldiz gehie-
nez, lagun edo senitartekoak telefonoz deitzeko eskubidea duzula (RP 47.7 art.).
Deia zuk ordaindutakoa, bost minutukoa askoz jota eta funtzionariaren aurrean
izango da.

Horrela, RPK ahalbidetzen du zuzendariak deiak egiteko baimena eman
dezan senideak urrun bizi badira, bisitara ezin badira joan edo espetxeratuak
zerbait garrantzitsu esan behar badie senitartekoei, abokatuari edo beste per-
tsonei.

RPk astero bost dei onartzen badu ere, maximo hau ez da ezartzen espe-
txe guztietan. **24/96 zirkularraren** arabera “*el número de llamadas que podrá auto-
rizarise no será nunca inferior al número mínimo de las orales*”. Hori dela eta, gutxienez
astero bi dei eman beharko dizkizute eta bost izatera hel daiteke kopurua.

Zenbait espetxetan ez dituzte kriterio hauek ezartzen ere, eta soilik mint-
zalekuetan ez baduzu komunikatzen emango dizute deia, edo hilean bi besterik ez
egiteko baimena emango dizute. Ulertze arazoa da. JVPra jo.

Ez ahaztu espetxe batera lehenengo aldiz heldutakoan, abokatuari edo
familiari abisatzeko eskubidea duzula (PE 41.3 art. eta 47.4 art.). Kasu honetan
deia espetxeak ordainduko du.

Dei hauek euskaraz egin ditzakezu eta horrela ez bada, kexa jarri JVPan.

Telefono deiak ere kontrolatuak izan daitezke. Ahozko eta idatzizko komu-
nikazioen kontrolaren berri ematen dizutenean kontuan hartu telefonoz eginda-
koak ahozkoen barruan sartzen direla. Horretarako zintan grabatuko dituzte,
mintzalekuetan egiten direnekin gertatzen den bezala, eta gero Zuzendaritza
Zentrora bidaliko dituzte, itzulpena egiteko.

4.6. ESPETXEEN ARTEKO ZEIN BARNE KOMUNIKAZIOAK.

Familia bereko bi kide (aita, ama, seme-alabak, anai-arrebak, bikotekideak,
...) gartzelan dauden eta elkarrekin komunikatu nahi duten kasuetan. Horretara-
ko, lehenik eta behin, senidetasuna egiaztatu behar da agirien bidez (familia libu-
ruak, bizikidetzako ziurtagiriak).

Behin harremana egiaztatuz gero, hasieratik komunikazio erregimen orokorra osorik eska diezaiokezu, edo pixkanaka, aukerak nola ikusten dituzun, bai espetxeari bai JVPri. Aukeratutako bidez aparte, eskubide hauek dituzu:

- **telefono deiak** egin ditzakezu eta kopuru orokorrean barne sartuko dira. Espetxe bietako zuzendariak baimena eman behar dute horretarako. Espetxe batzuetan deiak jaso daitezke bakarrik, ez egin, edo aldrebes. Horrela bada, JVPra jo arazoa konpon dezaten.
- **gutunak** idatz ditzakezu. Frankeoa ez duzu ordaindu behar. Idatz komunikazioen murrizketa izan ezker, kopuruaren barruan sartuko dira ere. Bide hau erabil dezakezu ere espetxe berean baina modulu ezberdinetan baldin bazaudete.
- mintzalekuetan **ahozko komunikazioak** izateko eskubide duzu. Normalean astean zehar egingo dira, eta ez dira zenbatzen kopuru orokorren barruan. Beraz, astero barruan dagoen senitartekoarekin eta kanpoko bisitarekin komunikatu dezakezu. Interbentzio kasuan, hauek ere grabatuak eta kontrolatuak izango dira.
- **komunikazio berezien** erregimen arruntaren barruan izan zaitezke: intimoa, senitartekoekin eta bizikidetzakoa. 4.2. atalean azaldutako arauak balioa dute hauetarako ere, baina jakin behar duzu bizikidetzakoak eta senitartekoekin egindakoak, preso dagoen senidearekin batera ala bera gabe egin ditzakezula. Beraz, familiarekin zuk bakarrik komunikatu dezakezu, edo senide presoarekin aldi berean. Komunikazio hauek nola zenbatzen dituzten begiratu, e nori deskontatzen dioten: zuri, zure senitartekoari edo bie. Komunikazioak galtzen ari zaretela pentsatzen baduzu, JVPra jo. Seme-alabarik gabeko bizikidetzakoa komunikazio bereziak badituzu, bikote- presoarekin egin ditzakezu eta seme-alabekin edo gabe, nahi duzuen moduan.

Hau, jakina, posiblea izango da espetxe berean baldin bazaudete. Beraz, espetxe berean egotea lortu beharreko lehenengo gauza da.

Auzitegi Konstituzionalaren - TCren- Bigarren Epaimahaiak, 2001. urriaren 1ean emandako epaian honakoa esan zuen:

*“El derecho a comunicarse no puede depender de la Administración ni de la suerte, y si la ejecución de la visita conlleva un traslado dentro de la misma comunidad, ha de procederse a éste, llevando al peticionario junto a su pareja, o bien al revés, **correspondiendo a la Administración Penitenciaria establecer la fórmula menos costosa, más segura o más recomendable.** La argumentación precedente condujo en uno y otro supuesto a estimar el recurso de apelación promovido por los peticionarios de la solicitud, imponiendo a la Administración Penitenciaria el deber de realizar lo conducente para que la visita tuviera lugar.”*

Interesatzen zaizkizun komunikazio guztiak eskatu behar izango dituzu, komunikazio orokor guztiak izateko eskubidea duzula jakinda, beste pertsona espetxean dagoela eta horregatik Zuzendaritza Zentroari eskatzen diozula komu-

nikazioak ahalbidetzeko behar diren gestioak egin ditzan adieraziz. Erantzuten ez badizute edo bisita ukatzen badizute, JVPra jo.

4.7. ABOKATUAREKIN KOMUNIKAZIOAK (LOGP 51.2 art. eta RP 48 art)

Abokatuarekin telefonoz, idatziz eta mintzalekuetan izan ditzakezu komunikazioak. Komunikazio hauek kontrolatzeko edo eteteko epailearen baimen zuzena behar dute. Batzuetan espetxeak trabak jartzen ditu idatzizkoetan, “... ez dakit gutuna bidaltzen duena benetan zure abokatu den ala ez ...” esanez. Hori ekiditeko, zentroan jakin behar dute zeintzuk diren zure abokatuak. Haiekin kontaktuan jarri eta eurek emango dizkizute behar diren dokumentuak hori egiaztatzeko.

Abokatuarekin egindako ahozko komunikazioak horretarako bereziki prestatutako mintzalekuetan izango dira. Denbora mugatua ez bada ere, abokatuak zentroak ezarritako ordutegia errespetatu behar du.

Abokatuari idatzi edo bere gutunak jaso ditzakezu. Beste komunikazioak kontrolatuak izan ditzakezu, baina abokatuarena ez dute irekiko, izena edo helbidea zure espedientearen agertzen denarekin bat ez badator bederen (RP 47.1.b art.). Gutun hauek ezin direnez kontrolatuak izan, ezin dituztenez irakurri, kanpoan behar den epe normalean heldu behar dira.

Bukatzeko, ofiziozko edo konfidantzazko abokatuarekin telefonoz deitu dezakezu (RP 47.1.b art.), bai zerbait bideratzeko, bai aholkua eman diezazun, helegitea jartzeko epea duen zerbait edo errekurritu daitekeen administrazio aldaketaren baten berri ematen badizute edota diziplinako espedienteak irekitzen badizute. Espetxeko administrazioak ezin ditu deiak kontrolatu eta ez dute denbora mugarik. Dena den, normalean arazoak izango dituzu luze aritzeko. Beraz, zure defentsa eskubidea urratzen ari dela uste baduzu, JVPn kexa jarri.

5

FUNTZIONARIAK ETA ESPETXE-ORGANOAK

Espetxearen barruan, ardura zehatzak hartzeko, pertsonak eta egiturak daude, eta hauxe da jarraian aztertuko duguna. Eta, lehenik eta behin, pertsonekin hasiko gara, euren arteko begi bistako bereizketa bat askotan agertuko delarik: uniformedunak eta uniformerik gabeak.

Lehenago komentatzen genuen legedia aldatu dela, eta lehengo RP eta gaurko RPren artean ezberdintasunak badaudela. Aldaketa hauek gora behera, eta legeak berak horrela onarturik, aurreko RPren hainbat organok eta ideiak bizirik diraute.

5.1. FUNTZIONARIAK.

Espetxearen barnean zaintza egin behar duten funtzionarietaz ari gara eta, oro har, uniformeak eramatean dute jantzita. Hierarkia bat dago euren artean eta, norberak duen karguaren arabera, zaintza egiteaz gain, bestelako ardurak eta erantzukizunak hartzen dituzte ere. Beraz, badago egon **oinarrizko maila bat: bestelako ardura berezirik hartzen ez duten funtzionarioak**. Eurengandik goiti, honelakoak topatuko ditugu:

- A. **“Jefe de módulo”**. Moduluan dauden funtzionarioen artean, bata da nagusia dena. Edozein arazo gertatzen bada, berarengana jo beharko zenuke.
- B. **“Jefe de centro”**. “Jefatura de Servicios” delakoaren arduraduna da.

Miaketetan eta araketan zer den gertatzen kontrolatzen du, presoen mugimenduak kontrolatzen ditu, igortzen dizkieten txostenak irakurtzen ditu, ... “jefe de servicios” delakoa eta besteen arteko bitartekaria da eta, beharrezkoa izanez gero, “jefe de servicios” bera ordezkari dezake.

• D. “**Jefe de servicios**”. Espetxea ongi doala bermatu behar du (RP 283. art.). Une batzuetan, berehala hartu beharreko erabakiak –esate baterako, komunikazio bat bertan behera uztea, RP 44. art.- berak hartzen ditu. Arazo larriren bat izatekotan, berarengana jo beharko duzu. Alde batetik egunero zuzendariarekin hitz egiten duelako. Baina, horrekin batera, askotan gertatzen da zuzendaria eta zuzendariordeak ez daudela fisikoki presente espetxean, eta une horietan “jefe de servicios” hau da espetxean agintzen duena, “*mando de incidencias*” denaren funtzioak betetzen dituena, aurrez aldetik pentsaturik ez zeuden gauzak erabakitzen dituena.

• E. **Zuzendariordeak**. Lan alor zehatz batzuetako arduradunak dira (RP 281. art.) eta, gutxienez, honakoak topatuko ditugu:

1.- “**Subdirector de Régimen**”. Espetxean, zuzendariaren ondoren, arduradun nagusia da. “Oficina de régimen” delakoaren arduraduna da, eta espetxean dagoen paper mugimendua kontrolatzen du, preso bakoitzaren espedienteak eta horrelakoak daramatzaten departamenduko burua.

2.- “**Subdirector de tratamiento**”. Preso bakoitzaren azterketa egin behar duten taldeen, profesionalen taldeen arduraduna da.

3.- “**Subdirector de seguridad**”. Segurtasun kontuak ditu bere menpe eta, seguruenik, baten batekin gauzak komentatu behar izatekotan berarekin komentatu beharko dituzu. Izan ere, zuekin loturik dauden gauza guztiak segurtasunezko anteojoek aztertzen dituzte, ...

4.- “**Subdirector médico**”. Osasun sorospenez arduratzen da, eta bera da arduraduna.

5.- “**Subdirector de personal**”. Langileen kontuaz arduratzen da, eta ez da espetxe guztietan existitzen.

F. “**Administrador**”. Espetxearen gora behera ekonomikoak kontrolatzen dituena, zuzendariordeko bat da (RP 282. art.).

G. “**Director**”. Espetxean dagoen goreneko arduraduna da (RP 280. art.). Espetxe-organoak edo taldeen lehendakaria da, eta hartzen diren erabaki guztiei azken oniritzia ematen dien pertsona da (RP 266. art.).

5.2. BESTE FUNTZIONARIAK.

5.2.1. Jurista, kriminologoa.

Zure egoera judiziala zein penitentziarioa nolakoa den arduratzen da. Zalantzaren bat baduzu, berarengana jo dezakezu. Bitxia bada ere, espetxeari aholku juridikoak ematen dizkio ere, eta espetxearen aurka JVParen aurrean tar-

tekatuko dituzun salaketak direla eta berak azalduko dio espetxeari zen esan behar duen. Oro har, ez duzu berarekin harreman handirik izanen, ez bada izanen inoiz zure kondenei buruzko zerbait galdetuko diozulako, ...

5.2.2. Psikologoa, pedagogo, psikiatra, soziologoa.

Preso bakoitzari buruzko txostenak egin behar dituzten profesionalak dira, norberak bere eremuan. Espetxe guztietan ez dira egonen.

5.2.3. Hezitzailea.

Alde batetik, preso bakoitzari buruzko txostenak prestatzen laguntzen du. Bestaldetik, jostatzeko aktibitateak, kirol aktibitateak eta bestelakoak antolatu beharko lituzke. Teoriaz, presoen talde zehatz eta mugatu batez arduratu beharko litzateke, baina normalean gertatzen da modulu edo departamendu oso batez arduratu behar izatea.

5.2.4. Gizarte-laguntzailea.

Beharrezkoak izanen diren txostenak egiteko zure sendiarekin eta zure inguruko jendearekin arduratuko litzatekeen pertsona da. Beharrezkoa baduzu, eta sendiarekiko gestioaren bat egin behar izatekotan, edota preso zaudelako besteren gestioaren bat egin behar baduzu, pertsona eskuragarrienetarikoa izan daiteke hau, beste funtzionarioekin alderatuz gero, jakina. Zuk ez diozu inongo datu-rik eman behar, noski, baina gestio txikiren bat egin behar izatekotan lagungarria izan liteke, ...

5.2.5. Maisua.

Espetxe txikietan espetxe txiki bat egoten da, eta zentro balioanitzak deritzegun horietan benetako irakaskuntza-unitatea egoten da, ikasketak burutu ahal izateko gelak eta guzti. Bere funtzionamenduaz maisuak arduratzen dira. Bat baino gehiago izaten dira, eta bakoitza ikasgairen batetaz arduratzeaz gain modulu batez arduratzen da. Barne Ministeriokoak izan daitezke, bai, baina baita Heziketa eta Zientzia Ministeriokoak. Liburutegia eta ikasketekin loturik dauden gauza guztiak gobernatzen dituzte. Gai hauen inguruan, beraz, eurekin konpondu beharko zara.

5.2.6. Sendagileen taldea.

Gutxienez hiru pertsonak osatuko dute: sendagile batek, ATS batek eta "auxiliar de enfermería" batek (RP 209.1. art.). Espetxearen arabera, sendagileak bat baino gehiago izanen dira. Egunero pasatzen dira moduluetatik, edo, bestela, egutegi baten arabera. Asteburuetan, ordea, ez dira espetxean egoten, eta guardiazko zerbitzua egoten da. Kontsultara joan nahi baduzu, galdetu beharko duzu, izan ere espetxe bakoitzean horretarako sistema berezia baitute: edota bezperan apuntatuaz, edo egun berean baina goizez, ... Baina edozein arazo izatekotan, eurengana jo berako duzu: HIES edota txis edo odol azterketa bat egin nahi izatekotan, ... (LOGP 40. art. eta RP 208. art.). Era berean, beharrezkoak izan ditzaitezun botikak beraiek emanen dizkizute (RP 209.3. art.) eta, beharrezkoa balitz, eurek azkartuko dute kanpoko ospitale batetara eramatearena edo espezialistaren batek ikustearena (RP 218. art.).

Sendagileen taldeak liburu bat du, eta bertan apuntatzen dute nor asistitu duten, zein gaixotasun aurkeztu duten eta zein sendabide eman dioten. Hau garrantzitsua da, eta zerbait gertatzen bazaizu ezinbestekoa da hau guztia zorrotasunez kontrola dezazula, ongi apunta dezatela esaten diezun guztia, bada ezpada ere. Izan ere, gure osasun egoera ez dugu euren esku uzten, ezta urrik eman ere. Horretarako daude kanpoko sendagileak eta abokatuak. Baina ezin diegu inongo jarrera ganorabakorik onartu. Gure osasun egoeraz arduradun dira.

Litekeen gauza da, “ikerkuntzak direla eta” (RP 211. art.) datu pribatuak eskatu diezazkizutela. Ez zaude horretara beharturik, izan ere ez baitzaude beharturik ezta iker zaitzaten uzten. Zalantzaren bat izatekotan, konfidantzazko abokatuarekin jar zaitez kontaktuan.

5.2.7. Demandaderoa.

Espetxean gauza batzuk erosteko aukera izanen duzu. Baina beste hainbat gauza ez dituzu bertan topatuko eta, beraz, badago egon kalean presoan mandatuak egiten dituzten pertsona batzuk (RP. 304. art.). Espetxeak kontrataturiko pertsonak izaten dira. Oso litekeen gauza da ezagutu ez izana, izan ere berarekiko harremanak idatziz izaten dira eta.

5.2.8. Denetarik.

Badaude egon espetxean betebeharreko zehatzak dituzten pertsonak eta, era berean, DGIP delakoarekin harremanik ez duten pertsonak. Apaizak, kirol-monitoreak, lantegiak edo ikastaroentzako irakasleak, INEMeko langileak, drogen menpekoak diren lagunekin aritzeko arduradunak, Gurutze Gorriko kideak, GKEkoak, ... (RP. 62. art.). Oso oso gutxitan izanen duzu eurekiko harremanik, ...

5.3. ESPETXE-ORGANOAK.

RPak arautzen du zeintzuk diren organo hauek (RP 265. art.). Eta, organo hauen jokamoldea dela eta, garrantzitsua den gauza bat azpimarratu behar da. Administrazioaren edozein talde edo organorekin gertatzen den bezala, **erabakiak hartzeko modua arautua dago**, LO 30/1992 delakoak – “Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común” delakoak, alegia- ezarririk dituen irizpideen arabera (RP 267. artikulua). Esan nahi dena zera da, erabakiak betiere metodologia zehatz bat jarraituz eta errespetatuz hartu behar direla, eta nahiz eta oraintxe honexek txorakeria bat ematen duen, aurrera egin ahala konturatuko zara biziki inportantea dela hau kontuan hartu eta argudiatzea. Konfidantzazko abokatuarekin kontaktuan jarritz gero, ...

Aurreko RPrekin alderatzekotan, konturatuko gara pertsona bakar batek osatzen duten organoak ez direla aldatzen. Azpimarratzekoa da, ordea, zuzendarriaren funtzioak eta ardurak gero eta gehiago direla, eta pertsona batzuek osatzen zuten organo batzuk desagertzen direla eta berriak agertzen direla. Honela bada,

5.3.1. Zuzendaria.

Gehien agintzen duena izaten jarraitzen du. Praktikan, lehenago azken hitza eman behar zuen gai guztietaz jarraitzen du azken hitza ematen (RP 280. art.): lagunen bisitak, ... Horrez gain, hemendik aurrera (RP 266. art.) edozein espetxe-organok emanen duen erabaki ororen inguruko azken hitza berak du ere. Horretarako salbuespen bakarra dago, zigor-batzordea, ... baina bertan presente dago ere.

5.3.2. Zuzendaritza-kontseilua (RP 270. eta 271. art.).

Espetxea gobernatzen duen organoa da. Beste gauza askoren artean barne-araudia zehazten du, bisita egunen egutegia, ... Aurrean existitzen zen “junta de régimen” delakoaren funtzioak betetzen ditu, kontu disziplinarioekin loturik dauden aferak ezik.

Hilabetean behin biltzen da, gutxienez, eta honako lagunek osatzen dute:

- zuzendaria.
- “subdirector de régimen”.
- “subdirector de seguridad”.
- “subdirector médico”.
- “subdirector de personal”.
- “administrador”.

5.3.3. Tratamendu-batzordea (RP 272-275 art.).

Beste gauza batzuekin batera, preso bakoitzari buruzko azterketa zehatzetaz dago arduraturik, norberari jarri beharreko tratamendua —eta aktibitateak zehazteko eta sailkapenak zehaztu ahal izateko. Era berean, eta aurrekoaren arabera, berak proposatzen dio DGIPi 10. artikulua nori aplikatu beharko litzaiokeen. Finean, aurreko RPan “equipo de tratamiento” hark burutzen zituen funtzioak betetzen ditu honek. Gutxienez, astero astero biltzen da, eta honako lagunek osatzen dute:

- zuzendaria.
- “subdirector de tratamiento”.
- “subdirector médico”.
- II.PP. etako teknikariak: psikologoak, psikiatrak, ..
- pedagogoa, edo irakaskuntza-unitateko arduraduna.
- gizarte-laguntzaileen koordinatzailea.
- “jefe de servicios” bat.

Bere eginbeharrekoak egin ahal izateko, talde tekniko batzuk izan behar dituzte, eta hauek arduratuko dira proposamenak egiten, txostenak prestatzen, plangintzen egikaritzen eta abarrez. Arduraduna “subdirector de tratamiento” delakoa izan behar du, eta honako lagunak agertuko zaizkigu:

- jurista bat.
- psikologo bat.
- pedagogo bat.
- soziologo bat.
- sendagile bat.
- ATS bat.
- irakasle edo maisu bat.
- lantegietako arduradun bat.
- hezitzaile bat.
- gizarte-laguntzaile bat.
- kirol edo kultura ihardueretaz arduratzen den bat.
- departamenduetako arduradun bat.

5.3.4. Zigor-batzordea (RP 276. eta 277. art.).

Arau-hauste larriak eta oso larriak gertatuz gero, talde honek hartu behar ditu erabakiak. Egun dagoen RPK abiatu duen organo berria da. Hilabetean lau aldiz biltzen da, behintzat, eta gutxienez lagun hauek osatuko dute:

- zuzendaria.
- “subdirector de régimen”.
- “subdirector de seguridad”.
- jurista bat.
- “jefe de servicios” bat.
- funtzionari bat.

Azken biak funtzionari guztien artean izaten dira hautatuak, urtero berriztatzen direlarik.

5.3.5. Batzorde ekonomiko-administratiboa (RP 278 eta 279 art.).

Espetxearen gorabehera ekonomikoaz arduratzen da, hala nola langileen kontuetaz. Hiru hilabetean behin biltzen da, eta honako lagunak topatuko ditugu:

- zuzendaria.
- administradorea.
- “subdirector médico”.
- “subdirector de personal”.
- “coordinador de formación ocupacional” edota “coordinador de asistentes sociales”, baldin eta zuzendariak deitzen baditu.
- juristaren bat.

5.4. DGIP, CENTRO DIRECTIVO, MADRIL.

Bukatzeko, azken ohar bat. Honez gero konturatua izanen zara behin baino gehiagotan aipatu ditugula aurrekoak: **DGIP, II.PP., Madril, Centro Directivo**, ..., eta betiere zure egoeraz erabaki garrantzitsuak hartzen dituzten taldeak edo organoak baliran. Eta, izan ere, horrela da. **Espetxe bakoitzean dauden organoen gainera, badago egon zuri eragin zuzena ekartzen dizuten erabakiak hartzen dituen beste zerbait edo norbait.**

Administrazioak oso modu sinplean antolatzen du espetxeen funtzionamoldea. Hasteko, espetxeak Barne Ministerioaren barruan antolatzen dira. Ministerioak bere departamenduak ditu, eta horietariko batzuk “*dirección general*” dute izena. Horietariko bat “**Dirección General de Instituciones Penitenciarias**” delakoa da, eta hortik antolatzen da espetxeetako mundu hau. Era berean, DGIP delako honek bere azpi-departamenduak baditu ere, euren artean hainbat “*subdirección general*”, eta horietariko bat “**Subdirección General de Gestión Penitenciaria**” delakoa da, eta balirudike hauxe dela zuen asuntoetaz gehien arduratzen den taldea. Eta, horiekin batera, badaude egon beste organo edo egiturak: Centro Directivo, **Coordinación de Seguridad**, ... Madrilan daude hauek guztiak kokaturik, eta, zalantzarik gabe, zuekin loturik dauden erabakiak hartzen dituzte etengabe.

Administrazioaren organoak diren hauek zuen asuntoetan muturra sartzeko arrazoiak ezberdinak dira. Batzutan legedia berak –RP- esleitzen dio halako organo bati arduraren bat. Beste batzutan, ordea, asuntoa askoz sinpleagoa da. Administrazioak bere burua antolatzen du, eta antolaketa horren ondorioz departamendu honi zeregin hau egokituko dio eta ondokoari beste hura. Eta, hortik aurrera, azaldua dugu nola hartzen eta hedatzen diren erabakiak: zirkularrak, aginduak, ...

Edonola ere, zuri ez dizu axola. Jakin badakizu erabaki asko eta asko ez dela espetxean bertan hartzen, ezpada bere gainean dagoen beste nonbait hartzen dela. Baina ez du horrek zurekiko ondorio praktikorik. Etorriko den tokitik etorririk ere, erabaki horrek zure eskubideak urratzen baditu edo LOGPk eta RPK onartzen dizkizuten eskubideak zapaltzen baditu, errekurri ezazu.

6

INSTANTZIAK, KEXAK, ERREKURTSOAK

Orain arte legeriak dioena ikusi duzu: haiek zer egin behar duten eta zuk zer egin behar duzun. Orain nola eskatu ikusiko duzu, eta zer egin betetzen ez badute.

6.1. INSTANTZIAK

Konturatuko zara espetxe munduan dena eskatu behar duzula, idatziz eskatu ere, **instantziak**. Instantzia idazki mota bat baino ez da gauzak eskatzeko. **Idazki** (inprimaki) hauek presoaren eskura daude, funtzionarioen gela edo bulegoetan, eta horiek musutruk eskatzea nahikoa da eman diezazuten. Horretan bi instantzia eredu ezberdin dituzu, teorian bakoitza funtzio ezberdin baterako dela.

Alabaina praktikan ez da horrela beti gertatzen. Alde batetik, batzuetan instantziarik ez dagoelako, edo ez daude presoen eskura, beste gabe, edo amaitu direlako. Beste alde batetik, instantzia den inprimakia mugatua delako nahi dugun guztia ipintzeko. Hori dela-eta errazera jo beharko dugu gauzak egiteko.

Egin behar duzuna gauza simple edo erraz bat eskatzea baldin bada, azalpen konplexurik behar ez duena alegia, **har ezazu instantzia bat eta bete**. Ikus dezakezunez, eskatzailea identifikatzen da, eskatzen duena adierazten du –aurrez aurreko edo “vis a vis” komunikazio bat, lagun batzuekin komunikatzeko baimena, demandadero zerbitzuak zer edo zer ekar diezagula, ...–, sinatu eta kito. Funtzionarioarengana jotzen dugu, orijinala eta bi kopia dituen instantzia

eman, funtzionarioak ere sinatuko du, eta data eta aurkezpenaren ordua jarrita kopietatik bat emango digu, egin dugun eskari horren gordekina izan dezagun hain zuzen ere (RP 53. art.), erreklamazio egiterik egonez gero. Orijinala eta beste kopia, erabakitzea dagokionaren eskutara ailegatuko dira –zuzendaria, komunikazio departamentua, ...–.

Erabakia hartu dutenean, orijinala beraientzat da eta bidalitako kopia zuri itzuliko dizute; bertan honelako erantzuna agertu beharko du: “*procede*”, “*no procede*”, “*concedido*”, “*autorizado*” edo dena delakoa. Funtzionarioak ematen dizun kopia horretan ematen dizuteneko eguna eta ordua agerian daude eta zuk sinatu beharko zenuke. Ez zaude behartuta kopia horren hartzea sinatzera, ez da egia hori egiteari uko eginez gero ez dizutela zure eskariaren erantzuna emango. Besteak beste, hori beharrezkoa ez delako. Zuk sinatu nahi ez baduzu funtzionarioek beraiek jarriko dute ez duzula egin nahi (“*no desea firmar*”). Gainera sinatu edo ez sinatu kontu honek ez du inolako garrantzirik, kasu hauetan ez baitu inondik inora horren erantzunarekiko adostasuna zein ez-adostasuna inplikatzeko, erabaki bat eman dizutela soilik.

Zentzu bertsuan, espetxeak berak adierazi beharko luke erantzun horretan zein diren erabilgarri dituzun helegiteak, erabakiarekin ados ez egonez gero, hala nola helegiteko epeak eta norengana jotzea (RP 53.3 art.), baina, praktikan, ez du halakorik egiten.

Aitzitik, eskatu behar duzuna zertxobait konplexuagoa bada –testu luzeagoa, azalpen bat barneratuz, edo izen zerrenda bat, ...–, bi aukera dituzu. Bata da instantzia bat baino gehiago erabiltzea, zeren testua ez baitzaizu bakar batean sartuko. Bestea, errazagoa, dena delakoaren eskaria eta testua **orri zuri batean edo batzuetan** aurkeztea da, orri horiek arrunt eta normalak direlarik. Horien kopia batzuk egingo dituzu –bat gutxienez, zeuk gordetzeko–, originala gutunazal batean sartu eta zuzendaritza edo horren hartzaile denari bidaliko diozu. Hau instantzia baten bidez egingo duzu, zeinean horrekin batera doan gutunazal honen hartzaileari ailegaraztea eskatuko duzun, beste gabe. Eman instantzia eta gutunazala, eta instantziaren kopia bat eman beharko dizute, dagokionari bidaltzen diozun gutunazala ematen duzula ziurtatuz.

Beste batzuetan **zerbaiten eskaera ez zaio espetxe beraren organo bati egiten**, baizik eta beste instituzio bati, edo epaitegi bati, ministerioari,... Halako kasuetan, egin ezazu aurreko atalean adierazitakoa. Dagokion idatzia presatuko duzu, horren kopia bat egin, gutunazal batean sartu, itxi, gutunazalean hartzailea nor den idatzi eta hau bidaltzeko instantzia baten bidez eskatuko duzu. Horren kopia bat emango dizute, gutunazal hori igorri duzula egiaztatzeko. Egun bat edo bi geroago funtzionarioak Zerbitzu-burutzaren gordekin edo errezipo bat emango dizu, erregistro zenbaki batekin eta kartazalaren edukinari buruzko azalpen labur batekin. Hala, gutunazala espetxetik igorri dutela egiaztatuko da, ez dela paper artean galdu, alegia.

Eskakizun, kexa edo helegiteak ahoz ere egin ditzakezu, bai zerbitzu-burua-
ren aurrean, bai zuzendariaren aurrean (RP 53.2 art.), bai Espetxe-Zaintzako Epai-

learen aurrean, kartzelara egiten dituen bisitaldietan (RP 54.l art.), gaiaren araberakoa. Epailearekin hitzegitea espetxera etortzen den aldietan ez da ideia txarra, -espetxe bakoitzak badu bere sistema: zaintza-epaileak etorri behar duen eguna iragartzen dute eta nahi duena apunta dadin zerrenda bat jarri,...-, zeren eta idatzian jarri ez dugun zerbait gehiago azaltzeko balio baitu, epaileak eduki dezakeen zalantzaren bat argitzeko ere, edo bere irizpidea zein den zuzenean jakiteko. Zenbait kasutan epaileak agertzen diogunaz idatziko du eta zuzenean espediente bat irekiko du, berriro idatziz eskatu behar izan gabe. Baina, dakizunez, hitzak haizeak eramanak ohi dira, ahozko eskaria ez dago jasota eta erantzun gabe gera zaitezke gero, ... Onena izango da interesatzen zaizun guztia idatziz eskatzea, hortaz.

Eta zer gertatzen da ez badizute erantzuten? Normalean, erantzun egiten dute. Hala ere, ez badizute erantzuten eta nahi baduzu erantzun diezaituzten, eskatzen ari zarena eskuharki onartzen duten gauza bat da eta, eska ezazu berriro. Baina denborak aurrera egiten badu eta ez badizute erantzuten, **silencio negativo** deritzogun kasuan gaude. Laburbilduz, horrek esan nahi duena zera da: denbora epe zehatz bat –hiru hilabetekoa- iragaiten bada eta ez baduzu erantzunik jaso, ulertu behar da erantzun negatibo baten aurrean gaudela. Zehazki, ezezko borobil bat eman balizute bezala zaude. Beraz, JVPra jotzeko moduan zaude.

6.2. KEXAK, HELEGITEAK

Bestelako gaiak dira Espetxe-Zaintzako Epailearen aurrean kexak edo helegiteak aurkez ditzakegunak. Legeak horietako batzuk esplizituki aurrakusten ditu: zigor aldatzeaz (LOGP 76.l art.), erregimen zigortzaileaz (LOGP 76.2.e art.), eskubideak ukitzen dituzten presoek kexa eta eskakizunez (LOGP 76.2.g art.), etab. Orientazio moduko zerrenda bat da. JVPk badu, printzipioz, kartzelako bizibaldintzez eta bertan gertatzen den GUZTIAZ epaitzeko eta determinatzeko eskumena, gero adieraziko dugun salbuespenarekin. Ez zalantza izan gero. Dago-kizun zerbait ukatu edo mugatzen badizute, jo ezazu JVPra.

JVPra idatziz joko duzu, helegite bat edo kexa bat aurkeztuz. Desberdintasuna sinplea da. **Helegitea** aurretiko erabaki baten kontra aurkeztzen da. Hau da, zer edo zer eskatu duzu, kartzelak ukatu egin dizu eta ukapen horren kontrako idatzia aurkeztzen duzu. **Helegite** hitzaren ohiko zentzua da. Esaterako: lagun bisita baten ukazioa, Zuzendaritza Kontseiluaren akordioa, zuzendariaren erabaki bat. **Kexa**, uste duzu eskubide bat urratu dizutela egitez eta aurkeztzen duzu, edo espetxe-administrazioak (edo haren funtzionarioek) legez kanpoko jokaera izan du. Esaterako: araketa integrala, medikuntza-laguntza egokia ez izatea, kiroldegira irtetzea debekatzea, lege-kontrakoa den barne-arau bat indarrean egotea. **Sala-keta** ere deitzen zaio. Guztiz ere, kontua ez da kezkatzeko modukoa, izen kontua baino ez baita eta epailearen betebeharra gaiaren auziari heltzea izango da, ezin izango du hortaz *izena nahastu* duzula argudiatu gero.

Kexak aurkeztea **presoak ez diren beste pertsona batzuek egin dezaketen**, eztabaidagarria da. JVP batzuek onartu egiten dute, beste batzuek, ordea, ez. Batzuetan senitarteko, ordezkari edo abokatu batek kexa bat edo helegite bat aurkeztea onartzen da –RPk hartzen du espresuki bere barnean posibilitate hau–, baina gero presoak berrestea eskatzen da. Abiapuntua, urratua izan den eskubidea presoarena dela da, eta horretan berari dagokio helegite aproposak aurkeztea, ... Dena dela, alferrikakoa da kontu hauetan galtzea. Arazo bati azkar eta eraginkortasunez heldu nahi badiozu, zeuk zuzendu beharko duzu idatzia. Hori bai, abokatuari komunikatu bere burua bertan azal dezala –ahal izanez gero– edo auzi horren segimendua egin dezan.

Kexa edo helegite bat aurkezteko **biderapena** –tramitea- erraza da. Orri zuri batean jarriko duzu kexa edo helegite bat aurkeztu nahi duzula. Gertaeren errelato xume bat egingo duzu, helegin nahi duzun akordioa zer-nolakoa den azalduko duzu, eta zure ustez zergatik ukitzen dituen zure eskubideak azaldu ere. Utz ezazu alde batera legezko xedapen edo erabakiak bilatzea: epaileak badakizki. Idatzia **argia** izatea garrantzitsua da, epaileak ongi uler dezan eskatzen duzuna. Horretarako, honako aholkua: ez ezazu egin eskari bat baino gehiago idazki berean. Korapilatzea izango da, bai epailearentzat bai guretzat, eta horren segimendua konplexuagoa izango da. Hori dela eta, *eskari bakoitza dagokion kexan* egin.

Behar baduzu, zeure **konfiantzazko abokatuarengana** jo dezakezu. Are gehiago, oso komenigarria izango da hala egitea, kontu korapilatsutan ez irristatzeko.

Sarritan, **JVPri emango dizkiozun argudioen** artean, eskatzen duzuna beste JVP batzuek –edo JVP horrek berorrek– onartu izana lagungarri gisa erabiliko duzu. Ez dator gaizki, baina kontuan izan behar duzu **beste JVPen ebazpenek** ez dutela zure kartzelarako balio –izan ere, gogora ezazu kartzela bakoitzak bere epaile propioa duela, eta zure kartzelarako eskuduntza duen bakarra hari dagokiona dela–. Beste JVPen autoek adibide gisa balio dute, zuk eskatzen duzuna beste epaile batzuek bidezko edo zuzentzat jotzen dutela informatzen baitio- te epaileari. Behar badituzu, zure abokatuak helaraziko dizkizu. Beste argudio interesgarri bat **Criteria Refundidos de actuación de los JVPs** delakoak –**EZEen Jarduera-Irizpide Berrituak**– dira. Ez da testu legala, ez da legea, baizik eta aldi- ro JVPek egiten dituzten jardunaldietako ondorioak biltzen ditu. Jardunaldi horie- tan kontu jakin batzuei buruzko irizpide homogeneoak finkatzen saiatzen dira, eta irizpide horiek lotesleak ez badira ere, JVPek aintzat hartu ohi dituzte.

Idazki hau, gutunazal itxian gordeta, instantzia batekin batera entregatuko duzu, zeinetan kexa bideratzeko eskatuko duzun. moduluko funtzionarioari eman- go diozu guztia, zuretzako kopia bat gordeta, eta ondoren Zerbitzu-buruzagitzat- tik helduko zaizun jasotze-agiriaren zain geratuko zara; jasotze-agiriak, erregistro- zenbakia duela, idazkia irten dela ziurtatzen du. JVParen ebazpenaren zain gera- tzea besterik ez duzu. Funtsezko aholku bat doakizu: **izan zaitex ordenatua**. Gorde guztiaren kopia, guztiaren ordezkagiria, mantendu karpeta batean ordena- turik eta ondo sailkaturik. Honek biziki lagunduko gaitu denok.

Kexa bidali duzu eta JVParen ebazpenaren zain zaude. Kontuz, ordea, gerta bailiteke –eta are desiragarria da gertatzea– JVPak ebazpena eman baino lehen berriro zuregana jotzea **beste alegazio batzuk** egiteko aukera emateko. Izan ere, zure helegitea edo kexa jasotakoan, JVPak txosten bat eskatuko dio kartzelari, honek azal dezan zergatik hartu zuen harako erabakia edo zergatik egin zuen harako gauza. Kartzelak JVPari txostena bidaliko dio eta hark beharbada kartzelaren txostenaren kopia bat bidaliko dizu –ez beti, esan bezala– zuk epe labur batean esan beharrekoa esan dezazun, egin beharreko ñabardurak egin ditzazun edo erantsi beharrekoa erants dezazun. Kasu honetan, alegazioren bat egin **behar duzu**, zenbait JVPren (Madril,...) ohitura, alegaziorik jaso ezean presoak kartzelarekin bat datorrela eta salaketa bertan behera utzi duela ulertuta, kexa artxibatzea da.

Jarraian JVPak Ministerio Fiskalari emango dio espedientea, hark bere ikuspuntua eman dezan, eta ondoren ebatzi egingo du.

6.3. JVP REN AUTOAK.

JVPak ematen duen ebazpenak auto-itxura du. **Autoa** ebazpen judizial bat baino ez da, epaia den moduan. Ez honekin nahastu. Garrantzitsuen da ebazpen bat, idazki bat iritsiko zaizula epaitegitik, izen hau –*auto*– argiro agertuko dela, eta bertan JVPk auzia ebatziko du. Kontuz, ordea. Gerta liteke JVPren ebazpenak “auto” izenburua ez izatea, baizik eta **probidentzia** huts bat izatea. Ez luke hala izan behar, probidentzia garrantzi txikiko ebazpen judiziala baita, teorian *antolamendu hutsekoa*, zeinen bidez prozedura ordenatu egiten den, eta bertan ez litzateke funtsezko konturik erabaki behar. Hala ere, ohartarazita zaude, gerta liteke. Kasu horretan, eta probidentziaren kontra ez dagoela helegitea jartzetik esaten bazaizu ere, helegite-erregimen normalari jarraituko diozu, auto bat balitz bezala.

Eskuarki auto batek hiru atal ditu:

- **Izatezko Aurrekariak.** Atal honetan prozeduran jazotakoaren kontaketa egingo da. Esate baterako, zein izan zen zure lehen eskaera, kartzelak zer erantzun zizun, nola aurkeztu zenuen helegitea, zer iritzi eman duen fiskalak, zer alegazio egin dituzun edo egin ez dituzun,...
- **Zuzenbidezko Funtzak.** JVPak kasuarentzat aplikagarri uste dituen artikulua agertuko ditu, hala nola bere arrazoibidea eta interpretazioa. Atal hau ez balego edo generikoa balitz, autoa *motibaturik* ez dagoela esango genuke.
- **Xedapenezko Atala edo ebazpena.** Hartutako erabakia zehaztu egiten da (goiburua izan ohi du: “erabaki dut” –“acuerdo”– edo “xedatu dut” –“dispongo”–). Atal honetan zure kexa edo helegitea osorik edo partzialki onartua izan den, edo, aitzitik, ez den onartua izan.

Bukatzeko, ebazpena finkoa (“firme”a, aldaezina) den edo haren kontra helegiteren bat jar dezakezun informatu behar izango dizute. Helegiterik jartzea baldin badago, zer helegite mota eta zein epetan jar daitekeen informatu behar izango dizute.

Gerta liteke –ez litzateke lehenbizikoa izango– JVP batek denbora luzean **zure idazkiari ez erantzutea**. Legeak ez du kexei edo helegiteei erantzuteko eperik finkatzen, beraz ezin duzu epe zehatz batean erantzuteko eskatu. Honek ez du esan nahi, ordea, nahi dutena egitea daukatenik. Badugu JVPri erantzukizunak eskatzea berandutze ulertezin honegatik. Epailleek ere badute diziplinazko erregimen bat eta haien litezkeen hutsegiteetarako bat idazkiei ez erantzute da (LOPJ 418.10 art.). Zenbait aukera dago hartarako. Bide malkartsua da, ordea, espero diren emaitzak ematen ez dituen –hala diosku eskarmentuak–, beraz atarramentu handiagoa emango dizu abokatuaren bidez JVPren ganean egoten ahalegintzeak.

Behin autoa emanda, bai zuri bai kartzelari jakinarazi behar dizute. Hartarako, epaitegiak kartzelara bidaliko du autoa, funtzionari batek nahiz Epaitegitik datorren agente batek jakinaraz diezazun. Jakinarazi dizutela sinatzen duzun unean hasten dira litezkeen helegiteak aurkezteko epeak. Jakiteko duzu mota honetako prozedura batean preso eta Ministerio Fiskala direla alderdi bakarrak. Honek esan nahi du kartzelak esana duela bere txostenean esan behar zuen guztia eta, behin ebazpena emanda, ez du berriro parte hartzen. Auto baten kontra, beraz, Ministerio Fiskalak eta presoak baino ezin dute helegitea jarri.

Autoa jasotakoan jakingo duzu aldekoa den edo eskatu zenuena atzera bota duen.

Autoa aldekoa bada, bikain. Kontuz, baina, zuk helegitea aurkez dezakezun era berean **fiskalak** ere aurkez lezake eta. Izan ere, zu ados egon zintezke baina fiskala ez, eta zu auzia irabazi duzula sinetsita zaudela, fiskalak helegitea aurkeztu badu autoa ez da **finkoa** (*firme*). Finkoa, haren aurka helegitea jartzerik ez dagoen ebazpena da, hortaz, ebazpen finkoa bete egin behar da, obratu. Fiskalak helegitea aurkeztu duen ziur jakin nahi baduzu, egokiena zure abokatuekin hitz egitea duzu.

Gerta daiteke ere espetxeak autoan erabaki dena egikaritzeari edo betetzeari uko egitea. Jakina, honek ez luke sekulan gertatu behar, ezen eta epaile batek erabakitzen duena derrigorrez baitluke espetxeak bete behar. Administrazioak ezin du epailleek agintzen diotena enoratu. Baina, aitzakia ezberdinak direla medio, maiz gertatzen da espetxeak ez duela autoak dioena oso osorik betetzen. Kasu hauetan bi gauza egin dezakezu. Alde batetik, espetxeko zuzendaritza “prevaricación” deliktu bat dela eta salat dezakezu (ikus 8. atala). Baina bide honek ez du orokorrean emaitza askorik ematen. Bestaldetik, berriro JVPregana jotzeko aukera duzu. JVPri azalduko diozu hau edo bestea irabazia duzula, nola irabazi duzun, zein ebazpenen bitartez, ebazpen judiziala aldaezina dela, eta espetxeak uko egiten diola ebazpen hura betetzeari. Eta, jarraian, JVPri eskatuko diozu premiiazki espetxearekin harreman dadin, eta exigi diezaion berehala autoaren mamia errespetatu eta betetzeko.

Beste posibilitate bat da **autoa kontrakoa izatea, osorik edo partzialki. Kasu horretan helegitea aurkez dezakezu.** Kasu epeei. **Helegite oro beti dagokion epearen barruan jarri behar da.** Ezinbestekoa da helegitea aurkeztea, oso ondo zer esan ez badakizu ere, edukietan oso laburra izan arren. Hala egiten ez baduzu autoa finko bihurtuko da eta ezin izango da haren aurka ezer ere egin. Jartzen duzun helegitea oso xumea izateak ez du axola. Aurrerago alegazioak gehituz beste idazki bat aurkezteko aukera izango duzu, esate baterako abokatuarekin hitz egin ondoren. Beraz, gogoratu ez duzula epe-rik alferrik igarotzen utzi behar. Jakizu, halaber, espedientean azaltzen den abokatu baduzu, Epaitegiak harengana jo ohi duela, baina **ez beti**, horrenbestez autoaren berri jakin bezain laster jakinaraz iezaiozu abokatuari, bion artean helegitea nork eta nola jarri –*beti* ere epe barruan– erabaki dezazuen.

6.4. ERREFORMA -ETA SUBSIDIARIOKI APELAZIO-HELEGITEA (*recurso de reforma y subsidiario de apelación*). OFIZIOZKO ABOKATU-PROKURADOREAK, DOAKO JUSTIZIAREN ONURA.

JVPren autoen kontra bi helegite mota aurkez ditzakezu. Honi buruz autoak berak eman beha lizuke informazioa:

- **erreforma-helegitea.** Jakinarazpen egunetik 3 eguneko epean aurkeztu behar da, eta lehen autoa eman duen JVP berak ebatziko du. Epe labur batean ebatziko da, teoriarik bi egunekoan, hertsiki inoiz betetzen ez bada ere.
- **apelazio-helegitea.** Jakinarazpen egunetik 5 eguneko epean aurkeztu behar da, eta kartzela dagoen probintziako Probintzi Entzutegiko Epaimahai batek ebatziko du. Probintzi Epaitegia JVPren gaineratik dago, eta azken buruan haren irizpidea ezartzen da. Helegite hau aurrera eramateko abokatu bat eta prokuradore bat (konfiantzazkoa edo ofiziozkoa: ondoren ikusiko dugu) izendatu behar dira.

Bi helegite desberdin dira, baina aldi berean, idazki berean, aurkez daitezkeenak. Hala egiten bada, erreforma- eta **subsidiarioki** apelazio-helegitea aurkezten da. Honek esan nahi du erreforma-helegitea onartzen ez bada –erraz gerta daitekeena, esan bezala eskatutakoa onartu ez digun JVP berberak ebatziko baitu– besterik gabe apelaziokoa aurkeztutzat jotzen dela. Honetara epeगतिको kezka saihestuko duzu.

Helegiteak aurkezteko epeak (3 egun erreformakorako, 5 egun apelaziokorako) egun gaikoak dira, hots, igandeak eta jai egunak ez dira epe horietan sartzen, esaten dutena esaten dutela (LOPJ 185. art. eta CC). Egundak osoak eta autoa ematen dizutenaren hurrengoan kontatzen dira (e.b.: lehen ematen badizute, hiru egun 2a,3a eta 4a dira, azken hau helegitea aurkezteko azken eguna delarik).

Autoaren edukiaz den bezainbatean, JVPk azaldu behar izango luke zer arrazoirengatik eman duen ebazpen hori. Autoa kontrakoa izan eta helegitea jarri nahi baduzu, epaileak arrazoitu ez duenean, horixe duzu helegiterako lehen motiboa: **arrazoitze falta**. CEk (Espainiako Konstituzioak), bere 24.1 artikuluan, funtsezko eskubide gisa bermatzen du *babes judizial eraginkorra*, honek esan nahi du, orain ari garenari dagokionez, presoaren eskubidea dela JVPk arazoari benetan eta ganoraz ekitea. Ebazpen judizial bat funtsatua, arrazoitua ez badago, eskubide konstituzional hau urratu egiten da; izan ere, helegite bat jartzeko, presoak jakin egin behar du aurrez EZEak ukatu duena ukatzeko zertan oinarritzen den. Beraz, babes judizial eraginkorrerako zure eskubidea urratu dela esanez helegitea jarriko duzu eta, gainera, hasierako helegite edo kexako argudioei eutsi egingo diezu.

Aitzitik, autoa funtsatua baldin badago, JVPren arrazoiak jakingo dituzu. Erreforma-helegitean berriro argudiatuko duzu zuk, JVPren argudioei erantzunez, eta hark alda lezake bere ebazpena.

Erreforma-helegitearen erantzuna –honek ere auto-itxura izango du– ezezkoa, zure interesen kontrakoa baldin bada, apelazio-helegitearen bidez Probintzi Entzutegira jo edo ez aztertu behar duzu. Hartarako, eta beti ere lehen idazkian erreformakoarekin subsidiarioki apelaziokoa iragarri ez baduzu, aurkezteko bost eguneko epea izango duzu. Baina **aurkeztu baino lehen arrakasta-aukerak ondo neurtzea komeni da**. Eman dezagun azkenean Probintzia Entzutegiak kontrako ebazpena ematen duela. Horren ondorioa litzateke aurre-rantzean JVPk ez duela auzi hau berriro aztertuko, eta harako erantzuna emango digu: *“bere garaian nire gaineratik dagoen organoak zuk eskatutakoaren kontrako ebazpena eman zuen”*. Ezezkoa JVPk ematen baldin badigu, aurrerago epailea aldatzeko edo epaile beraren irizpidea aldatzeko posibilitatea dago. Baina ezezkoa Probintzia Entzutegiak ematen badigu, ezezko hori lauza astun bat bezala eroriko zaigu gainean, aurreragoko litekeen aldaketa eragotziz. Horrenbestez, ondo pentsatu behar dugu.

Apelazio-helegitea aurkezten duzunean, JVPk **efektu batean edo bitan onar** dezake. Honek esan nahi du *efektu batean* onartuta, ebazpenaren edukiak balio duela eta praktikan errespetatu egin behar dela helegitea ebatzi arte. *Bi efektutan* onartzen bada, ordea, efektu etentzailea izango du eta horrenbestez ebazpenaren edukia etenda geldituko da Probintzi Entzutegiak behin betiko erabaki arte. Apelazio-helegiteak hasiera batean, besterik esaten ez bada, efektu bakar batean onartuko dira, hortaz helegitea bideratu bitartean JVPk ebatzitakoak balio izango du eta hala aplikatu behar izango du kartzelak.

Beste alde batetik, zeure helegitea aurkezten duzunean, **abokatu eta prokuradorea** izendatu behar izango dituzu derrigorrez. Egokiena konfiantzazko prokuradorea eta –batez ere– abokatu izendatu ahal izatea litzateke. Komeni da lehenik konfiantzazko abokatuarekin hitz egitea eta, kontuaren interesaren arabera, bion artean erabakitzea zer abokatu mota izendatu: zenbait kasutan konfiantzazko abokatu izendatzea interesatuko zaigu, baina kasurik gehienetan **ofiziozko** abokatu-prokuradoreak eskatuko dituzu. Ofiziozko abokatu, edonola

ere, zure konfidantzazko abokatuarekin harremanetan jar liteke hartara auziaren segimendu ona egin litekeela.

Maiz nahastu egiten dira **ofiziozko** abokatu-prokuradoreak **doako** abokatu-prokuradoreekin. Ez dira gauza bera. Epategiak **doako** abokatua jartzekotan, **doako justiziaren onura** merezi behar duzu. Horrek esan nahi du ondasunik izan ez eta, beraz, profesional horiei ordaintzekorik ez duzula frogatua izan ondoren, estatuak jarriko dizkizula, derrigorrezkoa baita. Hartarako, baina, tramite bat bete behar da, inprimaki bat bete, kaudimengabea zarela erakusten duten zenbait datu emateko. Izan zaitez arduratsu kontuokin. JVPk berak lagundu behar izango dizu urrats hauek egiten. Zeure apelazio-helegitean argi esango duzu doako justiziaren laguntza hori nahi duzun, eta hari heldu ahal izateko epategiak egin beharreko tramiteak egin ditzala eskatuko.

Jakin behar duzu Doako Justizia Legeak konfiantzazko abokatua eta ofiziozko prokuradorea “doan” izendatzeko aukera ematen dizula. Hartarako doako Justiziari heltzeko aukera eskatu behar duzu, espresuki konfiantzazko abokatua izendatu eta hark “*ordainsariaren berariazko ukoa*” (“*renuncia expresa de honorarios*”) delako tramitea egingo duela iragarri. Garrantzitsua da hau, bestela ofiziozko prokuradorea izendatuko baitizute, zeini ordaindu beharko diozun, ez da eta doakoa izango.

Segimendu on bat bermatzeko hurrengo pausoei jarraitzea komeni da:

- **A.-** Erreforma-helegitea atzera bota dizun autoaren berri jakinarazi eta zure apelazio-helegitea onartu dutela esaten dizutenean, JVPk esan beharko lizuke nor diren zure ofiziozko abokatu-prokuradoreak, hala nola haien helbideak eta telefonoak. Ahantz ez dakien, abokatu eta prokuradore horiek eskatzerakoan nor diren esan diezazuten modu argian eskaera zehatz bat ere egitea on litzateke. Denbora tarte bat igarota komunikatu ez badizute, gutun bat bidaliko diozu probintziako Abokatuen Elkargoko Dekanoari, hark abokatuaren izena eta helbidea igor diezazkizun, abokatu horrekin harremanetan jarrita zure kasua azaldu edo behar dituen datuak emateko.

Garrantzitsua da nor diren, batez ere abokatua, jakitea, auziaren berri izateko, galduta ez geratzeko. Ofiziozko abokatuari ez diozu ezinezkorik eskatuko, baina bai behintzat zuk azaltzen diozuna aintzat hartzeko eta Probintzia Entzutegiak autoa ematen duenean jakinaraz diezazutela.

- **B.-** Zentzuzko epe baten buruan erantzunik jaso ez baduzu, Probintzia Entzutegiko Presidenteari idazki bat bidal diezaiokezu, zure gestioak gora-behera ez zarela harremanetan jarri ofiziozko abokatuarekin eta horretara zure defentsa-eskubidea (CE 24.2 art.) urratuta gerta litekeela esanez, eta berak neurri proposak har ditzan.

Esandakoa garrantzitsua da, bereziki gerora TCn (Auzitegi Konstituzionala) jar litekeen babes-helegite bati begira. Helegite hau, PEaren autoa prokuradorea-ri jakinarazten zaionetik hoguei eguneko epean jarri behar da. Horrenbestez, eskatzekoa da profesional horiek, ofiziozkoak izanda ere, ebazten den guztiaren jakinean jar gaitzateela.

Behin ofiziozko prokuradore-abokatuak izendatuta, apelazio-helegiteak bideratze labur bat behar du, zeinetan ia beti abokatuari bere alegazio edo arrazoibideez helegitea formalizatzeko aukera ematen zaion. Horregatik ere garrantzitsua da abokatuak nor den jakitea, aldez aurretik gure helegitea defendatzeko lagungarri izango dituen datu guztiak hari helaraztearren. Ondoren Probintzia Entzutegiak ebazpena emango du, batzuetan egintza judizial txiki baten bidez *-bista-*, zeinetan gure abokatuak ere parte hartuko duen; beste batzuetan bistarik gabe.

Espero izatekoa da Probintzia Entzutegiak bere ebazpenak funtsatzea. Hala egingo ez balu, berriz ere topatuko genuke babes judizial eraginkorrerako esku-bidea ez dela bete. Kasu honetan TCra jo ahal izango duzu, babes-helegitearen bitartez. TCk, ordea, ez du hasieran mahaigaineratutakoari buruz ebatziko, kontuaren funtsari buruz, alegia, baizik eta eskubide konstituzional jakin hura urratua izan den edo ez (CE 24.1 art.).

Datu bat emango dugu. Zenbait Probintzi Entzutegik ulertzen dute JVPk gai batzuei dagokienez erreforma-helegitea atzera boteaz ematen dituzten autoen kontra ez dagoela apelazio-helegitea jartzerik. Izan ere, apelazio-helegitea bidaltzen bazaie itzuli egingo dizute, aukera hori ez duzula argudiatuta. Hala gertatzen da ia beti, esate baterako, Ocañako JVPekin eta noizbehinka besteren batekin. Zeharo egoera bitxia sortzen da, ilegaltzat jotzen ere ausartuko ginateteke *-baina, harrigarri gertatzen bada ere, onartua,...*. halako egoera batean suertatuz gero, jar zaitez harremanetan abokatuarekin. Aipatutako interpretazioaren oinarria honakoa da: espediente zigortzaileari buruzko atalean irakurriko duzunez, zigor kontuetan ez dago apelazio-helegitea jartzerik.

6.5. KEXA-HELEGITEA.

Helegite erraza da. Probintzia Entzutegian aurkeztu behar da, JVPk apelazio-helegitea aurkezteko aukera ematen ez badizu. Arestian esan bezala, urriak dira egoera hauek, baina gerta litezke. JVPri, honek bidera dezan, idazki bat bidali besterik ez duzu, hiru eguneko epean, ukapena jakinarazten dizuten egunean kontatzen hasita. Azaldu egin behar izango duzu ez dizutela apelazio-helegitea jartzeko aukerarik eman, ez zatozela erreforma-helegitea atzera botatzearekin bat eta helegitea aurkeztu nahi duzula, besterik gabe.

6.6. ARGIBIDE-HELEGITEA.

Ezohikoa da. Bakar-bakarrik argi gelditu ez dela uste duzun zerbait argitu diezazutela eskatzeko erabil dezakezu. Jakinarazpenetik bi eguneko epea duzu aurkezteko (LOPJ 267. art.).

6.7. BABES KONSTITUZIONALEKO HELEGITEA.

Kontu honen garrantzia dela eta, kasu. **Aurrez abokatuarekin hitz egin gabe ez duzu urrats bat bera ere egingo.** Gogoan izan gorago Probintzia Entzutegiko helegiteez esan duguna. Ematen duten ebazpena ezezkoa bada, haren efektua izango da probintzia horretan kontua galdutzat jo daitekeela, gutxienez denboraldi luze baterako. TCren kasuan arrazoibide bera erabilia, ondorioa berdina da: helegitea atzera botatzen badigute, espetxe-administrazioak beste guztien gainetik dagoen ebazpen bat izango du eskuetan, eta aurrerantzean mota bereko eskaerei ezezkoa emateko erabiliko du, bai eta preso politiko guztiei aplikatuko. Izan ere, gerta liteke kartzela batean baimenduta dagoena beste batean ez egotea, eta bigarren horretan dagoena TCraino iritsi eta auzia galdu egiten badu, berak ez ezik beste probintzia batean dagoenak ere, ordu arte eskubide hori aitortuta izan arren, galtzen du. Beraz, kontuz, **ezer egin baino lehen, galde ezazu.**

Babes-helegite honen esentzia konplexu samarra da Zuzenbidearen kontu hauetaz gehiagi ez dakigunontzat. TC auzitegi berezia da, eta bere egitekoa da aurrera eramen den prozeduran oinarrizko eskubideak urratu diren aztertzea. Hau da, ez du zertan funtsezko kontuetan sartu behar –batzuetan, ordea, sartuko da–, baizik eta Konstituzioak funtsezkotzat jotzen dituen eskubideak urratuak izan diren begiratzen du. Horregatik batzuetan ez da auzian sartu ere egingo, ez du helegitea tramiterako ere onartuko, helegitea jarritako ebazpenak guztiz Zuzenbide-kontrakoa iruditu arren.

Zehazki, CE 14tik 29a bitarteko artikuluetan bildutako oinarrizko eskubideak honakoak dira:

- **14. art.:** *derecho de igualdad ante la ley sin que exista discriminación.*
- **15. art.:** *derecho a la vida y a la integridad física y moral, sin que en ningún caso puedan ser sometidas las personas a tortura ni penas o tratos inhumanos o degradantes.*
- **16. art.:** *derecho a la libertad ideológica, religiosa y de culto.*
- **17. art.:** *derecho a la libertad y a la seguridad.*
- **18. art.:** *derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen. Inviolabilidad del domicilio. Derecho al secreto a las comunicaciones postales, telegráficas y telefónicas salvo resolución judicial.*
- **19. art.:** *derecho a elegir libremente la residencia y a circular por el territorio estatal.*
- **20. art.:** *libertad de expresión. Derecho a comunicar o recibir libremente información veraz por cualquier medio de difusión.*
- **21. art.:** *derecho de reunión y manifestación.*
- **22. art.:** *derecho de asociación.*

- **23. art.:** *derecho a participar en asuntos públicos.*
- **24. art.:** *derecho a la tutela judicial efectiva sin que en ningún caso pueda producirse indefensión. Derecho a la defensa y a la asistencia letrada, a ser informado de la acusación, a un proceso público sin dilaciones debidas y con todas las garantías, a utilizar los medios de prueba para su defensa, a no declarar contra sí mismo, a no confesarse culpable y a la presunción de inocencia.*
- **25. art.:** *principio de legalidad. Nadie puede ser condenado o sancionado por acciones u omisiones que en el momento de producirse no constituyan delito, falta o infracción administrativa, según la legislación vigente en aquel momento. Las penas privativas de libertad y las medidas de seguridad estarán orientadas hacia la reeducación y reinserción social y no podrán consistir en trabajos forzados. El condenado a pena de prisión que estuviere cumpliendo la misma gozará de los derechos fundamentales de este Capítulo, a excepción de los que se vean expresamente limitados por el contenido del fallo condenatorio, el sentido de la pena y la Ley Penitenciaria. En todo caso, tendrá derecho a un trabajo remunerado y a los beneficios correspondientes de la Seguridad Social, así como acceso a la cultura y el desarrollo integral de su personalidad. La administración civil no podrá imponer sanciones que, directa o subsidiariamente, impliquen privación de libertad.*
- **26. art.:** *se prohíben los tribunales de honor.*
- **27. art.:** *derecho a la enseñanza.*
- **28. art.:** *derecho a sindicarse. Derecho a la huelga.*
- **29. art.:** *derecho de petición individual o colectiva.*

Apelazio-helegiteak bezala, helegite hau aurkezteak ere abokatu-prokuradoreak izendatzea eskatzen du, eta horrek zailtasun handiagoak ekar litzake, gerta bailiteke auzia egokitu zaion ofiziozko abokatuak, aurrera egiteko posibilitaterik bat ere ez dagoela uste badu, eramateari uko egitea. Honen aurrean Abokatuen Elkargoak berak erabakitzen du azken batean uko hori onar daitekeen edo ez. Nolanahi ere, ez dugu geure burua kontu honetan galdu behar. Izan ere, ezein urrats egin baino lehen konfidantzazko abokatuarekin harremanetan jarri behar duzu eta. Esango dizu zer egin.

Nolanahi ere, eta mota honetako helegitea aurkeztu ahal izateko aukera izan dezazun, gauza pare bat jakin behar duzu. Lehena, aurkezteko **epea**, zure prokuradoreari Probintzia Entzutegiaren autoa jakinarazten zaionetik, hogei egunekoa dela. Horrenbestez, garrantzitsua da prokuradorea, Probintzia Entzutegiaren autoa jaso bezain laster, gurekin harremanetan jartzea. Bigarrena, helegitearen aurkezpenak ondo dokumentatua egon behar duela: ordu arte eman diren pauso guztien, auto guztien kopia bidali behar duzula. Hirugarren bat: babes-helegite bat jartzekotan, beharrezkoa da, espedientearen aurkeztu dituzun aurreko idazki eta helegiteetan, **dagoeneko aipatu izana funtsezko eskubide hori urratzen ari direla uste duzula**. Zorrotzegi eman lezake honek, baina honela da. Beraz,

honelako espediente bati hasiera ematean, aipatu artikuluetan bilduta dauden eskubideetako bat urratzen ari direla uste baduzu, ESPRESKI agertu behar duzu lehen idazkitik, JVPri bidaltzen diozun lehen kexa edo helegitetik hasita. Ereduak ikustean konturatuko zara hau nola egin behar den.

6.8. EBAZPEN JUDIZIAL FINKOEN UKIEZINTASUNA

Auto batek balio praktikoa izan dezan finkoa izan behar du. Honek esan nahi du haren kontra ez fiskalak ez zuk ezin dezakezuela helegiterik jar, epea igaro delako nahiz ahal diren helegite guztiak agortu direlako.

Hau, zoritxarrekoa iruditu lekigukeen arren, guztiz zentzuzko kontua da eta **segurtasun juridikoaren** hatsarrearekin zerikusia du. Ukiezintasun horrek esan nahi du ebatzita dagoen zerbait ebatzita dagoela, hots, halako denbora igarota eta gauzak funtsean aldatu gabe, atzo A zena gaur ezin dela B izan. Jurisprudentziak eta doktrina juridikoak ulertzen dutenez, herritarrek, kasu honetan presoek, irabazita dagoena beste gabe irabazita dagoela jakiteko eskubidea dute. Ezin dira mantendu etengabe ziurgabetasunean. Norberak zerbait irabazi duenean bere egoera finkoa delako lasaitasuna, segurtasuna izan behar du, ez dela itzulgarria jakin behar du. Hala ere, honek berdin balio du irabazten denerako zein galtzen denerako, jakina. Horregatik, ebazpen finkoak ukiezinak direla esaten da, ezin ukitu dira, ... ez onerako ez txarrerako.

Honekin loturik dago **eskuratutako eskubideen** kontua. Funtsean esan nahi duena da ezin daitekeela preso bat ebazpen judizial baten bitartez irabazi duenaz gabetu. Esate baterako, A kartzelan zaudela lagun baten bisita jasotzeko eskubidea irabazi baldin baduzu, ez da onargarria B kartzelara eraman eta irabazi zenuena bigarren kartzela horretan galdu duzula esan diezazuten. JVP batean ebazpen finko baten bitartez irabazten duzuna, hasiera batean, irabazitako zerbait da eta kartzelaz aldatzen bazaituzte ere ez duzu galduko. Gertatzen da, ordea, eskuratutako eskubideen kontu hau ez dela kontu argiegia. Oraindik orain TCk, xede horretarako, *eskubide subjektiboak eta eskubide ez-subjektiboak* bereizten ditu, hau da, zenbait gauza kartzelako baldintzen mendekoak izan gabe irabazten dira, beraz inolako zalantzarik gabe irabazten dira hauek; beste batzuk, berriz, baldintzatuta irabazten dira, hots, eskubidea onartu egiten da, baina baldintzek edo zirkunstantziek eragozten ez dutelako. Bigarren kasu honetan, jakina, kartzelaz aldatzen bazaituzte, baliteke zirkunstantziak edo barne-erregimeneko arauak aldatzea eta, ondorioz, irabazi zenuena galtzea, ... Hatsarreak, noski, irabazitakoa ezin daitekeela galdu izan beharko luke. Hala ere denetatik topatuko duzu praktikan. Kontu hauei aurre egin behar diezunean, hitz egin abokatuarekin.

7

ZIGOR ERREGIMENA

7.1. ARAUAK, LEGEAK.

2.6. atalean mintzatuak gara honetaz, espetxeetako kontuak direla eta indarrean dauden legetaz. Orduan komentaturikoa zehaztuz, zigor-erregimen kontu hauetan honakoak izanen dira agertuko zaizkigun arauak eta irizpideak:

- **espainiar konstituzioa:** 24.2. eta 25. artikulua.
- **LOGP:** 41-45. artikulua.
- **1996.ko RP:** 231-262 artikulua.
- **1981.ko RP:** 108-111. eta 124.1. artikulua.
- **Zigor Kodea:** 74-78. artikulua.
- lehenago aipaturik dugun **LRJAP:** 127-138. artikulua.
- **19/91 zirkularra,** 14. puntua.
- **JVPek 1994.ko azaroan buruturiko bilkura,** VIII. bilkura hain zuzen ere: 29-39. puntuak.

7.2. SARRERA.

Espetxean, kalean bezala, badaude egon errespetatu behar diren arau batzuk. Beraz, badaude arau horiek hautsi egiten dituzten jarrera batzuk, eta horrelaxe esaten zaie jarrera horiei, **arau-hauste**, eta halakoak burutzekotan **zigortu** egin zaitzakete. Arau-haustea zeintzuk diren eta zigorrak nolakoak izan daitezkeen legeak berak ezartzen du. Honi **legalitate-printzipioa** esaten zaio – CE 9.3.

art.-, edota *tipikotasun-printzipioa* –CE 25.I. art.-, eta esanahi argia du: administrazioak ezin dituela ez batzuk ezta bestetzuk asmatu. Soilik dago debekaturik legeak espreski debekatzen duen hori, eta soilik ezar daitezke legeak aurreikusten dituen zigorrak.

Bai preso prebentiboak zein penatuak izan daitezke zigortuak. Izan ere, preso guztiak izan daitezke zigortuak, baina badaude batzuk **zigorra aplikatua ezin zaiena**: haurdun dauden presoak, preso bular-emaileak, psikiatrikoan dauden presoak eta osasunezko baja harturik duten presoak.

Teoriaz, zigorrak ezartzearen **helburua** bergizarteratzea eta berrieziketa dira. Baina, zertara uka, maiz egoera barregarriak agertuko zaizkizu, zigorrak ezarriko baitzaizkizu helburu horiekin inongo loturarik gabe, ...

Administrazioak badu, beraz, zigorrak ezartzeko potestatea edo gaitasuna. Baina egia da ere duen botere hori erabiltzerakoan printzipio edo irizpide batzuk badaudela eta, beraz, horiek errespetatu behar ditu. Horregatik ikasi behar duzu atal hau, jarriko zaizun zigor bat printzipio horiek enoratuaz hartua izan bada errekurri dezazun. **Printzipio** hauen artean **legalitate**arena dugu nagusietariko bat, lehenago komentatu dugularik zertan datzan. Bada beste printzipio bat, teoriariz bederen, **gutxieneko interbentzioaren printzipioa**. Honen esanahia ere argia da. Espetxea saiatu beharko litzateke ahalik eta gutxien interbenitzen, esku sartzen, bakarrik zeharo ezinbestekoa izanen denean. Eta bada hirugarren printzipio garrantzitsu bat, **proporzionaltasunaren printzipioa**. Honen mamia ere argia dugu. Zigorrak ez dira ezartzen besterik gabe edo modu mekaniko batez. Zigor bat jartzerakoan ongi aztertu beharko dira zeintzuk izan diren gertaerak, zein den zigorra, eta zein neurritan zigor horrek laguntzen duen zigor erregimen honen helburua –segurtasuna eta ongi ordenaturiko elkarbizitza eskuratzen (LOGP 41.I. art.).

Eta, sarrera honekin bukatzeko, pare bat ñabardura.

Baga. Arau-hauste gisan ulertzen diren gertakari hauetariko batzuk, batez ere larriak edo oso larriak direnak, arau-hauste izateaz gain zinezko delitu bat izan daitezke, edo huts-egite (“falta”) bat, Zigor kodeak tipifikatzen dituen jarrerak, alegia. Honen ondorioa da horrelako jarrerak burutzeagatik **zigor bikoitza** jaso dezakezula, alde batetik espetxeak jarriko dizun zigorra (“parte”) eta bestaldetik zigor-prozedura judizial batetan jarriko dizuten zigorra (“condena”). Jakin behar duzu gertakari bakar bategatik zigor bikoitza jasotzearen aukera legezkoa dela, hala erabaki baitu TCk (STC 85.XI.27), zehazki “*relación de sujeción especial*” delako horretan oinarrituaz. Izan ere eztabaidagarria izan liteke gaia, baina, egun, horixe da dagoen irizpidea.

Biga. Zuetariko batzuk kondena ezberdinak metaturik edo bateraturik dituzue. Zenituzten sumario guztiak epaituak izan dira, kondena luze eta ugari ezarri zaizkizue eta, azkenean, Zigor Kodeak finkatzen duen topera edo limitera iristen den metaketa bat lortu da, honela 20, 25 edo 30 urteko kondena bakar bat baduzuelarik. Beno, argi ibili beharko duzue, ezen eta **espetxean egonik burutzen**

den delitu baten ondorioz jarriko litzaizuekeen zigorra EZ baita meta-keta horren baitan sartzen. Esate baterako, demagun 30 urteko kondena-metaketa bat duzula, eta espetxean suertatzen den liskar baten ondorioz beste prozedura penal bat irekitzen dizutela eta, azkenean, 2 urteko kondena bat jar-tzen dizutela. Hala bada, lehenik eta behin 30koa beteko duzu eta, hura bukatze-rakoan, 2 urtekoa betetzen hasiko zara.

7.3.ARAU-HAUSTEAK.

LOGP 42. artikulua gaiaren inguruko lehengo azalpena ematen digu, baina ez du zehazten zeintzuk arau-haustek mereziko duten zigorrik eta, era berean, zeintzuk izanen diren arinak, larriak edo oso larriak, hori guztia RPren esku uzten duelarik. Eta egun indarrean dagoen RPK ez du horren inguruan deus ere sortu, horrela **aurreko RPK gai honi buruz aurkezten zituen artikulua** –108.aren hasi eta III.a arte- espreski -”Disposición Derogatoria Unica, apartado 3”- **mantentzen direlarik.** Beraz, honakoak lirake arau-haustetzat eman daitezkeen jokabideak:

“Faltas muy graves (art. 108 RP derogado)

- a) *Participar en motines, plantes o desórdenes colectivos, o instigar a los mismos si éstos se hubieran producido.*
- b) *Agredir, amenazar o coaccionar a cualesquiera personas dentro del Establecimiento o a las autoridades o funcionarios judiciales o de Instituciones Penitenciarias, tanto dentro como fuera del Establecimiento si el interno hubiera salido con una causa justificada durante su internamiento y aquellos se hallaren en el ejercicio de sus cargos o con ocasión de ellos.*
- c) *Agredir o hacer objeto de coacción grave a otros internos.*
- d) *La resistencia activa y grave al cumplimiento de las órdenes recibidas de autoridad o funcionario en ejercicio legítimo de sus atribuciones.*
- e) *Intentar, facilitar o consumir la evasión.*
- f) *Inutilizar deliberadamente las dependencias, materiales o efectos del Establecimiento o las pertenencias de otras personas causando daños de elevada cuantía.*
- g) *La sustracción de materiales o efectos del Establecimiento o de las pertenencias de otras personas.*
- h) *La divulgación de noticias o datos falsos, con la intención de menoscabar la seguridad del establecimiento.*
- i) *Atentar contra la decencia pública con actos de grave escándalo y trascendencia.*

Faltas graves (art. 109 RP derogado)

- a) Calumniar, injuriar, insultar y faltar gravemente al respeto y consideración debidos a las autoridades, funcionarios y personas del apartado b) del artículo anterior, en las circunstancias y lugares que en el mismo se expresan.
- b) Desobedecer las órdenes recibidas de autoridades o funcionarios en el ejercicio legítimo de sus atribuciones o resistirse pasivamente a cumplirlas.
- c) Instigar a otros reclusos a motines, pldantes o desórdenes colectivos, sin conseguir ser secundados por éstos.
- d) Insultar a otros reclusos o maltratarles de obra.
- e) Inutilizar deliberadamente las dependencias, materiales o efectos del Establecimiento o las pertenencias de otras personas causando daños de escasa cuantía, así como causar en los mismos bienes daños graves por negligencia temeraria.
- f) Introducir, hacer salir o poseer en el Establecimiento objetos que se hallaren prohibidos por las normas de régimen interior.
- g) Organizar o participar en juegos de suerte, envite o azar, que no se hallaren permitidos en el Establecimiento.
- h) La divulgación de noticias o datos falsos con la intención de menoscabar la buena marcha regimental del establecimiento.
- i) La embriaguez producida por el abuso de bebidas alcohólicas autorizadas que cause grave perturbación en el Establecimiento o por aquellas que se hayan conseguido o elaborado de forma clandestina, así como el uso de drogas tóxicas, sustancias psicotrópicas o estupefacientes, salvo prescripción facultativa.

Faltas leves (art. 110 RP derogado)

- a) Faltar levemente a la consideración debida a las autoridades, funcionarios y personas del apartado b) del artículo 108, en las circunstancias y lugares que en el mismo se expresan.
- b) La desobediencia de las órdenes recibidas de los funcionarios de Instituciones Penitenciarias en ejercicio legítimo de sus atribuciones que no causen alteración de la vida regimental y de la ordenada convivencia.
- c) Formular reclamaciones sin hacer uso de los cauces establecidos reglamentariamente.
- d) Hacer uso abusivo y perjudicial de objetos no prohibidos por las normas de régimen interior.
- e) Causar daños graves en las dependencias, materiales o efectos del Establecimiento o en las pertenencias de otras personas por falta de diligencia o cuidado.
- f) Cualquier otra acción u omisión que implique incumplimiento de los deberes y obligaciones del interno, produzca alteración en la vida regimental y en la ordenada convivencia y no esté comprendida en los supuestos de los artículos 108 y 109, ni en los apartados anteriores de este artículo”.

Ikus dezakezun bezala, gertaera bera larrizat edo arintzat eman dezakete, eta hori horrela izanen da txostena idatziko duen funtzionariaren balorazio do inpresioaren arabera.

Aurrekoan aipatzen genuen **barne-araudia ezagutzea** gauza inportantea zela. Argi dago kasu honetan ezaguera horrek duen garrantzia. Esate baterako, 109.f) artikulua barne-araudiak debekatzen dituen objektuak edukitzea arau-hauste larria dela dio. Beraz, horrelako zigor bat jar diezazuten beharrezkoa da eskuartean harrapatu dizuten hori barne-araudian espreski debekaturik egotea. Bestela, ezin dizute zigorrik jarri –gogora ezazu legalitatearen printzipioaren kontu hori, ...-.

Beraz, **arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak daude, eta arau-haustearen larritasunaren arabera ezarriko dira zigorrak**. Zigor hauek hauek dira:

A.- **Faltas muy graves** (art. 233.1 RP):

- Sanción de aislamiento en celda de 6 a 14 días, en casos de evidente agresividad o violencia.
- Sanción de aislamiento en celda de hasta 7 fines de semana.

B.- **Faltas graves** (art. 233.2 RP):

- Sanción de aislamiento en celda de lunes a viernes por tiempo igual o inferior a 5 días.
- Privación de permisos de salida hasta un máximo de dos meses, limitación de comunicaciones orales al mínimo tiempo previsto reglamentariamente hasta un máximo de un mes o privación de paseos y actos recreativos desde tres días hasta un mes.

C.- **Faltas leves** (art. 233.3 RP):

- Privación de paseos y actos recreativos hasta un máximo de tres días
- Amonestación.

7.4. PROZEDURA.

Bi prozedura mota dago. Bata, arau-hauste oso larri eta larrien kasuetarako. Bestea, arau-hauste arinentzako (*laburtutako prozedura* deritzoguna. Geroxeago mintzatuko gara honetaz). Has gaitezen prozedura arruntarekin.

Behin baino gehiagotan azpimarratuko dugu ezartzen diren zigorren aurka apelazio-errekurtsoak ezin direla tartekatu. Honen arrazoia sinplea da. Izan ere, administrazioak –espetxeak berak- zigorra jarri baino lehenago zure burua defendatzeko aukera ez zaizu faltako eta, beraz, esan liteke espetxeak hartuko duen

erabakia bestelako prozedura batetan, bestelako espediente batetan JVPk emanen lizukeen lehengo autoaren parekoa dela. Beraz, **zigor baten posibilitateari aurre egin behar badiozu, garrantzi handikoa da administrazioaren aurrean zure burua defendatzea**. Ez utzi gaia bigarren fase batetarako. Lehengo unetik defendatu beharko duzu zure burua. Beraz, ongi etorriko zaizu espediente hauek nolakoak diren jakitea.

Prozedura hau zuzendariaren erabaki batekin hasten da (RP 241. art.). Zuzendariak egiten duen lehengo gauza instruktore bat izendatzea da (RP 242.1). Honen eginbeharra espediente ordenatzea da. Horretarako, lehenik eta behin gertaturikoa ezagutu behar du, eta horretarako gertaerak ikusi dituen funtzionarioak bere informea helaraziko dio, eta horrekin prestatuko du instruktoreak bere “pliego de cargos”.

Izan ere, honen bezalako zigor-espedienteetan honakoak topatuko ditugu:

- 1.- Funtzionarioak idatziko duen informea –“*parte*” esaten zaio ere, baina, kontuz, “*parte*” hitza ere erabiltzen baita “*zigorra*” esateko, ...
- 2.- (beharrezkoa izatekotan) “*jefe de servicios*” delakoaren txostena edo iritzia.
- 3.- Presoari jakinarazten zaion “*pliego de cargos*”.
- 4.- Presoak eginen duen “*pliego de descargo*” delakoa, presoaren erantzunarekin.
- 5.- Zigorra jartzeko instruktoreak eginen duen “*propuesta de sanción*”.
- 6.- Zigorra hartzen duen erabakia, “*acuerdo sancionador*”.
- 7.- JVParengana joko baduzu, presoaren errekurtsua (“*recurso de alzada*”).
- 8.- Fiskalgoaren iritzia edo txostena.
- 9.- JVParen erabakia.
- 10.- (erabaki horrekin ez bagaude akort) presoaren “*erreformazko errekurtsua*”.
- 11.- Fiskalgoaren iritzia edo txostena.
- 12.- JVPren bigarren eta azken erabakia.

“Pliego de cargos”

Zigor bat jarri dizutela (“*parte bat sartu dizutela*”) idatzi hau jakinaraziko dizutenean jakinen duzu. Bertan zer leporatzen dizuten agertuko da. Idatzi honen mamia RP 242.2. artikulua zehazten du. Beraz, idatzian argituko dizute zer den leporatzen zaizuna eta, horrekin batera, arau-haustea larria edo arina den ere argituko dizute –honi, larritasunaren neurtzeari **kalifikazioa** esaten zaiolarik-.

“Pliego de descargo”

“Pliego de cargos” delako hori jakinarazten zaizunetik 3 egun dituzu “plie-

go de descargo” hau aurkezteko. Egia da ere badagoela aukera erantzun hau ahoz, espedientearen instruktoreari zuzenean emateko aukera (RP 22.2.h. art.). Edonola ere, honen bezalako erantzun batetan inportanteenak lirakeen puntuak hauek lirake:

1. Gertakarietaz ematen duten bertsioa gezurtatu. Seguruenik ez duzu gertaera batzuen existentzia ukatu behar izanen, baina segurua da ere zure bertsioa oso ezberdina izanen dela, ez duela zerikusirik izanen funtzionarioak emandako bertsioarekin. Beraz, zure bertsioa ager ezazu.

Era berean, gertaerak uka ditzakezu, oso osoan, benetan leporatzen zai-zuna gezur hutsa bada.

2. Egon daitezkeen frogak eskura izateko eskatu. Zerbait leporatzen badizute leporatzen zaizun hori frogatzen duten frogak egon behar dira. Esate baterako, debekaturik dagoen objektu bat izatea leporatzen badizute, objektu hori nonbait egon beharko da. Eta funtzionari batek zerbait egin duzula esan badu, bere lekukotza nonbait agertu beharko da. Batzuetan interesgarria izaten da lekukotza hau ikustea, ezen eta “pliego de descargo” delakoan ez baita maiz den-dena agertzen, funtzionarioak esan duenaren laburpen hutsa izanen da, eta interesgarria izan daiteke funtzionarioaren esan osoa ezagutzea. Izan ere testu horretan lekukokak izan diren pertsona batzuk agertuko dira akaso, ...

TCK esana du froga horiek edukitzeko eskubide osoa baduzula. Beraz, froga horiek eskatuz gero, eman beharko lizkizukete. Ez bada horrela, argi konstatarazi beharko zenuke hori, “indefensión” bat sortu dizutela geroan argudiatu ahal izateko.

3. Aholkularitza legala eskatu (RP 242.2.i.). Beste edozein pertsonari laguntza eskatzeko eskubidea daukazu: abokatu bat, funtzionari bat edo beste edozein pertsona –esate baterako, beste preso bat, ...-. Garrantzi handiko urratsa izan daiteke, izan ere zigor-prozedura zuk baino hobeki ezagutzen duen baten laguntza lor baitezakezu. Eskubide hau ukatuko balizute oinarritzko eskubidea den defentsarako eskubidea (CE 24.2. art.) urratu dizute, eta hori aurrerantzean argudiatzen ahal izanen duzu, horretarako espreski agertuko duzularik nola zaizun eskubide hori urratu.

Nahi baduzu abokatuari aholkua eskatu “pliego de descargo” delakoan bertan eska dezakezu telefono deia.

Beste preso batekin hitz egiteko eskatuko baduzu gerta daitekeen gauza da komunikazio hori interbeniturik izatea, izan ere bai berak baita zuk ere, biok komunikazioak aldez aurretik interbeniturik dituzue eta.

4. Frogak eskatu (RP 242.2.h.). Pentsatzen baduzu frogaren bat edo beste lagungarria duzula, eska ezazu: dokumentu batzuk –txosten medikoak, zuzendaritzaren aginduak, miaketa burutu den bitartean prestatu den informea, ...- gehi ditzatela, lekukoen lekukotzak gehi ditzatela –beste presoek zein funtzionarioek-, ...

Froga bat eskatze hutsak ez du bermatzen froga hori burutuko denik. Litekeen gauza da espetxeak ez onartzea. LRJAP 137.4. artikulua zera dio:

*“Se practicarán de oficio o se admitirán a propuesta del presunto responsable cuantas pruebas sean **adecuadas** para la determinación de los hechos y posibles responsabilidades.*

Sólo podrán declararse improcedentes aquellas pruebas que por su relación con los hechos no puedan alterar la resolución final a favor del presunto responsable”.

Beraz, legeak aurreikusten duena da froga batzuk egokiak (“adecuadas”) izan daitezkeela eta, beraz, litekeen gauza da zuk proposatuko dituzunak desegokiak izatea. Hala erabakiko badute, hori horrela zergatik den arrazoitu beharko dute (RP 244.3., eta STC 1957/1995, abenduaren 19koa). Ez badute arrazoitzen zergatik ukatzen dizkizuten, JVPregana joko duzunean beste argudio bat izanen duzu. JVPk horren inguruan bere iritzia emanen du, bere ustez zeintzuk froga ziren beharrezko eta zeintzuk ez ziren beharrezko argituko duelarik.

“Propuesta del instructor”

Instruktoreak pentsatzen badu espedientean bildu behar diren elementoak edo frogak badaudela zigorra jartzeko proposamena eginen du. Berak ez du zigortzen, baizik eta zigor-batzordeak zigorra jar dezan proposamena egiten. Proposamen honen aurka beste alegazio batzuk tartekatzen ahal izanen dituzu.

“Acuerdo sancionador”

Zigor-batzordeak erabaki bat hartuko du eta jakinaraziko dizu (RP 248. art.). Parte artxiba dezake, baina zigorra jar diezazuke (RP 246.1. art.). Ondoren JVPren aurrean tartekatuko duzun errekurtsoa presta dezakezu, erabilgarriak izanen diren bost egunetako epean (RP 248.b. art.).

JVPren aurrean tarteka daitezkeen errekurtsuak

JVPren aurrean tarteka daitezkeen errekurtsuak zigor espedientearen azken urratsak dira. Zigor kontu hauetan zeintzuk errekurtsu sar daitezkeen LOPJ delakoaren “Disposición Adicional Quinta, 1., 2.” delakoak zehazten du. Eta bakarririk dira posible bi errekurtsu mota:

- **“recurso de alzada”**, “acuerdo sancionador” delakoaren aurka tartekatzen den lehena.
- **“recurso de reforma”**, zure “recurso de alzada” dela eta JVPk emaniko autoaren aurka tartekatuko zenukeena.

Baina, gogora ezazu, ezin izanen duzu inoiz APren aurreko ape-

lazio-errekurtsua tartekatu, hain zuzen ere Probintzia Entzutegi (AP) hauek ez baitute zigor kontu hauen inguruko eskumenik. Hala ere, litekeen gauza da zigorra probokatu duen gaia edo gertakaria azkenean APraino iristea. Demagun zigor bat jarri dizutela ziegan zauden bitartean burutzen duten zenbaketa batetan ez zarelako altxatu. Espetxeak jarriko dizun zigorraren aurka errekurtsua tartekatuko duzu, bai, baina era berean litekeen gauza da zenbaketak burutzeko moduagatik salaketa edo kexa tartekatzea ere. Lehengo espedientean zigorra zuzena izan den ala ez den erabakiko da, eta bigarrean zenbaketak nola egin behar diren zehaztu beharko dute. Eta, bitxia bada ere, litekeen gauza da JVPk zigorra berbaieztatu izana eta, ordea, APk zenbaketa gaizki zegoela eginda esatea. Egoera kontraesankorra litzateke, espetxeak ez baitzuen altxa zintezten exigitzeko eskubiderik eta, ordea, zigorra jarri zizuten. Kasu hauetan zigor haren baliogabetzea eskatu beharko diozu, zigor-batzordeari edo JVPri, azken honek berbaieztia bazuen zigorra.

Nola prestatu zigor baten aurkako helegitea? Kasu guztietarako baliagarria litzateken testu bakar bat egitea ezinezkoa da. Edonola ere, helegite guztietan bi bloke topatuko ditugu:

- **“Gertaerak”**. Hemen aipatuko duzu nola izan den espediente eraiki, zer nolako urratsak eman diren, “pliego de cargos”ekin hasi eta “acuerdo sancionador” delakoarekin bukatu. Azpimarratu beharko duzu alegazioak tartekatu dituzun ala ez, frogak proposatu zenituen ala ez, ...
- **“Errekurtsuaren funtsak”**. Eta hemen azalduko duzu zergatik uste duzun zigorra ez dela Zuzenbidearekin bat. Gertaeretz zure bertsioa errepikatuko duzu, zeintzuk frogak dituzun, froga horiek ez badira burutu eskatuko diozu JVPri berak buru ditzan (RP 248.b. art.), eta prozeduran suertatu diren akatsak ere azpillerrotuko dituzu: esate baterako, dauden frogak zuri jakinarazteko eskatu eta ukatu bazizuten, ... Eta, bukatzerakoan, adierazi beharko duzu zer den eskatzen duzuna. Batzutan eskatuko duzu zigorra bertan behera gera dadin, beste batzutan zigor txikiagoa izanen da eskatuko duzuna, ...

Laburbilduz, zure defentsaren oinarria bikoitza da. Alde batetik, gertatutakoak zure bertsioa ematea. Bestetik, burutu ez diren frogak buru ditzan eskatuko dizou JVPri. Eta prozedurak jarraitu behar zuen tramitazioa ez badu jarraitu, orduan espediente osoaren baliogabetzea eskatuko duzu.

Beste batzuetan, ordea, eginen duzun gauza bakarra **gertaeren gradua-zio zuzenago bat** (RP 244. art.) eskaintzea izanen da. Ez dituzu gezurtatuko gertaerak ezta zure partehartzea kolokan jarriko, eta zigor bat jar diezaizuketela onartuko duzu, zigor honen tamaina izanen delarik eztabaidatuko duzuna.

Eta, bukatzeko, gogora ezazu erreforma-helegitea baduzula, baina ez apelazio-helegitea.

Laburtutako zigor-espedientea

Zuzendariak uste badu arau-haustea arina dela, laburtutako zigor-espediente baten bitartez ebatziko da, espediente mota honen izaera nagusia delarik hasten denetik eta bukatu arte epe zehatza duela: hilabete bat (RP 251. art.). Funtzionarioak eginen duen “parte”ak –gertatutakoaz txostena- “pliego de cargos” delakoaren funtzioak betetzen ditu (RP 251.a. art.), eta “jefe de servicios” delakoari ematearekin batera zuri ere jakinaraziko zaizu. “Jefe de servicios” bera duzu instruktorea kasu hauetan, eta alegazioak tartekatzeke 10 eguneko epea duzu. Alegazioak aurkeztu eta zuzendariak erabakia hartuko du (zigorra jarritz edo jarri gabe).

“Jefe de servicios” delakoak, ordea, pentsatzen badu arau-haustea ez dela arina baizik eta larria edo oso larria, utziko du tramite arrunta abitzen (RP 251.2. art.), hori jakinaraziko dizu, eta bost eguneko epea izanen duzu zure “pliego de descargo” aurkezteko.

Ondoren, jakina, JVPra jo ahal izanen duzu.

7.5. ZIGORRAK.

Zigor bat bete behar izateko zigor horrek **finkoa** (aldaeina, “firme”)a behar du izan (LOGP 44.3. eta RP 252.1. art.). Beraz, zigorra jarri badizute baina horren aurka helegitea tartekatua baduzu, helegitea ebatzi arte ezin izanen dizute zigorra bete dezazun eska. Beraz, irizpide orokorra da **errekurtsoen tartekatzeak geldiarazten duela zigorraren betetzea**. Salbuespen bat badago: 1981.ko RP 108. artikuluan agertzen diren kasuen artean lehengo sei kasuetariko batetan bageunde. Horrelako batetan bageaude, **“berehala bete beharreko” zigor** baten aurrean gaude, eta horrela agertuko da “acuerdo sancionador” delakoan (LOGP 44.3. eta RP 252.2. art.). Batzuetan berehala betetzen hasteko aginduko dizute, baina ez dituzu egun denak beteko, eta errekurtsoa sartu duzula konturatzera zure bizi-erregimen arruntera itzuliko zara. JVPk zigorra berbaieztatuko badu, bete dituzun egun horiek deskontatuko zaizkizu.

Aurreko atal batetan esaten genuen moduan, zigorra sei motatakoak izan daitezke:

1. Ziegan isolatzea.
2. Asteburuko isolatzea.
3. Kaleratzeko baimenen kentzea.
4. Hilabete batez, gehienez jota, ahozko komunikazioak arauturik dagoen gutxienekora murriztatzea.
5. Paseoak eta jardun kolektiboen kentzea.
6. Ohartarazpena, errieta.

Eta, gogoratu, legalitate printzipioaren ondorioz, ezin dira beste motako zigorrak (esate baterako, irratia kentzea, ...) ezarri edo asmatu.

Zigor horien mamia nolakoa den eta nolako murriztapenak ekarriko dizkizun aztertzeko hiru ataletan bilduko ditugu zigor hauek.

7.5.1. Isolamenduzko zigorrak.

Hauxe da jar diezaizuketen **zigorrik gogorrena**, eta legeak aurreikusten duen birzi-erregimenik gogorrean egotea suposatzen du. Beraz, gogoratu, zure ziegan isolaturik egotera behartzen zaituen zigorrean dauden bizi baldintzak baino gogorragoak lituzkeen erregimenak debekaturik daude.

Beno, gauzarik nabarmengarriena izanen da eguneko 22 ordu zure ziegan eman beharko dituzula. Praktikan (RP 254. art.),

- bakarrik izanen ditudu **2 patio ordu**, eta patiora beste inoren gabe aterako zara.
- egoera honek **tope** bat badu (LOGP 42.5. eta RP 236.2. art.): 42 egun, edo, zigor batzuk izan badira, euren arteko zigorrik latzenaren hirukoitza.
- printzipioz, zigorra **zeure ziegan** bete beharko zenuke. Horrela dio hitzez hitz legeak, eta horrekin egin dute bat hainbat JVPk zein Probintzi Entzutegik. Beraz, exigi ezazu. Ez bada horrela izango eta beste ziega batetan bete beharko baduzu (LOGP 43.4. eta RP 254.4. art.), jakin ezazu ziega horrek *baldintza eta neurri berdintsuak* izan behar dituela. Espetxeak, ordea, nahi izanen du isolamenduzko depertameenduan dauden ziegetariko batean bete dezazun. Jakina, karkoa da ziega horrek ba ote dituen baldintza zein neurri berdintsuak. Guk egiten dugun interpretazioa argia da. Ziega berdintsua baldin bada egon beharko zenukeen hura, horrek nahi du esan pairatu behar duzun murrizketa bakarra isolaturik egotearena dela eta, beraz, egunerokoan zure ziegan dituzun gauza guztiak (irratia, arropak, liburuak, telebista, ...) izan beharko zenituzke zigorra ordaintzen duzun bitartean ere. Hala ez bada, tarteka ezazu salaketa JVPn.
- **sendagilea** egunero pasako da, nola zauden ikusteko.
- kaletik sartzten den **paketearen aukera** murrizturik geratzen da, eta soilik izanen duzu aukera hori zuzendariak espreski onartzen badu.
- halaber, **ekonomatoan** gauzak erosteko aukera zuzendariak ere erabakiko du.
- **asteburuko islatzea** bada, larunbateko 16.00etan hasiko zara, asteleheneko 08.00ak arte. Igandean bi patio ordu izan behar dituzu. Arazorik balego, salaketa jarri JVPn.
- **komunikazioak**. Ez dago honen inguruko aipamen zehatzik eta, beraz, LOGPren filosofiari jarraiki, komunikazio arruntak mantendu beharko lira-

teke, mugarik gabe. Besterik litzateke beste neurriak hartuko badituzte: beste ordutegi bat izanen duzu, bakarrik aterako zaituzte, ... Esate baterako, 24/96 zirkularrak –abenduarien 16koak, alegia- horixe dio, A.2.k) puntuan, komunikatzeko txanda bereziak izanen direla kasu hauetan. Era berean, A.3.3. puntuan komunikazio bereziak egin ezin direla dio eta, beraz, ahalgina egin beharko luke espetxeak isolatze-zigor horiek betetzeko egunek bat egin ez dezaten komunikatzeko egunekin. Hala ere, kointzidentzia hori emanen balitz, komunikazio berezia gorde egingen dizute eta aurrerantzean, isolatze-egoera hori bukaturik, gozatuko duzu komunikazio hori. Hori dela eta etxeako abisatzeko aukera eman beharko lizukte, bidaia egin ez dezaten. Eta, hala ere, espetxera agertuko badira etxeakoak, 20 minutuko komunikazio arrunta emanen zaie. Bukatzeko, egoera biziki korapilatsua sor daiteke, baldin eta etengabean isolatze-zigorrak ordaintzen egonen bazara, praktikan komunikazio bereziak egitea ezinezko izanen duzularik. JVPra jo beharko duzu, baina alde zure aurretik mintza zaitez zure abokatuarekin.

7.5.2. Ahozko komunikazioen kentzea.

Zigortzeko aukera bat da. Gehienez jota hilabete batez, arauk onartzen duten minimora jeits edo murriz ditzakete ahozko komunikazioak (komunikazio bereziekin ezin daiteke horrelakorik egin: 19/96 zirkularra, 14.i. puntuan). Baina zuk, praktikan, gutxienekoa den komunikazio-aukera duzu betiere eta, beraz, zigor honek zuregan inongo eraginik izanen ez duenez ez dizute inoiz aplikatuko.

7.5.3. Paseoen kentzea.

Zigor honen edukia, izenak berak erakusten duen gisan, oso sinplea da: paseo eta patio orduetan ezin izango duzu zure ziegatik atera. Luzapen ezberdinak izan ditzake zigor honek, gutxienez hiru eguneko eta gehienez jota hilabete-koa.

19/96 zirkularra dugu, berriro ere, aipatu beharrekoa, 14.j. puntuan honelaxe baitio: *“La sanción de privación de paseos y actos recreativos comunes se cumplirá en la celda del interno durante los períodos que las Normas de Régimen Interior de cada Centro señalen como horario de paseos y actos recreativos. En todo caso, se respetará la asistencia de los internos sancionados a las actividades programadas cualquiera que sea el horario de las mismas”*.

Beraz, nahiz eta zigor honen pean egon, normalean parte hartzen duzun aktibitate edo jardunetara ateratzeko eskubidea ez duzu galtzen.

Zigor honen alderik kritikagarriena ondokoa da. Baldin eta erregimen itxian bazaude, eta baldin eta jardunetara joateko aukerarik ez badago –eta askotan ez da egoten-, zigor honen aplikazioak isolamenduzko-zigorrak dituen baino bizi baldintza eskasagoetan kokatuko zaitu, ondorioa izan baitaiteke patiorik gabe geratuko zarela. Honen bezalako kasuetan gutxienez 2 patio ordu errespetatuta die-

zazuten exigitu beharko duzu, aurrekoan erakutsi dugun argudioa erabiliz (isolamenduzko-zigorra da egoerarik gogorrena, ...). Izan ere, hainbat JVPk ulertu du honezkero egoera hauetan zigor hau ez dela aplikagarria.

7.6. KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT KONTZEPTU.

7.6.1. Zigorren berehalako betetzea.

Normalean, lehenago esan bezala, zigorra finkoa izan arte bete behar ez izatea da araua. Horixe da arau orokorra, baina salbueespena badago, eta esplikatua dugu gaia.

7.6.2. Kautelazko neurriak.

Hauek zigorra finkoa izan baino lehenago har daitezkeen neurri batzuk dira. Zuzendariak erabakiko ditu, baina zure espedientean horien konstantzia geratu behar da eta, era berean, JVPri berehala jakinarazi behar zaizkio. Neurri hauek aplikatzeko badaude errespetatu beharreko irizpideak: intentsitatea, beharrezkotasuna eta proportzionaltasuna.

Kautelazkoa den neurri honen edukina geroan jarriko zaizun zigoretik deskontatu beharko dizute. Beraz, egun batzuez isolaturik bazaukate, egun horiek zigorrak ezarriko dituenetik deskontatu behako dizkizute.

Edonola ere, kautealazko neurri hauek oso kritikatuak izan dira. Alde batek RPK berak ez duelako zehazten nolakoak edo zeintzuk izan daitezkeen, zuzendariaren esku zabalean geratzen delarik horien zehaztapena. Bestaldetik teoriaren euren helburua presoak etorkizunean zigorra ez betetzearen arriskua saihestea delako, eta bistakoa da ezinezkoa dela, espetxe batetan, zigorra bete behar izateari trufa egitea, ...

7.6.3. Preskripzioa.

Zigorra ekar dezakeen gertaera jazo zenetik epe zehatz bat pasatzen bada, preskripzioaren kasuan gaude. Berdin gerta daiteke baldin eta zigorra jarri izan bazen baina gero ez bazen betearazi eta epe hori iragaiten bada. Galdera, beraz, logikoa da: **zenbat denbora pasa behar da** zigorrak edo gertaerak preskribiturik egon daitezen? Arau-hauste eta zigor oso larrientzako epe bat dago: hiru urtekoa. Arau-hauste eta zigor larrientzako epea, ordea, txikiagoa da: bi urtekoa. Arau-haustea arina izan bada, sei hilabetekoa da epea. Eta, bukatzeko, zigor arina bada pendiente duguna, urtebetekoa da epea (LRJAP 132. eta RP 258. art.). Epeak, bistan da, aski luzeak dira. Eta gainera espedientean erabakiren bat hartzen den bakoitzean epe hori eten egiten da eta, beraz, hortik aurrera berriro hasten gara zerotik zenbatzen. Beraz, preskripzioa gozatzeko aukerak oso txikiak izaten dira, ...

7.6.4. Ezeztapena.

Jarri dizuten zigor bat bete izanak ez zaitu zigor hori hartu izateagatik sortzen diren ondorio guztietatik berehala libratzen. Izan ere, nahiz eta zigorra bete duzun, **zigorra jaso izanak ondorio batzuk izaten jarraitzen du**, nolabait bizirik balego. Beraz, ezeztapen hau gertatu arte zigorraren existentzia eta bere ondoriek, neurri batetan, badiraute.

Noiz apuntatzen da zure espedientean zigorra ezeztatu behar dutela? Epe ezberdinak daude. Zigor oso larrien kasuan epea sei hilabetekoa da, larrien kasuan hiru hilabetekoa eta arinen kasuan hilabete bakarrekoa (RP 260.1.a) art.). Epe hauek zigorra bete duzun unetik aurrera hasten dira zenbatzen. Baina epearen iragaiteak eragina izan dezan beharrezkoa da tarte horretan, epe horretan bestelako zigor finkorik ez izatea (RP 260.5. art.). Bestela, epeak zenbatzen hasteko data berriekien jarritako zigorraren betetzearen data izanen da, eta kontuan hartzeko epea zigorrik larrienari dagokiona izanen da.

Aurrekoa, edonola ere, bakarrik aplikatzen zaie zigor oso larri eta larriei. Zigor arinen kasuan –19/96 zirkularra, 14.k. puntuan-, bana banan zenbatuko dira, bakoitzaren betetze-datatik aurrera hilabetea pasa beharko delarik.

Aurreko kontu hauen guztien garrantzia bi alorrekin dago loturik: batetik, luditzeak (erredentzioak) gozateko aukerarekin, eta bestetik berrerortzea (reintzidentzia) aplika ez diezaizuten (RP 262. art.). Luditzeen kasuan, hauek bakarrik etengo dituzte baldin eta bi zigor finko badaude eta, beraz, ezin izanen dio espetxeak JVPri luditzeak moz ditzan proposatu kontuan hartzen den zigor horietariko bat ezeztatua badago.

Zigorra **ofizioz** ezeztatzen dira, hots, zuk eskatu gabe espetxeak berak egin beharko luke apunte hori zure espedientean. Egiten ez badu, presoak horrela egin dezan eska diezaioke (RP 260.1. art.). Era berean, kalera ateratzerakoan ezeztatzen dira ere (RP 260.2. art.).

Badago **epe hauek guztiak motzagoak izan daitezen aukera**, hain zuzen epea erdira jeits dadin aukera. Horretarako RP 263.k aurreikusten dituen **ordainsariren** bat eskuratu beharko zenuke eta, gainera, espetxeak espreski horrela onartu beharko luke, ez baitago legez horretara beharturik. Normalean “nota meritoria” bat emanen dizute (zure espedientean apuntatzen den iruzkina da ohar hori), eta ohar horrekin lor dezakezu epeak motzagoak izan daitezen. Aukera hau berebiziki interesgarria izan daiteke baldin eta luditzeak gozateko aukera baduzu, ezen eta zigorra ezeztatzeko epea erdira jeisten bada inhabilitazio egoera ere modu horretan egokituko baita.

7.6.5. Zigorren erreplikapena. Berrerortzea.

Aukera honen esanahia argia da. **Aurreko zigor bat ezeztatu gabe baduzu eta beste bat burutzen baduzu**, bigarren honen zigorra handiagoa izan daiteke, zehazki zigorrak izan dezakeen gehienekoaren erdia gehituz. Horre-

tarako ezetzatu gabe dituzun zigorrek larriak edo oso larriak behar dute izan (RP 235. art.). Arinak badira ez dago aukera hori. Honi esaten zaio berrerortzea. Beraz, adibide gisan, halako egoera batetan bazaude eta 14 eguneko zigorra jar-tzeko aukera badute, litekeen gauza da azkenean zigor hori 21 egunekoa izatea (14 bada topea, erdia 7 dugu, eta 14 gehi 7 berdin 21).

7.6.6. Arau-hausteen pilaketa.

Bi pilaketa (“concurso” dugu erdarazko hitza) egon daiteke, RP 263.k dioe-naren rabela:

- Zigor Zuzenbidean “**concurso real**” deritzotena (RP 236.1., 2. eta 3.). Honen esanahia da espediente bakar batetan aztertuko dien arau-hauste batzuk burutu direla. Nola betetzen dira? Printzipioz, eta posiblea bada, den-denak batera beteko dituzu. Esate baterako, zigor batek komunika-zioak mozten badizkizu eta beste batek isolatzen bazaitu, biak bete daitez-ke batera eta hala izanen da. Ezinezkoa bada denak batera betetzea, bata bestearen atzetik beteko dira, larriena denarekin hasiz (esate baterako, bi isolamenduzko zigor baduzu, bata bestearen atzetik beteko dituzu, larriena denarekin hasiz). Baina hemen muga bat badago. Isolatze-egunak badira bete beharrekoak, muga 42 egunekoa da edo, bestela, zigorrik larrienaren hirukoitza. Eta isolatze-egunak 14 baino gehiago badira, zigor horren bete-zea espreski behar du JVPk onartu.
- Zigor Zuzenbidean “**concurso ideal y medial**” deritzotena (RP 236.4. art.). “**Ideal**” esaten zaio baldin eta gertaturiko zerbait bi moduz, bi arau-hausteren bitartez defini badaiteke. “**Medial**” litzateke, ordea, baldin eta bi gertaera egon bada baina lehena bigarrena betetzeko bitartekoa (“medio”) bada. Kasu bi hauetan bete beharko den zigorra bion artean larriena izanen da, eta gainera bere goiko sapaian, bere mugan, ez bada gertatzen bi zigo-rren gehiketa txikiagoa dela eta, orduan, gehiketa honekin geratuko zara.

7.6.7. Arau-hauste jarraitua.

RP 237. artikulua aurreikusten du, eta Kode Penalaren 74. artikuluan agertzen denaren parekoa da. Halakorik dagoela esateko **beharrezkoa izanen da**:

- debekaturik dagoen jokabide bat baino gehiago burutu izana.
- jokabide horiek guztiek arau bera edo berdintsua hautsi izana.
- aldez aurretik prestatuturiko plana edo aukera berdintsua profituaz burutu izana.

Adibide bat. Demagun etxartea garbitzeko eskatzen dizutela eta erabaki-tzen duzu ezetz, funtzionaria horren eske etorriko den guztietan ezetz esanen diozula. Horrela eginez gero, hurbilduko zaizun bakoitzean parte bat jarriko dizu-

te. Bistan da plan oso baten ondorioa dela gertatzen ari dena, guztia dela *gertaera bakar-luze* bat. Era berean, eta arau-haustea betiere berdina delako, jarriko dizuten zigorra beti izanen da berdina.

Beno, kasu hauetan bete beharreko zigorra zigorrik larrienaren **topea** izanen da. Eurek berek egin beharko zuten hau, den-dena zigor bakar bat balitz bezala ulertu eta horren arabera zigortu. Ez badute horrelakorik onartzen, ordea, zuk eskatu beharko diezu. Eta, adibidez, paseoak kentzeko zigorra izanen bada, eta ukazio bakoitzeko 20 eguneko jarri nahi izanen badizute, nahiz 20ko asko eta asko egon, azkenean 30 eguneko beharko litzateke izan zigorra, izan ere hilabetekoa –30 eguneko- delako gehiena.

Tope honi, bestaldetik, ezin zaio berrerortzearen teoria edo figura aplikatu, ezen eta arau-hauste jarraituaren logika eta berrerortzearen logika zeharo aurkatuak eta kontrajarriak baitira (Ciudad Real.eko JVP, 2002.05.02ko autoan, herrialde horretako Probintzia Entzutegiaren autoa –2001.02.09.koa- bere eginez).

7.6.8. Bete gabe beteriko zigorren ordainketa.

Eta, aurrekoarekin jarraituz, zer gertatuko litzateke arau-hauste jarraitua zela uste baduzu baina honezkero zigor guztiak, guzti-guztiak ordaindu badituzu? Edo zer gertatzen bada zigor bat ordaintzen baduzu eta ondoren bertan behera, baliorik gabe geratzen bada?

RP 257. artikulua aukera hori aureikusten du, hankasartze bat gertatu izatekotan espetxeak ordaindu behar ez zenituen eta ordaindu dituzun **egun horiek itzuli** behar dizkizula aginduz. Nola? Deskontatuko dizkizu. **Baina bakar-bakarrik baldin eta** zigor horiek probokatu dituzten gertaerak baliogabetze hori baino lehenagokoak badira. Bestela balitz, presoari nolabaiteko karta txuria emanen litzaioke eta, ...

Beraz, horixe da baldintza: zigortzen diren gertaerak lehenagokoak izatea. Horrelakorik ez badago eta egun batzuk behar gabe ordaindu badituzu, zori txarra,...

7.6.9. Baliogabetzea.

Aurreko paragrafoan agertzen zen aukera dugu hau. Espetxeak berak ikusten badu JVPri errekurritu ez diozun zigor bat modu okerrean betearazi dizute-la, berriro kalifikatuko dute, beste batekin ordezkatu edo, sinpleki, bertan behera utziko. Zigor horren ezartzean JVPk parte izan badu, ezin izanen da deus ere egin JVParen parte hartzerik gabe.

7.6.10. Murriztapena.

Beste aukera bat da. Honen esanahia sinplea da. Litekeen gauza da zigorbatzordeak berak jarri dizun zigor bat murriztea, txikiagotzea (baina aukera zaila


da, kontuan izanik eurak direla zigorra jarri dizutenak, ...), eta liteken gauza da JVPk, zure errekurtoa aztertzerakoan, zigorra berkalifikatzea edo txikiagoa egitea. Esate baterako, litekeen gauza da espetxeak enkartelada bat arau-hauste larria dela esatea eta JVPk, ordea, gauza arina dela ulertzea, ...

7.6.11. espetxean berriro sartzean bete gabe zeuden zigorren betetzea.

Litekeen gauza da ere kaleratu izana eta libre egon zaitezela, eta atera orduko bete ez dituzun parte edo zigor batzuk barruan geratu izana. Berriro sartuko bazara espetxera, ez dituzu zigor horiek bete behar. Preskripziorik egon ala ez egon, zigor hauen guztien iraugitea automatikoa da, berezko gauza (RO 259. art.).

7.6.12. Zigorren kentzea.

Bakarrik ahal izanen dira zigorra kendu (**suspenditu, bete gabe utzi**) baldin eta zigor-batzordeak horrela agintzen badu edo tratamendu-batzordeak ulertzen badu zigor horiek betetzeak, tratamenduaren aldetik, kaltea ekarriko diola presoari (RP 255. art.). Bistan denez, artikulua hau orokorrean espetxean jarrera ona duten baina, hala ere, inoiz arau-hausteren bat burutzen duten pre-soentzako dagoela pentsaturik, ...



SALAKETAK.

8.1. INSTRUKZIO EPAITEGIRAKO SALAKETAK.

Espetxe funtzionarien, Estatuko Segurtasun Gorputz eta Indarretako kideen edota epaileen jokabide guztiek legeei lotuak izan behar dute. Administrazio-ko arduradunek eta haren funtzionariak, herritar arruntak baino areago, erabat derrigortuta daude legearen arabera jokatzera. Hala gertatzen ez denean, logikoenena prozesu zigortzaile bat, judizial nahiz administratiboa, abian jartzea da, gertatutakoa ikertzeko eta, hala behar balitz, delako funtzionaria zigortzeko. Bestela esanda, zeuk ere salaketa egin dezakezu.

JVPren eskuduntzez jardun dugunean esan dugunez, epaitegi hura da ia guztiagatik keza edo salaketa aurkezteko jo behar dugun tokia; hala ere bada salbuespen bat, jarraian azalduko duguna. Gerta liteke **funtzionario edo polizia baten jokabidea lege-kontrakoa izatea, baina ez eskubide bat ukatu edo gure preso egoera dela-eta betebeharrak ezarri nahi digulako, baizik eta Kode Penalak (KP) zigortzen duen jokabidea izateagatik.**

Honelako jokabideak, edozeinek eta edonon egiten dituela ere, KPk zigortu egiten ditu. Esate baterako, kiroldegira joatea galarazten digutenean, kasuak bizi-baldintzekin du zerikusia. Aitzitik, funtzionario batek zerbait lapurtuko baligu, adibidez, ez luke bizi-baldintzekin zerikusirik eta delitu argia litzateke. Halako kasuetan salaketa ez da JVPn aurkeztu behar, dagokigun **instrukzio epaitegian** baizik, delituak eta hutsegiteak ikertzen dituen epaitegia baita.

Tokian-tokian instrukzio epaitegi bat baino gehiago izan ohi da, beraz, beharbada zuk ez dakizu haietatik zein arduratuko den auziaz. Ez du axolarik. Aipatutako kasuren bat salatu behar duzunean, zuzendu zaitez “*Guardiako Instrukzio Epaitegiari*” (“*Al Juzgado de Instrucción de Guardia*”) edo “*Dagokion Instrukzio*

Epaitegiari” (“*Al Juzgado de Instrucción competente*”). Ondoren instrukzio epaitegiek berek, halako irizpideen arabera, banatzen dituzte salaketak eta kausak.

Ikus genitzakeen delituetatik zenbait honakoak dira –gertatzen direnean errazago ulertzen da gertatzen ari direla, bai gure kontra bai beste presoren baten kontra, horregatik nabarmenduko ditugu–:

A.- **Tortura delitua** (KP 174-176 artk.). Espetxe esparruan gertatzea arraroa da, delitu hau ikerketa baten barruan edo aitortza bat lortzeko egiten da eta. Polizia-etxeetan tratu txar fisiko zein psikikoak edo torturak jasan badituzu, kartzelara sartu bezain laster salaketa bat egin behar duzu Instrukzio Epaitegian. Hartarako, jar zaitetz harremanetan zeure abokatuarekin eta emazkiozu ahal dituzun datu guztiak, gertatutakoa deskribatu eta tortura egileen edozein identifikazio-datu errazteko.

B.- **Lesio delitua** (KP 147 art. eta hurrengoak) eta lesio hutsegitea (KP 617 art.). Hau da, nola kartzelan hala lekualdatzeetan gertatzen den edozein eraso, zauririk eragin zein ez. Garrantzitsua da egileen identifikazioari buruzko datuak ematea. (**Hutsegite** bat *delitu txiki* bat besterik ez da; gertatutakoaren ondorioen arabera: delitua izango da lesioen ezaugarrien arabera, arinak baldin badira –hasierako sendaketa besterik ez da behar– hutsegitea izango da. 50.000tik gora pezeta balio duen zerbaite lapurtuz gero lapurreta delitua dago, lapurtutakoak gutxiago balio baldin badu hutsegitea soila dago...). Lesio delitu bat gertatu dela uste izan eta lesioak nabarmenak baldin badira, nahitaezkoa da kartzelako sendagileak ikus zaitzala eskatzea eta hark, lesioak zein diren ondo idatzita, beharrezko partea egitea; salaketan eska ezazu, halaber, lehenbailehen auzitegi-medikuak ikus zaitzala.

C.- **Desobedientzia delitua** (KP 410.1 art.). Esate baterako, kartzelak epailearen autoak, alegia, eskubideak aitortzen dizkiguten JVPren autoak, betetzeari uko egingo balio gertatuko litzateke.

D.- **Ez beharrezko gogortasuneko delitua** (KP 175 eta 533 artk.). Espetxe funtzionariaren jokabideak ez beharrezko eta lege-kontrako gabeziak edota sufrimenduak eragingo balizkizu gertatuko litzateke. Adibidez, presoa bakartze ziega batera eraman, arropak kendu, lan-jantzi bat eman eta zenbait egunetan handik ezin irtetea.

E.- **Prebarikazio delitua** (KP 404 eta 446 artk.). Kode Penalak, gertakarien erantzuleak funtzionario publikoak edo epaileak diren bereizten du; horren arabera da prebarikazio delitua. Prebarikazioa ebazpen bidegabe bat, halakoa dela jakinda, ematea da.

F.- **Mehatxu delitua** (KP 169-171 artk.) eta **mehatxu hutsegitea** (KP 620 art.).

Behin salaketa aurkeztuta, **kanpoko norbaitek hura aurkeztuta dagoela egiaztatzea** komeni da. Dei batek bakarrik ez dagoela gogorarazten dio

jasotzen duenari. Izan ere, zerbait salatzerakoan dagokion instrukzio epaitegira, hau edo hura gertatu zaizula eta berori delituzkoa dela uste duzula esanez idazki bat bidaltzen baduzu, baliteke epaitegiak eginbide pare bat obratu eta, jarraian, salaketa artxibatzea, ... zuri jakinarazi gabe ere. Legez litekeena da hau gertatzea. Horregatik, salaketa bereziki interesatzen bazaigu, aurkeztu eta berehala jar zaitetz harremanetan abokatuarekin, eta bion artean zer egin erabakiko duzue: abokatua hautatu, prokuradore bat izendatu, ... Bestetik, salaketak gertakariak jazo bezain laster aurkeztea komeni da. Ez da itxaron behar, gero esango baitigute ez dela salaketa espontaneo, ez duela sinesgarritasunik.

Instrukzio epaitegian salaketa bat **aurkezteko tramitea** erraza da. Aipatu bezala, ohikoena da gertakarien kontaketa –ahalik zehatzena egiten saiatu behar duzu– luzea izatea eta instantzian ez kabitzea, beraz zuzenena folio zuritan idaztea da, zuretzat kopia bat gordeko duzula. Ondoren, instantzia bidez, idazkia bideratzeko eskatu behar duzu. Lehen unetik egoki uste dituzun froga-obratzeak eska ditzakezu (lekukoak, idazkiak, etab.), eta era berean garrantzitsua da dituzun froga guztiak hasieratik ematea. Nolanahi ere, gorde ezazu salaketa originala gutunazal batean eta itxi berau, kanpoaldean honakoa jarrita: “Guardiako Instrukzio Epaitegira” (“Al Juzgado de Instrucción de Guardia”), eta emaiozu funtzionariari bidera dezan. Bi egun geroago, kartzelatik atera dela dioen jasotze-agiria emango dizute.

Halaber, **kereila** bat aurkeztuz sala ditzakezu gertakariak. Aurrekoaren desberdina da, ordea, abokatuarekin eta prokuradorearekin, eta notari aurrean botere berezi bat emanez, aurkeztu behar baituzu. Kasu honetan zeuk ere burutuko duzu akusazioa –akusazio partikularra edo herri-akzioa, kasuen arabera–; salaketan, berriz, akusatzen duen bakarria fiskala da. Hau guztia, baina, zure konfiantzazko abokatuari kontsultatuko diozu, tramitea korapilatsuagoa denez, kereila kasurik larrietan eta segimendu berezikoetan bakarrik erabiliko da eta.

8.2. DGIP ERAKO SALAKETAK.

Espetxe funtzionarioen kontra aurkezten direnak dira, **DGIPk haien aurkako diziplinazko espediente bat** has dezan. Kasu honetan egokiena gutunazal itxian aurkeztea da (LOGP 50.I art. eta RP 53.I art.), eta dagokion jasotze-agiria emango dizute.

Salaketa mota honek, delituzkoak ez diren, hau da, KPak zigortzen ez dituen gertakariak jazotzen diren kasuetarako balio du. Izan ere, gertakari horiek delitutzat jotzen ez badira ere, **legeria urra lezakete, baina kasu honetan ikuspuntu administratibo batetik**. Zuk preso gisa hutsegite koadro bat duzun moduan, Estatuko funtzionario guztiek, Administrazioko langile gisa, eta espetxe-etakoek barne, Diziplinazko Erregimen Arautegi bat dute, prozedura eta zigor propioak dituen. Beraz, funtzionarioek beren obligazioak bete ez edo gehiegike-

riaz jokutzen badute eta kalteren bat eragiten badute, zigortuak izan litezke. Prozeduraren hasiera era askotakoa da, baina zuri interesatzen zaizuna hau da: DGIPn salaketa bat aurkeztuz hasiera eman diezaiokezula.

Egia esan, salaketa bide hau ez zaigu eraginkorregi suertatu. Kontuan izan lehenik argi egon behar dela funtzionariaren arau-kontrako jokabide bat gertatu dela. Hartarako on litzateke salaketaren kausa den gertaeraren gainean JVPren auto bat, epaileak kasua aztertuta arrazoa ematen dizuna, izatea –pentsatzekoa da zuk JVPn ere gertakari berberari buruzko salaketa bat aurkeztua duzula, baina bizi-baldintzen ikuspegitik–, eta JVPk esatea funtzionarioaren jokaera ez zela Zuzenbidearen araberakoa izan.

Baina, jakina, behar da horrez gain DGIPk onartzea funtzionariak fede txarrez jokatu duela, edo modu guztiz onartezinean egin duela, edo zabarkeriaz, ... Behar da, azken batean, DGIPren aldetik bere funtzionarioen jokabideak zuzentzeko benetako borondatea. Eta, susmatzekoa denez, honetan berriz ere interes politikoak sartzen dira jokoan, korporatibismo arazoak,...



LEKUALDATZEAK

Lekualdatzeak LOGP 18. artikuluan eta RP 31tik 40era bitarteko artikuluetan araututa daude, bai eta **23/96 zirkularrean** ere. Jakin behar duzu, lehenik, RP 31. art.aren arabera, Zuzendaritza Zentroak (DGIPk) berea beste inorena ez den eskuduntza duela espetxe guztietako presoen sailkapena eta destinoa erabakitzeko, ohiko eta ezohiko moduan. Horregatik, zure gradu-sailkapena eta zure destino-zentroa Zuzendaritza Zentroak soilik erabakiko ditu; bata zein bestea aldatuko du egoki uste dituen arrazoiak direla medio eta erabakitzen duen momentuan.

Hala ere, lekualdatzeak **motibo** desberdinak direla-eta egin daitezke: besteak beste, eginbide judizialak, aldi baterako lekualdatzea edo arrazoi medikoak tarteko irtetea, destino-aldaketa edo familiar baten gaixotasunagatik aldi baterako lekualdatzea. Zenbait kasutan aldeztu aurretik jakingo duzu zeure lekualdatzearen berri, baina askotan aldeztu aurreko abisurik gabe eta zeure familia edo abokatua abisatzeko denbora eta aukerarik gabe. Nolanahi ere, edozein dela motiboa, lekualdatzearen berezitasunak berberak dira beti.

Hartara, ibilbideen iraupenaren urritzea lehenetsiko da, eta lekualdatze guztietan presoen duintasuna eta eskubideak zorrozki bermatuko dira, beti ere lekualdatzearen segurtasuna ere bermatuko den arren. Baloratu egin behar duzu, horrenbestez, segurtasun neurriak noiz diren egokiak, beharrezkoak eta zure eskubideen errespetuarekin bateragarriak. Honen arabera, JVPn edo Guardiako Epaitegian salaketa jartzea izango duzu.

Lekualdatze hauek guztiak Estatuko Segurtasun Indarren zaintzapean egingo dira (RP 32. art.). Zauden espetxearen eta burutzen den lekualdatze motaren arabera, gorputz poliziala hauetako bat izango da: Polizia Nazionala, Guardia Zibila edo Ertzaintza.

Aldez aurretik abisatzen badizute, lekualdatzearen aurreko arratsaldean sartze eta irtete-modulura, zeinetan gau horretan lo egingo duzun, eramango zaituzte. Ordurako presta itzazu eraman behar dituzun gauzak. Kontuan izan aldean nezeser bat eta 25 kiloko poltsa bat besterik ezin eramango duzula. Komenigarria da beti petate bat edo errafiazko poltsa handi bat edukitzea leku-arazorik ez izateko. **Aldi baterako lekualdatzea** baldin bada, kontuan izan espetxe berera itzuliko zarela, hortaz baloratu egin behar izango duzu zein eta zenbat gauza eramatea interesatzen zaizun. Gainerakoak espetxean geratuko dira. Destino-aldaketa baldin bada, pisu-muga dela-eta, hauta ezazu ezinbestekoa dela uste duzuna, gainerakoa mezulari-zerbitzu baten bitartez bidali behar izango duzu-eta, bidalketaren zenbatekoa zure pekuliotik aterako dutela, noski –eta gainera gauzak iritsi arte luze joko du, ...–. Pisua edo tamaina dela eta destino berrira eramatea komeni ez zaizuneko gauzak utz ditzakezu. Kasu honetan zure edo espetxe hartan geratzen den lagunen baten familiar bati pertsonalki jasotzeko esku-mena eman diezaiokezu.

Zure pekuliotik eskudirutan gastuetarako **zentzuzko** kantitate bat, zehaztu gabe, eman behar izango dizute, hala nola ura eta ogitarteko bat. Gainerako pekulioa zu baino beranduago iritsiko da kartzela berrira, arazo burokratiko hutsengatik. Ez ezazula espero izan astebete geroago arte...

Bidaian atera baino lehen, funtzionarioek **araketa** pertsonal bat egingo dizute, hartarako Zerbitzu-buruak bertan izan beharko lukeelarik, eta beharbada zure gauzak ere arakatuko dituzte. Ondoren, lekualdatzea burutuko duen polizia-indarraren ardurapean utziko zaituzte. Segur asko polizia honek beste araketa pertsonal bat egin nahi izango ditu. Araketa egokia behar du izan, lekualdatzearen segurtasuna bermatzeko, baina zure eskubideekin adeitsua. Espetxe berrira iritsitakoan funtzionarioek araketa errepikatuko dute.

Salaketa ugari izan da lekualdatzeetan gertatutako **erasoengatik**. Edozein eraso mota jasanaz gero, behin destino-espetxean zaudela eska ezazu sendagileak azter zaitzala eta liburu medikoan lesioak egiazta ditzala, Guardia Epaitegiko salaketarako froga balio diezazun (RP 20.1, 20.2 eta 214. artk.). Halaber, salaketan eska ezazu al bait azkarren auzitegi-medikuak azter zaitzala. Kartzelako sendagileak zu aztertzeari uko egiten badio, jaso ezazu hori ere salaketan. Bertan, gertakariak kontatzeaz gain, saia zaitetz frogak ematen (litezkeen lekukoak, erasotzaileen ezaugarri fisikoak ondorengo ezagutze baterako, etab.). Ahalegindu zaitetz gertakariak zure konfidantzazko abokatuari, hala nola zure familiari, lehen bait lehen jakinarazten.

